

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ataun



Aurkibidea

Udalerria: Ataun

Sarrera



Goierri bailarako herria. Nafarroarekin muga egiten du eta Aralar Parke Naturalaren barruan dago. Hiru dira auzo nagusiak: San Martin, San Gregorio eta Aia. Goierriko euskara egiten da Ataunen, baina beste herrietako hizkeretatik pixka bat bereizten da, ziurrenik bere kokapenagatik.

- **Biztanleak:** 1.669
- **Euskaldunak:** %94,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **44**
- Zintak: **52**
- Pasarteak: **769**
- Transkribatutakoak: **64**
- Audioak: **29**
- Bideoak: **737**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Atzoko Zegama
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den!
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaizti motzak
- Goierri Telebista
- Hikagin
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Pedro Agirre Begiristain (1935)



Aia auzoan jaioa, gurasoak biak ziren bertakoak. 12 senide izan ziren, baina horietatik 10 bizi izan ziren. Bere anaia [Zelestino](#)rekin batera kontatu zizkigun bere ume eta gazte garaiko kontu zein bizipenak. Argazkian eskuman ageri da Pedro.

Zelestino Agirre Begiristain (1936)



Aia auzoan jaioa, gurasoak biak ziren bertakoak. 12 senide izan ziren, baina horietatik 10 bizi izan ziren. Bere anaia [Pedro](#)rekin batera kontatu dizkigu bere ume eta gazte garaiko kontu zein bizipenak. Argazkian ezkerrekoa da Zelestino. Bigarren elkarrizketa bat egin genion. Istoriozalea eta kontalari ona izanik, bere aitari entzundako istorioak kontatu zizkigun, gehienak jentil eta sorginenak.

Maria Rosario Agirre Egaña (1942)



Ataungo San Gregorioko Larruntza baserrian jaioa. Baratzea du afizio, eta sendabelarren inguruan jakituria handia du. [Rufina Urbistondo](#)rekin batera egin genion elkarrizketa.

Jexux Aizpurua Barandiaran (1951)



San Martin auzoko Zaindi etxean jaioa, eliza ondoan. Lau anai ziren. Umetan moja ikastetxera joan zen eta gero eskola nazionaletara. Gero Saturraranera, fraidekume. Zeruko Argiako korresponsal lanetan hasi zen eta euskalgintzan aritu da gaztetxotatik. Irakasle gisa jardun du urte luzez (euskara, literatura...) Goierrin. Jon anaiarekin batera elkarrizketatu genuen, batez ere Joxe Migel Barandiaranen kontuak jasotzeko.

Jon Aizpurua Barandiaran (1958)



San Martin auzoko Zaindi etxean jaioa, eliza ondoan. Lau anaietan gazteena. Ama ataundarra zuten, Aitzigoiko baserrikoa, eta aitaren familia Abaltzisketatik Ataunera bizitzera joandakoa zen; aitak CAFen egiten zuen lana (arrantzale ere ibilia zen). Umetan moja ikastetxera joan zen eta gero eskola nazionaletara. Gero fraidekume, Lizarrako eskolapioetara. Ordiziako akademian eta Beasaingo institutuan ere ibili zen. Segurako futbol taldekoa izan zen. Euskalgintzan hasi zen lanean: itzulpenak egiten eta Goierriko euskal eskolan irakasle. EiTB sortu zenean, hartarako prestatu, eta bertan hasi zen: lehenengo telebistan eta ondoren Euskadi Irratiko esataria izan da urtetan. Jexux anaiarekin batera elkarrizketatu genuen, batez ere Joxe Migel Barandiaranen kontuak jasotzeko (liburua idatzi zuten elkarlanean, hari buruz). Jeltilbaratza elkarteko sortzaileetako bat da, "Jentilen etorrera" antzezlaneko gidoilaria, eta mitologiarekin lotutako elkarrizketa ere egin genion.



Arantxa Aizpurua Gaztelu (1942)

Martin Aldasoro Begiristain (1929)



Ataungo Aiako Praixkune baserrian jaioa. Bost senidetan bigarrena, gazterik hasi behar izan zuen ofizio bila. Okin gisa aritu zen lanean Beasainen, lehendabizi, eta gero harakin lanetan Lazkaon. Gerora, ordea, basozain lanpostu bat sortu zen Ataunen. Martinek osaba bat bazuen artzaina, eta berak erakutsi zizkion txikitan Ataungo mendien mugak eta Aralarko parajeak. Mendi inguru hura ederki ezagutzen zuenez, lanpostua eskuratu zuen. Hala aritu zen basoak zaintzen, erretiroa hartu zuen arte.

Joxe Apalategi (1927)

Ataunen jaiotzen gerra baino urte batzuk lehenago, eta ondo gogoratzen ditu gerra bukatu eta ondorengo urte gogorak: eskola, gosea, estraperloa... Ehizako ipuinak ere gogoan ditu.



Jokin Apalategi Begiristain (1943)

Psikologia sozialeko katedraduna da UPV/EHU, idazlea eta UEUren UZTARO aldizkariaren zuzendaria izan da 2017. urtera arte.

Joxe Manuel Apalategi Tolosa (1927-2018)



Joxe Manuel Apalategi, ataundarra. Basoan lan egin zuen, batez ere ikazkintzan, baina baita bakantze-lanetan eta zuhaitzak aldatzen ere. Aita ere basoan lanean ibilia zen arren, bere kabuz ikasi zuen lanbidea, lanean jardunda. Pago-motzen eta inausketaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa. 83 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

Isabel Arana Barandiaran (1928)



Isabel Ataungo San Martin auzoko Txomin enea kale-etxean jaio zen. Bere lagun [Jexuxa Barandiaran](#)ekin batera gazte garaiko kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketan. Isabel argazkian eskubitan agertzen dena da.

Juana Armendariz Agirre (1936)



Ataungo Astigarraga auzoko Astigarretxen jaioa. Ama jaiotetxe berekoa zuen, eta aita Sotsoeta baserrikoa. Astigarretxen bizi izan da beti, udaletxeko artxiboen arabera, Astigarraga auzoan eraikitako lehendabiziko etxean. Hemezortzi urte zituela ama hil zitzaien, eta bost gizonekin gelditu zen etxean, aita eta lau anaiarekin. Etxeko kontuen ardura berak hartu behar izan zuen, eta geroztik ez du ardura utzi.

Iñaki Arratibel Zurutuza (1933)



Ataungo San Gregorio auzoko Sariartegarakoa baserrian jaioa. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama Lauztiberrri baserrikoa. Bederatzi senidetan zortzigarrena, gazterik hasi zen basoan lanean eta beti izan du basolana gustuko. Basoko lanaz gain, ordea, hogeita hamar urtez egin du lan fabrian. Txikitan etxean entzuten zituzten zenbait ipuin kontatu dizkigu.

Martina Arraztio Saralegi (1926)



Martina Nafarroako Gaintzan jaio zen, Mailoen azpian, Artzoiti baserrian. Hamar senidetan zazpigarrena zen. Txiki-txikia zela erabaki zuen herri hartatik kanpora bizi nahi zuela, eta aukera izan zuen bezain laster, hamasei urterekin, Beasainera joan zen neskame. Han urte batzuk egin ondoren, Atauna ezkondu zen, San Gregorioko Urrutxu baserrira, hogeita hiru urte zituela. Handik, ordea, kale aldera joan ziren bizitzera, San Martingo Zaindi baserrira. Orduan borda soil bat bazen ere, etxea txukundu zuten, eta bertan hezi zituzten seme-alabak. Geroztik, beti bizi izan da Zaindin. Elkarrizketan Ataungo hizkeran hitz egin digu, baina Gaintzan Gaintzako erara egiten omen du oraindik ere.

Aitor Arruabarrena Etxeberria (1982)



Itsasondon jaioa, hiru urte zituenean familia Ataunera joan zen bizitzera. Geroztik bertan bizi izan da (Iruñean emandako denboraldian salbu). Hika jasotzeko elkarrizketatu genuen, bere arreba Mainerrekin batera, elkarrekin hika egiteko ohitura dutelako.

Maidar Arruabarrena Etxeberria (1986)



Ama Itsasondokoa eta aita ataundarra, herrian bizi izan da beti. Hitanoa jasotzeko egindako elkarrizketa, Aitor anaiarekin batera. Anaiarekin eta senarrarekin hika hitz egiten du, eta baita seme-alabei ere. Herriko dantza taldekoa eta Biboletak talde feministakoa da.



Antton Arza Arin (1935)

Felisa Arza Urdangarin (1912-2010)



Ataungo San Gregorio auzoko Urrutxu baserrian jaiotzen zen Felisa Arza. Hogeita lau urte zituen gerra hasi zenean, baina Urrutxun ez omen zuten aldaketa handirik sumatu gerra denboran. Lanean gogor aritu behar izan zuen Felisak, gerra ondorenean, gerra aurretik bezalaxe, tartean behin ezpainetako soinua jotzeko beta hartzen bazuen ere. Izan ere, anaia musikaria zuen, eta bera ere oso zen musika zalea. Ataungo Lauztiturrieta baserrira ezkondu zen, baina alargundu egin zen eta Berrobira ezkondu zen orduan. Han bizi izan zen azken urteetan.

Lurdes Auzmendi Aierbe (1955)



Lauztiazpi baserrikoa, guraso biak auzokoak zituen. 12 senidetan gazteena, Ataungo eskolan ibili zen 11 urtera arte, eta ondoren Donostiako moja-ikastetxe batera bidali zuten, interna. Handik Beasaingo institutura joan zen. 1974an ihesi joan zen, eta hiru urte eman zituen kanpoan. Pertur ETAkidea bere bikotekidea zen (1976a desagertu zen Pertur, eta oraindik ez da haren berririk). Bueltan, Zeruko Argian hasi zen kazetari lanetan, eta ondoren Itzultzaile Eskolan egin zituen ikasketak. Euskadi Irratian plaza lortu zuen, informatibotako esatari moduan. 1987an EIZIE itzultzaile elkartearen sortzaileetako bat izan zen, eta bereziki itzulpenak egiten jardun zuen. EHUn irakasle lanetan ere badabil, itzulpengintzaren arloan, eta interprete gisa. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea ere izan zen bi urtez (2010-2012).

Sabino Auzmendi Arratibel (1926)



Ataungo San Martin auzoan jaioa, Urdangarintxiki baserrian. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama San Gregoriokoa, Larruntza baserrikoa. Hamar senidetan seigarrena, hamasei urterekin hasi zen Caf lantegian lanean. Ehizarako afizioa izan du beti, baina handiagoa bertsolaritza eta literaturarako. Poesia asko idatzia da, eta bertso jarriak milaka izango omen ditu.

Jexuxa Barandiaran (1924)



Jexuxa Ataungo San Martin auzoko Antzio baserrian jaio zen. Bere lagun [Isabel Arana](#)rekin batera gazte garaiko kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketan. Jexuxa argazkian ezkerrean agertzen dena da.

Joxe Migel Barandiaran Aierbe (1889-1991)

1889ko abenduaren 31n jaio zen, Murkondo auzoko Peruenezarre baserrian, 9 anai-arrebako familian. Apaiz ikasketak egin zituen Gasteizko seminarioan eta 1914an apaiz ordenatu zuten Burgosen. Urtebete geroago Teologian lizentziatu zen hiri hartan bertan. Hogeta hiru urtez Gasteizko Apaizgaitegiko irakasle izan zen. Ezagutzak hedatu nahirik, Herrien Psikologiari buruzko ikastaro bat ere egin zuen Leipzig-en.



1916an ekin zien etnografia eta antropologiako lanei, Aralar mendialdean. Han zenbait trikuharri arakatu zuen eta 'Euskalerrriaren alde' aldizkarian eman zuen horren berri. 1917an Telesforo Arantzadi eta Enrique Eguren ezagutu zituen, eta hogeituro urteko lankidetzaren emankorrari hasiera eman zioten.

Euskal kultura biltzen, aztertzen eta ahanzturatik salbatzen egin zuen lan izugarriagatik Euskal Herrian eta nazioartean ezagun egin zen. Urte askoan etenik gabe eta zientziaren metodoak erabiliz egindako ikerketa lan guztiaren ondorioz, elkarte askotako kide izendatu zuten: Real Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria; Sociedad Ibérica de Ciencias Naturales; Euskaltzaindia; Real Academia de la Lengua Española; Société Française d'Ethnographie; Folklore Society; eta abar. Arrazoi berberengatik, honoris causa doktore izendatu zuten Euskal Herriko Unibertsitateak, Gasteizko Teologia Fakultateak, Deustuko Unibertsitateak eta Madrilgo Complutense Unibertsitateak.

Joxe Ramon Barandiaran Arritokieta (1936)



Ataungo San Martin auzoko Etxetxiki kale-etxean jaioa. Aita, izatez, Eskisabelzarra baserrikoa zuen, eta ama Villabonakoa. Aita artzaina zuen, eta bera ere ardiekin asko ibili zen gaztetan. Bere afizioa, ordea, irakurtzea izan da betidanik.

Pili Barandiaran Barandiaran (1944)

Baserrian jaio zen 13 senideko familian; aitona eta izeba-osabak ere eurekin bizi ziren. Gaztetan baserrian lan asko egitea egokitu zitzaien, ezkondu arte.

Inazio Barandiaran Sukia (1927)



Inazio Ataungo Aralegiberrri baserrian jaio zen, ama zuen bertakoa eta aita gertuko baserri bateako, Agerrekoa. 10 urte zituen arte, Ataungo eskolan ibili zen; eta, gerora, Beasaingo fraideetan hilabete batzuk ere egin zituen. Gainerakoan, baserrian lan asko egin zuen. Baserriko bizimoduaz eta Ataungo kontuez hitz egin zigun elkarrizketan.

Juliana Begiristain Auzmendi (1928)



Ataungo Txuloa baserrian jaioa, Aia auzoan. Aita Iberondo baserrikoa zuen eta ama Erroiondokoa, Aiakoak biak ala biak. Txuloa elizaz Aia egiten bada ere, San Gregorioko elizatik Aiakotik bezain hurbil ala urrun dago, eta etxeokoe bi auzotarako joera zuten. Zazpi senidetan zaharrena, soroan, ganadua gobernatzen zein etxeoko martxa eramaten makina bat lan egindakoa da.

Maria Jesus Begiristain Auzmendi (1942)



Aia auzoko Urkilaga baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa; ama, berriz, auzo bereko Arbileta baserrikoa. Eskolan gutxi ibili zen, doktrinara berriz derrigor joan beharra izaten zuen, garrantzia gehiago ematen zitzaion-eta. Sei anai-arrebatan zaharrena baserrian lan asko egin beharra izan zuen eta hamar urte zituela umezain joan zen bere izeba baten etxera. Bertan hiru urte igaro eta Idiazabalgo Zepai bertsolariaren tabernara joan zen neskame. Bere senarra izan zena ezagutu eta Idiazabalera ezkondu zen.

Mikel Begiristain Barandiaran (1961)



Aia auzoko Iberondo baserrian jaioa, guraso biak ataundarrak zituen. Sei senidetan laugarrena. Bost urterekin Aiako eskolan hasi zen, eta gero San Martingo eskolara joan zen. 12tik 14ra, berriz, Lazkaora. Monagilo ere ibili zen sasoi horretan. Artzaina da, bere aita bezalaxe. Gazta egiten du. Kobazuloetan ibiltzea ere asko gustatzen zaio.

Joxe Bikuña Agirre (1935)



Joxe Ataungo San Martin auzoko Okarizti baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, auzo bereko Aizkorriondo baserrikoa. San Martingo eskolan eta Beasaingo La Salle ikastetxean ikasten ibili ondoren, hamabi urterekin, Saturrarango seminaria joan zen bere ikasketak osatzera. Hamabost urte zituela, Saturrarandik itzuli eta baserri lanetan aritu zen kontabilitatea ere ikasten zuelarik. Hogeita bat urterekin Beasaingo CAF lantegiko laborategian hasi zen lanean eta bertan ibili zen erretiratu zen arte. Hogeita zazpi urte zituela ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Ataungo ikastolaren sorreran lan asko egin zuen, guraso elkartean aktiboki parte hartuz.

Luisa Dorronsoro Aierbe (1931)



Ataungo Sariarte Dorronsoroenekoan jaioa. Aita jaiotetxe berekoa zuen eta ama Lauztiturrietakoa. Zortzi senidetan hirugarrena. Aita ikazkina zuen, eta bere lana basora edo sorora bazkaria eramatea izaten omen zen. Jolaserako ere izaten zuten denbora, ordea, eta txikitako jolasak azaldu dizkigu, besteak beste.

Maria Dorronsoro Dorronsoro (1921-2011)



Ataungo San Gregorio auzokoa, Ergoneko Etxe Zurikoa, hain zuzen. Bai aita eta bai ama Ataungoak zituen. Bost senidetan hirugarrena. Txikitako oroitzapenez hitz egiten du elkarrizketan; tartean, Ataungo apaizak neskei pelotan eta futboleant aritzea galarazten ziela azaltzen du. Hamar urterako Beasaina joan zen neskame, umeak zaindu eta etxeko lanak egitera.

Iñaki Dorronsoro Maioz (1994)



Oinarrizko ikasketak Ataunen eta Beasainen egin zituen, eta ondoren Ingenieritza Zibila ikasi zuen Bilbon. Konturatu zen hura ez zela berari gustatzen zitzaiena. Hainbat lekutan bizi izan da eta hainbat lanetan jardun du, besteak beste itsasoan eta tabernari. Bere bidea euskalgintzari lotua zegoela ohartu zen, Usurbilgo euskaltegian euskara irakasle lanetan hasi zenean. Hikari buruzko elkarrizketa egin genion, euskaltegian bertan, eta beste hainbat gai ere jorratu genituen. Hika izan zen. Elkarrizketa egin genionean Donostian bizi zen.

Asentzio Eskisabel (1928)

Ataungo Eskisabel baserrian jaio zen 1928an. Gaztetan basoan lanean ibilitakoa da eta ikazkintzan ere aritua da. Gero fabrian ere lan egin zuen 30 urtez. Ikazkintzaren gaineko azalpen interesgarriak ematen ditu. Hitz-jario handiko gizona, Ataungo hainbat kontakizun eta ipuin kontatzen ditu, sorginei buruzkoak barne.

Migel Eskisabel Arin (1930)



Artaditxulo baserrian jaioa, San Gregorio auzoan. Gurasoak bertakoak zituen. Zortzi senidetan hirugarrena. San Gregorioko eskolan ibili zen, eta baita Iruñean ere, fraide salesiarrekin. Migel gaztetatik hasi zen etxeko negozioan lanean: aitak, Bixente Eskisabelek, airetiko kableak jartzen zituen. Bi kable mota prestatzen zituzten: belarra zelaitik baserrira garraiatzeko kablea, Ataunen oso erabilia, eta mendiko kablea, egurra jaisteko. Hainbat tokitan jarri zituzten mendiko kableak, Nafarroan batez ere, baina baita atzerrian ere. Victoria Eugenia erreginaren arreta ere piztu zuen sistema horrek. Elkarrizketan Xabier Eskisabel iloba ere egon da.

Felix Eskisabel Zurutuza (1929)



Ataungo Espilla baserrian jaioa, Arrondo auzoan, San Martinen. Bost senidetan zaharrena. Eskolarako zaletasuna izan zuen beti, baina, hamar urte zituela aita hil zitzaizen fabrian erreta, eta eskola utzi behar izan zuen. Sei urte zituen gerra hasi zenean, baina ondo gogoan du erreketek Lizarrustitik behera etorri zirenekoa. Herriko kontu ugari kontatu dizkigu.

Anarro Imaz Agirre (1965)

Ana Rosa, Anarro bezala ezagunagoa. San Gregorio auzoko Igartzate baserrian jaioa, 13 anai-arrebatan gazteena.



Guraso biak Ataungoak zituzten. San Gregorioko eskolan ibili zen lehenengo, gero San Martinen eta Beasaingo lizeoan ondoren. Gaztetxoa zela, herriko neskek futbol taldea sortu zuten herrian (Otso emek); Beasainen eta Añorgan ere jokatu zuen gero, eta Euskal Selektzioarekin jokatzera iritsi zen. Baserritik bizi izan da beti, ganaduarekin. Emakume Baserritarren Elkartekoa da. Elkarrizketa hika izan da.

Tiburtzio Izagirre Arratibel

Tiburtzio Ataungo Ergoeina auzoko Sarteazpi baserrian jaio zen, ama zuen bertakoa eta aita, berriz, Lazkaokoa. Lau senideetan hirugarrena, baserrian lan asko egin zuen, simaurretan, garitan, ikatza egiten, etab. Eskolara ere joan zen eta bertan ikasitako abestiak kantatu zizkigun elkarrizketan. Hogei urte inguru zituela, Beasaingo CAF lantegiko ofizinan hasi zen lanean, eta bertan aritu zen erretiratu zen arte.



Jose Mari Korta (1871)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Sakristaua zen eta 42 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: gipuzkera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.231

Luisa Mujika Zurutuza (1924)

Ataungo Lauztierreka auzoan jaioa, Lauztigarakoa baserrian. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama Teletxe baserrikoa. Hamabi senidetan hirugarrena, Lizartzara joan zen neskame. Atauna itzuli zen handik, eta San Gregorioko etxe batean hamalau urte eman zituen umezain. Ataungo Hirubideko janari-dendan ere egin zuen lan garai hartan, hemezortzi-hemeretzi urterekin. Gerora Hundiexetxikira ezkondu egin zen, Astigarraga auzora.



Felipe Munduate Zurutuza (1937)

Ataungo Telletxe baserrian jaio zen (Lauztierreka auzoan). Gaur egun San Gregorio auzoko Olanan etxean bizi da. Emaztea San Martin auzokoa du. Baserritarra eta ehiztaria.



Demetrio Oiartzabal (1885)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Botikaria zen eta 28 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: gipuzkera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.236 eta 2.237

Rufina Urbistondo Urdangarin (1929)

Ataungo Iturrioz baserrian jaioa, San Gregorio auzoan, Urrutxu Mendi aldean. Aita bertakoa zuen eta ama ere ataundarra, Iparragirre baserrikoa. Etxea San Gregorio elizatik oso aparte gelditzen zitzaien eta herriko martxa urrundik jarraitzen zuten Iturriozkoek. Hala ere, Rufinaren aitak bazuen irrati bat ordurako, eta berri guztiak aditzen omen zituen, hizkuntza ezberdinetan. Urrutitik etortzen omen zitzaion jendea berriez galdezka. Rufina San Gregoria ezkondu zen, eta geroztik bertan bizi izan da. [Maria Rosario Agirre](#)rekin batera egin genion elkarrizketa.



Pedro Urdangarin Goikoetxea (1948)

Aldarreta baserrian jaioa. Ama San Gregorioko Aintzineta baserrikoa zuen eta aita bertakoa. Sei senide ziren, bera laugarrena. San Martingo eskola nazionaletan ibili zen. Familia baserritik bizi izan da beti, haragitarako behiekin. Azken hamarkadetan Aldarreta nekazaletxea ere bada. Segurako emakume batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.



Juan Zeberio Agirre (1938)

Olatzaundi baserrian jaio zen 1938. urtean. Gurasoak ere Ataungo Aiakoak zituen.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. San Gregorio festak

- **Hizlaria(k)**: Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ATA-006/003
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:03:35. **Bukatu**: 00:06:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Jaiak asko aldatu dira lehendik. San Gregorio santuaren eguna dataz aldatu zutela azaltzen du. San Gregorio festak nolakoak izaten ziren. Aizkolariak eta bizikleta-lasterketak egoten ziren. San Martingoan eta San Gregoriokoen arteko pikeak. Dantza lotua debekatuta zegoen eta dantzan harrapatuz gero kongregaziotik botatzen zituzten.

Transkripzioa

- Esan didazu hemen, e, jaiak-eta... jaiak-eta asko aldatu diala.
- Bai.
- Asko kanbiatu?
- Lehen izaten huan hamabin, martxon hamabin. Ta oain, zean, agorren, agorren hirun.
- Eta zergatik kanbiatu zan o?
- Santue kendu zuelako egun hartan, egun hartako [...]
- Zein zan ba?
- San Gregorio. Ta hua [...] aldau zien ta baita festak´e.
- Klaro. Eta oain agorren?
- E?
- Agorren oain?
- Oain agorren.
- Hobeto?
- Bueno, ba, igualtsu. Lehen, lehen haseran, festan haseran izaten hittun. Ta oain ia bukaeran.
- Bukaeran. azkenetakok.
- Azkenetakok.
- Inguruko azkenetakok izango dia.
- Bai ba. Lehen haseran ta oain azkenen. Bukaeran.
- Eta... nolakoak izaten zian festak?
- Guretzat onak. Oain baiño hobek.
- Hobek, ez? Eta nolakoak izaten zian?
- Ba... bertako aizkolarin batzuk apustu bezela. Ta karrerak´e bai, ze, bizikleta karrerak eitten hittun.
- A bai, bizikleta?
- Bai. Bertako Luistarrak-eta. Geo, geo, eoten huan ba pelea, barrio batekin besteekin ta...
- San Martin ta...?
- San Martin ta San Gregorio. Beti pelean ta batekok hobek ziela bestekok hobek ziela ta hola.
- Ta peleak?
- Ta hortan.
- Bai e?
- Bai. Oain antzin.
- Eta dantza-ta izango zan, ez?
- Bai, dantza, dantza librea, ordun jeneralen izaten huan.
- Libre beti?
- Bai.
- Agarrauak-eta?
- Agarraua debekauta.

- Debekauta?
- Bai. Apaizak...
- Non? San Gregorion?
- ...apaizak.
- Eta apaiza begira ibiltzen zan?
- Harrapau ezkeo, zea, kongregaziotik bota ta...
- Bai e?
- Luistarrak eta, Marian alabak-eta. Ordun bai, hola izaten hittun gaztek ta... kongregaziotik igual bota. Deskuidon harrapatzen bazittuen eo jakiten bazuen ibilli zala ta.

1.2. Sorginen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Arraztio Saralegi, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-009/008
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:14:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Beraien aita zenak esaten zien sorginak sasi artean bueltaka ibiltzen zirela eta bidera ateratzen zirela. Azkarateko neska bati gertatutakoa. Sorginak leihoetatik sartzen zirela dio. Berari pasatutako pare bat pasarte kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Sorgiñak eta, baziala ta ez ziala ta ez al zizuten...?
- Bai, Jesus! Jesus! Sorgiñek? Ene! Gure aitte zanak-eta, ene! Gure aitte zana ikaratuta etortzen zan, sorgiñek ibiltzen omen zien, sasi azpittik gaiñea bueltaka ta, birea ateatzen emen zitzaien. Bai. Eta Azkaraten bazan neska bat, neska bati jun zitzaion sorgiñe. Besoa luzau omen zion eta harrek besoa moztu. Besoa moztu zion! zerbaitt´e [...]. Eta geo sorgin harrek badakizu ze in zon? Geo, besoa moztutakon, beso-motza. Eta mendi batea eaman omen zon neskea eta esan omen zion arropa kentzeko eta neskak esan omen zion "Beste aldera begira jarri zaiz", esan omen zion neskek, erropak kenduko zittula ta. Eta geo, beste aldera begira jarri zanen, berai bultza ein ta bota zun zuloa.
- Sorgiña bea?
- Mutille bea. [...] Sorgiñe zan hue! Sorgiñek leihoetatik-ta sartzen zien. Gu... Ni txikitan zerbaitt [...] nintzen, ahizpa ohian ta, ohian lo ta jun nitzen ta [eundalako] animala beltza ikusi non han. Ta ahizpa lo zeon. "Hau zer da?" ta korrika sukaldea! Hori ezaututa neon zerbaitt-zerbaitt. Eta sorgiñek izango zien. Geo, beste baten, jun nitzen... aittek-eta kuarton txokolatek eukitzen zittuen; "Txokolate pixkat hartu behar diat ba", ta jun nitzen ta hizketa-hotsa aitzen non ta begiratu non ohira ta figura gaiztoko pertsona ikusten non ta nik eamaten nitun zalapartak! Zerbaitt bai, zerbaitt bazan. Bai. Kuartotako leihotik ta edozein lekutatik sorgiñak, nik ez dakit nola sartzen zien! Sartu eitten zien. Ikaratu eitten giñen gu ordun.

1.3. Umeak instrukzio militarra ikasten

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan, maisua errepublikanoa zen, eta instrukzioa erakusten zieten. Orduan 8-9 urte zeuzkaten.

Transkripzioa

-Ordun errepublikanoa izan arren...

-Ba aurrena bai; aurrena, buf! Alperketa zuriekin-eta, zinta gorriekin-eta, hue etorri zanen Arabatik honea, bua! Nik begin aurren dauket, eta gero bestea kanbiau zan. Ta gero, gaiñea, esango dizut, bea hasi zan zapatutan-eta errosarioa erreztatzen, ta errosarioa erreza.. errezaazitten. Bea, bea hasi zan maixuoi kanbiau zanen, ta gero PNVa. Ta hala.

-Falangen zebillen garaian zuek desfilatuarazten?

-Bai, kamiñon ibiltzen giñen. Egurrezko moskotoiak eo egurrezko fusilen tipoko mosketoi zea batzukin. Bai, bai, bai.

-Ta ze egiñarazten zizuen ba?

-Ezer ez! Sobra ere hala zan ordenak-eta, ume gazteei eakustekoa ta. Aizu, beste herritan'ee ibiltzen zien sobra ere.

-Eta uniformiak ta hola?

-Et et et et! Bakar-bakarrik ibiltzen zittun bi-hiru neska banderekin. Ta Renteria junda die [Suuko] rubiak esaten gendun ,ta haak zien ba hor zea hortakok, rama hortakok baita ere, eta haak bandere espagnolakin aurreko alden ta gu desfilea mosketoiakin ta zeakin; ta ba plazako itturria arte edo hola ibiltzen giñuzten.

Ta zuek ordun gustoa?

-Gustoa edo desgustoa, ibilli beharra zeon. Guk zer genekiun garai hortan zer zan beatzi urtekin, zortzi-beatzi urtekin, aizu!

1.4. Albaitariarena errua eta meritua?

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/038
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:05:46. **Bukatu:** 01:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Albaitariaren ateraldia gogoan du.

Transkripzioa

Beterinariok esaten zon, aitzenekoa bagendun hemen, Donostiakoa, Altzakoa, jatorra. Ta esaten zon —emakumak hasten zien, ba, “Enee, San Antoniok lagunduko al diu!”— ta, ze, ez dakit ze esaten zon: “Bai, ondo ataatzen ba, San Antoniok lagundu diu, ta gaizki ateatzen bada, beterinarion kulpaa”. Beti esaten zon. Ta hola, aizu, histori...

1.5. Behien gaixotasunak agerian

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/040
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:07:03. **Bukatu:** 01:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Behien gaixotasunei buruz hitz egiten du. Osasun-azterketak egiten hasi zirenean, gaixotasun pila bat zeuzkatela konturatu ziren. Emakume bat nahigabeak jota hil omen zen. Lehenago ez zekiten behiak hain gaixo zeudenik.

Transkripzioa

- Ta ordun bazan beste gaixotasunik behiena o...?
- Beira, hemen hasi zienen zea eitten, nola [esplikauko] dizut nik... e... analizisek eitten behiei, urdun, ba, kadeneko gaitze batek zeukela, bestek petxuko ez dakit ze, biriak hondauta zeuzkela, ez dakit zer zeukela, badakit zer zeukela, urdun izugarrizko zea izan zan baserritarrai. Nik andra bat badakit, ba, disgusto hortati hil zala. Esaten due. Astigarretzekoa. Zuk aittuko zendun igual behin baiño gehiaotan. Ta aizu, haari, joe, Astigarretxe baten, ba, eukitzen zittuen behiek ba onak zielakon ta zean ta hiru behi txarrak ataa. Puf, harren disgustoa! Ta esaten due hue disgusto hartati jun zala.
- Ordun, orduarte ezautzen ez zian gaixotasunak...
- Bai, bai, bai. Bai, bai, bai.
- Ordu arte behiak galtzeko arrazoiak zein izaten zian?
- Ez dakigu ze esne eaten ai giñen ta ez dakigu ezerre. Bakar-bakarrik...
- Baiño...
- Bai, erabat hondatzen zanen bai. Por ejemplo, birikatako zea zeatzen zanen, ba, gastatzen juten zan behie, ta urdun antzematen zitzaion; "Behi honek badauke zerbait", ta urdun, ba, txorizeria o tratanten batei saltzen zitzaion ta kitto. Nik akaatzen etxen ez det ikusi.

1.6. Zeruan lekuri bai?

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/047
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:16:54. **Bukatu:** 01:17:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Feliperi buruzko istorioa kontatzen du, zeruan lekua bazuenekoa.

Transkripzioa

- Felipe, ba, zan republikano hutse ta apaizek... mezaik ezta pentsatu ´re!

Ta gaixotu da /gaixotua/. Ta sobra ´re ba, ez dakit ba, zenek pentsauko zon barru hontan ta ekarri do /ekarri/ apaize. Ta, hala, ba, nik ez dakit ze esango zion. Ta gero etorri da /etorria/ Kleszenzio, Legazpin lan eitten zon, —hue ezautu zendun behintzet.

- Anaie.

- Anaie.

- Bixitan.

- Klaro, hue enterau da seittun ta hue etorri da /etorria/ illea hartzea seittun laneti etorritakon. Ta: “Ze mouz hao Felipe ?” ta “Ba, poliki neok” ta “Apaize ´re ekarri emen dek ba”, ta “Bai, ekarri diat ba” , “Ta ze esan dik?” eta “Zerun erdi-erdiako naula”, “Ta hik ze esan diok?” eta “Nik gaixkixeago [bada ´re] hemen [ariko] geala”. Hoixe da dana.

- Bai, bai, bai.

1.7. Feliperen tren-geltokiko abentura

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/048
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:17:44. **Bukatu:** 01:18:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Feliperi buruzko istorioa: Beasaingo tren-geltokiko mutila jo zuenean, bertsoarekin erantzun zion.

Transkripzioa

Ta bestea, Felipena, ba, estaziokoa, Beasaingo estaziokoa. Ba, bizikletan jun da Felipe hoi Beasaingo estazioa ta jo do estazioko mozoa. Ta mozok esan dio: “Bozina, bozina”. Ta Felipe horrek: “badaukat baiño jo ezina, estazioko mozoa jo ta gelditu ezina”. Erdi bertsolarie zan, ba! Ta bueno, aizu, istori hori.

1.8. Astoa eta otsoaren istorioa

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/050
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 01:18:34. **Bukatu:** 01:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Iluntzean, osabak kontu zaharrak kontaktzen zizkien umetan. Hari entzundako istorioa kontaktzen du Felixek. Asto bat ba omen zetorren Nafarroatik ardoarekin; bidean otsoa azaldu zitzaion, eta haien artean izandako elkarrizketa.

Transkripzioa

- Beida, asto bat...

- Baiño... Itxoin, e! Zeiñi aittutakoa? Zuek...?

-Guk osobai, osobai, hemen. Hemen su-bajue zanen, honako hontan, ba,illuntzen, afalondon o... kontu zaharrak kontatzen. Harri. Asto bat emen zetorren Naparrotik ardookin ta biden ataa emen zitzaion otsoa. Ta asto horrek esan emen zion, larrituta-ta, klaro, ta: "Agur, agur, otsako". Ta bestek kontestau emen zion, otsook: "Ongi etorri haizela astako". Ta astoa larri, ta esan emen zion: "Deskuidon egarri baldin bahago, bazekarreat nahiko erari (edari)". Ta otsook kontestau emen zion: "Ez nok, ez nok egarri baizik goseak natxok larri. Gaur gauerako afari behar zetuat hire buru-belarri".

- Alaba: Aitte, aitte, kantatuz! Egiten dezu ba: "Agur, agur otsako..."

- Bai!

- Alaba: Kantatu! Baiña ez esan letra bakarrik!

- Utziazu! Baiño ulertu hor ze esan nahi dean. Eo... entenittu do.

- Alaba: ... du doiñu bat.

- Bai, beira, e:

"Agur, agur otsako".

Ta otsok kontestau emen zion: "Ongi etorri haizela, astako".

Ta astok urdun kontestau emen zion: "Deskuidon egarri baldin bahago, bazekarreat nahiko erari."

Ta otsok kontestau emen zion: "Ez nok, ez nok egarri, baizik goseak natxok larri. Gaur gauerako afari behar zetuat hire buru-belarri, tralara, tralara, tralara, tralara, tralara, hire buru-belarri."

Ta astok ´e urdun zerbait pentsau ein behar ta esan emen zion: "Hor goien bazeok artalde, zakurrik ere ez dute. Hautza aurrena juten danantzako zikirio pare bat badaude."

Eta otsook kontestau emen zion: "Oiñean zeukeat arantza, nik ezin brinka haruntza. Ta hi hemen haukeala zetako joango neok haruntza, tralara, tralara, tralara, tralara, zetako joango neok haruntza."

Ta gero astok ´e, joe, geroz eta larrigo, ta zerbait pentsau ein behar ta esan emen zion: "Hor goien bazeok ermita San Bartolome deritza, gero jango banok ere entzun behar diagu meza".

Ta hartan, ta astoa erminta hortaa jun die ta sartu da /sartua/ ta bi hankakin ostikoz jo ta itxi dio atea otsoori. Otsoa kanpon ta astoa barrun.

Ta otsook esan emen zion; ez, astook esan emen zion: "Otso zaharra, gazie, gazte ta gaizki hezie, bihar jango banok ere badiat gaurko bizie, tralara, tralara, tralara, tralara, badiat gaurko bizie.

Ta bestek kontestau emen zion, otsok: "Asto zaharra, mukizu, maleziak ere baittuzu, nik hurruna harrapatzen zaittuan lekuan gehigo mezarik entzungo ez dezu, tralara, tralara, tralara, tralara, mezarik entzungo ez dezu.

Hoixe da dana.

1.9. Pertsonen izen bereziak, alfabeto-ordenan

- **Hizlaria(k)**: Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-018/052
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 01:22:41. **Bukatu**: 01:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

- **Laburpena:** Eskolan ikasitakoak gogoan ditu: pertsonen izen bereziak, alfabeto-ordenan.

Transkripzioa

- A! Beste gauza bat. Lehen esaten aittu naiz Martin maisuneko eskolan, hemen, eskolan, zea, maisu zaharrakin. Ta hoi hamaika urtekin ikasiko non ba nik dudaik gabe, ta aber dakizuen zuek “nombres propios de personas por el orden alfabético”.

- Bota.

-Antonio, Benito, Kandido, Doroteo, Esteban, Fernando, Grabiél, Hipolito, Inazio, Joxe, Leon, Manuel, Nikasio, Odon, Pedro, Quintin, Ramon, Santiago, Tomas, Urbano, Vizente, Yabar, Zoilo. Hoi ez zat ba nei ahazten, e! Hoi da gogorra! Oin dala hirurogei urte ikasitakoa.

1.10. "¡Alto! ¡La bolsa o la vida!"

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/055
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:28:10. **Bukatu:** 01:29:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Felix 14 urterekin hasi zen lanean fabrikan. Orduko jorjala gogoan du. Lanetik etxera itzultzeko bidean, gauez, lapurretak egoten ziren.

Transkripzioa

- Hamalau urtekin hasi zifian, ezta, fabrikan?

- Bai, bai, bai. Aitte hil ta urteek kunplittu nittunen seittun.

- Ta orduko jorjala zuria zer zan?

-“Veintidós cincuenta” astea pasauta. Ez al dezu apuntau!

- Ez [...] apuntau ta dao.

- “Veintidós cincuenta” astea?

- Astea pasauta. E! eguneko “tres cincuenta” zan, ta gero, bigarren urten “cuatro setenta y cinco” uste det egunekoa zala. Ta gero, ba, ez dakit ,ba, ofizial terzera bederatzi pezta o zer zan. Garai hartan, e.

- Ta jorjala esaten zitzaion?

- E?

- Jorjala esaten zitzaion?

- Bai, hoixe, ba, hala zan ta, jorjala.

- Alaba: Eta bizikletan zapatutan dirue ekarri ta bidea´re ataatzen zienak [...].

- Bai, bai, bai, izan zien kasok, por ejemplo Metaliturrin, ba: “Alto! la bolsa o la vida”. Bai.

- Erderaz?

- Bai, ta euskeraz´e bai.

- Alaba: Eunez edo?

- E?

- Alaba: Eunez...

- Gauez!

- Alaba: A gauez.

-Bai, zeatio gauen hamarretan ateata illunduta eoten zan. Ta nei´re bai gertauta dao. Oin, beti belozidaden pasau, bai bizikletan ta geo motoa nola ´re bai. Hamabi ta erditan atea fabrikatik eta gauen, aizu. Ta kintzena igual bolsillon.

1.11. ETAkideak CAFen lapurretan

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/056
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:29:22. **Bukatu:** 01:31:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Behin CAFen ETAKoak lapurreta egitera sartu ziren, eta ihes egin zuten nominen diruarekin; baina guardia zibila haien atzetik jarri zen berehala. Guardia zibilek "altoa" ematean, "Apala" ataundarrak pistola atera eta guardia zibil bat hil zuen; ondoren, ihes egin zuen.

Transkripzioa

- Zeatio gero, gero lapurreta izan zan. Hue´re politte zan.

- Geo?

- Bai, fabrika haundin. Ba, klaro, sobretan etortzen zan dirue eta zakun ekartzen zuen. Ta, ba, ekarri due, zea, hillen aitzeneko egun baten, hillen aitzenen jeneralen pagatzen zan ta, nik ez dakit, ETAKok sartu die ta: "¡Todo el mundo en el suelo!". Ta pistolea ta hola, ta hartu zaku-dirue ta Lazkaumendi aldea korrika. Gue bistan e, nee bistan, e! Ni ez nitzen han momentu hartan, zean, takillen ondon, ez nitzen han. Ni taillerren geittu nitzen, gero jungo nitzela ta. Ta han bi-hiru tiro bota zittuen. Hala jun zien. Ta gero haak zean bat izan zuen, kontratienpon bat eo hor. Klaro, guardia zibillez bete zan hau seittun dana, helikopteroa´re etorri zan hurrungo egunen, bof! hemengo mobimentue! Ta urdun zan, ba, e... "Apala", ba, hor sobra´re potaje hortan, bezperan lanen zan "Apala", baiño potaje hortan sartuta zeon. Ta Aiako festak zien ta etxea bagatoz oiñez ta Atxurreneti beheraxeagon, guardia zibillek "¡Alto!". Ta "Apala" horrek... seguruonea, seguruonea, gu esaten aitzen gea, egun hartan emango ziela pistolea. Etaa do galtzerditi pistolea ta pun! pun!, guardia zibille "al suelo". Bea errekaa saltau da ta errekat... mendi hue jakingo zon harrek nik etxeko sukaldeko berri bezela, mendi haren berri. Ta igo da gaiñea ta Zegamako tunel luze hortan jarri da /jarria/ paiten gaiñen, han bagoien batea saltatzeko zean, hartu do lo ta halako baten esnau da ta bagoia, "aiba Dios!" ta bagoien batea salto ein do, han ezkutau da nola-hala ta Hendaia arte. Gehio ez da harren arrastoik, hue ez due harrapau. Histori hoi hala da, e!

- Bai, bai, nik ez nekin hori.

- Alaba: Nik´e ez.

-Ez zenekizun, ez zenekizun, e? Ba hala da hoi. "Apala"n zea horixe zan.

1.12. Urzelai ETAkideak ospitaletik ihes egin zuenekoak

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/057
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:31:48. **Bukatu:** 01:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Behin, Donostiako ospitalean operatu zuten Felix, lanean istripua izan baitzuen. ETako Urzelai presoak ere han zen garai hartan, eta bi guardia zibil zeuden hura zaintzen. Halako batean, Urzelai ospitaletik alde egin zuen beste lagun batzuen laguntzaz.

Transkripzioa

-Ta gero, gero, beste baten igual-igual-igual gertauta nao. Ospitalen neon behatz honekin, Hospital Probintzialen, Donostin. Ta behatz hau zeatu ein non, moztu ein zin zea horrek, makina haundi horrek. Jo ta ñim! azkazala mugati. Ta hau gero operau zien baiño ez zan sendatzen. Ta zeak, fabrikako medikuk, bialdu nittun, partikular, Gorostidiña. Ta Gorostidik ba beiz operau beharra zeola, ta Hospital probintzialen operatzen zon. Ta, hala, operau nittun ta ni aurreneko plantan neon baiño Peronezarreko e... Dios! Hil zan ba, hor zein zan, e... anai horiitako bat. Ba han goien zeon ta don Joxe Miel hue bisitatzea junda. Ta Urzelai´e, Urzelai´e, ETako presoak, han zeon. Ta bi guardia zibil zeren, ba, bi polizi, ateen. Hara!

- Alaba: Aillau da.

- Etorri hai, etorri hai motel!

- Pasa, pasa.

- Ta ateen zeren. Ta ez det oindi ikusi... Han jun die beste horiik, kanpokok, ETakok izango zien, kanpotik, ba, ni jungo banintz bezela, ta dda! pistolea holaxe jarrita. Ta guardia zibillei eo poliziri pistolea eskutik, ba, ze esango dizut ba nik, zea balitz bezela, suabe-suabe-suabe lurrea holaxe erori zitzaien ta beak, eak, bi eskuk zabaldua jarri zittuen. Ta: "¡Urzelai, sal de ahí!" Ta, hala, Urzelai hoi korrika atea zan ohiti ta han, Hospital probintzialak badauzke ba eskillerak goiti behera jesteko? Han bi-hiru tiro bota zittuen ta "se acabó", bakutze bere lekutaa. Nik ekarri non espriñe nee puestoa, hoi gertau zanen! Ba fabrikakoa bezalaxe, igual-igual. Esan non nik; "Hau lehen´e ikusita..." Holako guztitan... Aizu, ta hoi´e, nee aurren gertau zan.

1.13. Beraiek umetan ezagututako eskola

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/004
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Ataun asko aldatu da lehendik hona. Lehen 6-7 urterekin hasten ziren umeak eskolan. Eskolan dena erdaraz ikasten zuten; eta, euskaldun hutsak izanda, arazo handiak izaten zituzten han moldatzeko. Joxek gogoan du orduan nola hitz egiten zuen erdaraz. Zigorrak jartzen zizkieten lehen: "la letra con sangre entra".

Transkripzioa

-Nola gogoratzen dezu zure ume garaitan herria?

-Bai, bueno, gaurti begiratuta ziharo alderantziz, ez? Gure garaien eskolan hasten giñen, uste det, ba sei-zazpi urtekin edo hola, gertunekok; baserrikoak ba geroogo. Garai hartan hemen, San Martiñen, eskola nazionalak zeuden, motillen aula bat eta neskena beste bat. Dana erderaz ematen zan ta guk ez giñukiun tutik´e eta orduan, ba, hor izaten gendun berealdiko oztopoa. Ni akordatzen naiz komunea juteko nola eskatzen giñun baimena maisuri: "has usté favor de mi erretrete" esan [ohi] giñun. Nik geroztik egon naiz pentsatzen, klaro, guk esaten genduan zerbait, baiño: "haga usted el favor de dejarme ir al retrete" izengo zan esan behar genduna, baiño guk ez giñukiun zer esaten gendun eta hola.

-Eta danok hori esaten zenduen?

- Ez, nik behintzet bai. Ez dakit besteek zer esango zuten edo, baiño gero ba, hoi, nola ez gendun ulertzen ba egurre izaten zan [hausiaten] edozein gauzagatik ba, belauniko jarri eta... edo liburu bi eskutan edo eskue hola jarri eta reglekin jo edo. Tipo hortako pedagogia zan garai hartan, ez? Ta esango dizuten ba, erderaz, ba: "la letra con sangre entra" ta holako gorabeherak, ez? Bueno.

-Erabiltzen zan esaldi hori.

-Bai

-"La letra con..."

-Bai.

1.14. La Sallen oso gustura ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/005
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena:** 9 urterekin, Beasaingo La Sallera bidali zuten, "lepatxuriengana". Han ikasi zuen Joxek 12 urtera arte; eta oso gustura ikasi zuen. Batik bat kaligrafia eta matematika lantzen zuten han.

Transkripzioa

-Ni ibilli nintzen hemen eskolan bederatzi urte arte hola, eta gero bialdu nittuen Beasaingo zeera, "Lepatxurik" esaten giñun guk, La Salleko kolegio hortaa.

-Lepatxurik?

-Bai, bai, hemen, hola, hemen zera bat eamaten dutenak. Hor ibilli nitzen ni hamabi urte arte edo hola, eta oso gustoa, oso ikasketa ona ematen zuen, batik bait letra egite aldetik, eta matematika aldetik hola bereziki behintzet, e. Bestea ere ondo baiño batik bait hoi. Erakutsi ziguten letra

1.15. Gosete-urteak seminarioan

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/006
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** 12 urte zituela, Joxe seminaria joan zen ikastera. Gosete-urteak tokatu zitzaizkien han; ume asko ziren... Etxetik astero bidaltzen zieten pakete bat, janariz beteta. Pakete hartako erdia denen artean banatu behar izaten zuten nahitaez. Ogia oso preziatua zen garai hartan.

Transkripzioa

-Gero ba, garai hartan nola ez zan unibersidadeako-ta gaur daon erreztasunik-eta ba etortzen zien prailleek eta abar etxetaa, ba ya jun nahi al gendun praille ta historik-eta. Guk bagiñuzten familin oseba batzuk apaizek zienak-eta ta hoiek beti atxutxatzen gu're aber horrekin, eta urdun ba, ni hamabi urtekin edo jun nitzen seminarioa, zera, Saturrarana.

-Saturrarana?

-Bai, Saturrarana. Han egon nitzen hiru urte ta zerbait edo eta gero handik atera egin nintzen.

-Erraza zen ateratzea?

-E?

-Erraza zen ateratzea?

-Bai, bai, bai. Gaiñera tokatu zitzakun urte oso txarrak, goseteko urtek, gerrate ondorenen, eta ume asko giñen eta han ba gosea-ta. Etxetik astero bidaltzen ziguten pakete bat eta hemen rekadista bat zan Lazkaokoa. Horrek asteen egun bat hortan pasatzen zon, paketek eaman eta eitten hautza. Seguruik asko ez dakit zenbat kostauko zan baiño paketea gehiao kostauko zan eamatea bertan balio zuena... Normalmente bialtzen ziuten ogi haundi hoietako bat, letxe kondensada, txokolate ta holako zerbaittekin. Ta gero han mahaiko lagunei, ez dakit. mahien izaten giñen, ba igual zortzi bat lagun edo, ba, obligazioa genduken pakete horren erdie besteei emateko. Urdun ogie ta horik apreziatzen zien, ba gaur ez bezela, eta nahiz zortzi egunekoa izan egotea ditxa, gustoa jaten gendun zegati otordu bakoitzean ematen ziun holako ogi puska ttiki-ttiki bat eta harrekin aritzen giñen, ba, esnaurrean (hausnarka) bezela, denbora pasa arazitteko.

1.16. Seminarioko janaria

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:10:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Saturrarango seminarioan zeudela, morokila ematen hasi zitzaizkien. Baina, hura janda, umeak gaixotu egin zirenez, arto-ogiak prestatu zituzten. Beste janari batzuk ere jaten zituzten: antxoa, baba...

Transkripzioa

- Gero ba, izan gendun kontratienpo bat, goizen ematen hasi zitzakun Bizkaiko zera bat, e, morokilla izeneko... Hori eitten zuten arto-iriñe urekin masa ein eta besteik be, eta hori botatzen zitzaion esneri edo uresneri edo eta hori hartu. Eta gertatu zan ba, jo!, izugarrizko diarrea sortu ziun danori, eta urdun eskerrak rapido antxen zeatu zuen, reaktionau zuen eta kanbiau zuen asunto hori artokin. Artoa, arto-talao eo esaten zaiona, bueno, arto-talao ez, arto-ogie esaten zen, hoi izaten da lorigoa ogie bezela egiten dana, hori oain ere saltzen da. Eta hoi, zopak ein. Eta nahiz uresnea izan ba horrekin bezperatik irakitten edukitzen zuen eta hoi izan zan izugarringo aziertoa. Bai indar aldetik eta osasun aldetik eta dana, bai. Bestela berriz, ba, antxoa eta hoiek, ba uretan egosita ematen ziguten. Ganaduei ematen zaion baba haundi hori eta hori lehenengo egunetan, ba, oilaskok apartauta jartzen giñuzten plateren bueltan baiña geo hirugarren egunerako ba, hi!, honek danak alimentoa izango dik eta "adentro", entenditzen dezu? Pixka bat adierazteko, ba, ze egoera gogorra izan zen asunto hoi, ez? Bai.

1.17. Seminarioko noten oinarria

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- **Laburpena:** Saturrarango seminarioan ikasitakoa mesedegarri izan zitzaion Joxeri. Gogoan du orduko anekdota bat: komentario xalo batengatik, jarrerako notan 0 jarri zioten.

Transkripzioa

-Nik beste gaiñerantz (gainontzean) eskertzen det han ikasitakoa ta han eakutsitakoa ta hango giroa ta hango euskal giroa ta gauza hoik danak nik uste det mesedegarri izan zela, bai. Ni pixka bat handik alde in non, euki non kaso bat, ateratzen giñen paseatzea ta handik Ondarru aldea-ta eta, bueno, han juten giñen alkarrekin hizketan ta abar eta beti aldamenetik juten zan profesoren bat edo bijilatzen edo zer esaten gendun edo, ta bat bazan oso mistikoa zana eta nik beste launei han pasatu zan, zera, kamioneta ttiki bat, guri esnea eamaten ziuna, eta beste lagunei esan [nien]: hi, bazetorrek, zea, letxeroa "etxando letxes". Bueno, nik, inungo gaizki esan nonik eta ez zaten ordun irudittu baiña geo hillen bukaeran notak ematen ziun. Hiru nota izeten zan, Urbanidad, Conducta eta bestea

Aseo, holako zerbait zan eta... taka! Aillegau zan nere izena eta... “fulano de tal, Joxe Bikuña Agirre: ocho, cero, ocho, ya sabrá por qué es eso”. Nik ez nekin ta gero jun nitzen tipo horregana kuartora ta historik-eta esan zidan zergatik zen. Hoi zen pekatue kristona, “ya viene el coche del lechero echando leches”. Nik oaindik ere ez det zeatzen hor ze disparate daon edo, baiño hala zan, hala zien urdun gauzak eta abar. Bueno.
-Eta zeroa konduktan zihoan edo?
-Bai, bai, hoi da.

1.18. Seminarioko ikasketen balioa

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: ATA-026/011
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:15:31. **Bukatu**: 00:16:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- **Laburpena**: Seminarioa, garai hartan, oraingo batxilerraren baliokidea zen. Saturraranen ikasi zuen Joxek; eta handik, Gasteiza joaten ziren. Ikasketa haiek 12 urte irauten zuten.

Transkripzioa

-Eta gero seminarioan egon ziñen garaieko galdera pare bat: ze ikasten zan seminarion?
-Ba, esango genduke ba, garai hartako batxillerra, esango genduke, bai. Lehenengo hor egoten zien lau bat, lau urte uste det, Saturraranen, Donostiko seminarioa berria egin zan bittarte; eta gero hortik joaten zien zeera, Gasteiza. Hor ya ikasten zuen Filosofie ta Teologie. Karrera horrek gero irauten zun, uste det hamabi urte edo. Bai.
-Badie, e.
-Bai.
-Bai, eta lehenengo fase hortan bazan ba batxiller baten erako ikasketak. Bai.

1.19. Seminarioko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: ATA-026/012
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:16:18. **Bukatu**: 00:17:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- **Laburpena**: Goi-mailako ikasketak izateko, seminarioa aukera ona zen. Hango bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta zea, ikasketetan jarraitzeko seminarioa jutea zan aukera bakarra, ez

zeon beste...?

- Ez, ordun ein zazu kontu hoi nola zan. Gu hemen eon giñen Ataundik kurso berdiñen beratzi lagun. Nere anaie bat eon zan Tolosako sakramentintan eta hemendik hola jendea ba izugarri izan zan, klaro, beste irtenbiderik ez zeon eta etxean gehienak bazuen bakarren bat apaize, praillea edo monja-edo eta ordun ba hoiensinuaziazioz-edo ba bide hoi jotzen zuten, geo nahiz gehienak bueltan etorri baiño... En fin. Bai.

- Ya, ya. Eta han errezua-ta egiten zenduen, errezau...

-Bai, bai, baiño normal, e. Goizen jeki ta lehendabizi egiten zana aseatu eta kapillan ba meza eta zerbait kantatue, eta gero ya gosaria, eta gero klaseak hasten zien, eta egunen zehar ba klaseak eta gero, zea, denbora libre-ta jolasteko. Bai, normal nik uste det alderdi hortatik.

-Eukitzen zenduen denbora librea ere?

-Bai, bai, bai, bai. Eta gero han Saturraranen ba behintzet negu garaitik kanpo ba plaia-ta asko aprobetxatzen gendun futboleant ibiltzeko ta bueno.

-Futboleant ibiltzen ziñeten.

-Bai, futboleant batik bait bai. Bai.

1.20. Saturrarango maisu ona

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/013
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:19:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- **Laburpena:** Saturrarango seminarioan ikasi zueneko maisu bat gogoan du: izarrak erakusten zizkien; arrantzara eramaten zituen; merienda berezia ematen zion Artizarra lehenengo ikusten zuen ikasleari...

Transkripzioa

-Gero, e profesore bat bagendun, Ondarrutarra, arrantzaleen semea, Don Antonio Basterretxea. Hau oso tipo artista zan, oso herrikoia eta honek zenbait gauetan ba haruntza, han, Saturraranen arroka batzuk daude pixka bat itsasoan ateratzen direnak. Hauntza eaman eta erakusten aritzen zitzakun konstelazioak eta izar desberdiñek eta gorabehera hoik danak eta gu oso gustoa eoten giñen. Gero beste gauz bat honek eitten ziuna zan, atsalde hola libre gendukenetan-eta arrantzaa eamaten giñuzten arroka hoietaa baita ere kañan batzuketin, tak! Orduan ateratzen genduna bakutzarentzako zan, hue jartzen ziu prejittuta edo eta bakutzai ematen ziu eta amorrauta ibiltzen giñen zerbait zertzen, han harrapatzen giñuzten txistuk eta lubinak eta holako aparatok. Gehiegi ez, baiño behintzet...

- [...].

-Bai. Gero beste gauz ba ni konturatzen naizena tipo honekin da, juten giñan kurson hasieran, juan ta berehala esaten zon ea Venus edo Artizarra lehenengo ikusten donai merienda berezi bat.

-Ze ba?

´-Artizarra, "Venus". Hori da planeta bat egunez ikusten dana eta hori lehenengo ikusten zonai ba zera, sari hoi ematen zion. Han egoten giñen ba puntuak hartu desberdiñek, akordatzen naiz ni telefonoko hari batzun

tartea-ta nundik billatzen gendun hori eta hoi lehenengo billatzen zonai ba sari hori ematen zioten.

-Eta ze sari zan?

-Merienda bat.

-A, merienda.

-Bai, ta orduan ba merienda, guk genduken goseekin ta ba, joe..

-Eskertzen zan.

-Bai.

1.21. Seminarioan, giro ona; baina gosea oso presente

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/014
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:19:41. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- **Laburpena:** Seminarioan zebilela, bere kurtsoan 90 ikasle ziren. Guztira, 250 ikasle inguru izango ziren han. Giro ona zegoen ikasleen artean, baina gosea oso presente zegoen.

Transkripzioa

-Zenbat zeudeten danea, zenbat mutiko?

-Gure kurson laurogeita hamar edo; eta danea ba hiru kurso edo lau ez dakit zer egongo zien, ez zien hain ugarik beste kursok baiño berrehun ta berrogeita hamar lagun edo, bai, bai.

-Gipuzku guztitik?

- Bai, Gipuzkua guztiti, bai, bai.

-Ta giroa ona zan zuen arten edo liskarrak izaten zien?

-Ez, ez, giro, giro ona, giro ona zan. Bakarrik ba... ba hoi, gose-haize hoi eta paseatzea ateratzen giñenen'e han sagasti baten ingurun pasautakon ba sagarren bat edo hartzea nahi izaten gendun baiño, jolin!, hoi pekatu mortala zan eta han aguantau behar izeten gendun ahal zan bezela. Bai.

1.22. Artzainak jentilari emandako eskarmentua

- **Hizlaria(k):** Agirre Begiristain, Zelestino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-033/002
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:02:21. **Bukatu:** 00:06:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Jentilen istorioa kontatzen du. Jentilak artzainaren esnea hartzen zuenez, eskarmentua eman nahi izan ziotenekoa.

Transkripzioa

Bueno, jentillena... Kontauko dizuet bat. Hemen, leizari beheti, kueba batzuk badare, eta... Hor bizi izan emen zien garai hartan, karo, kobazulotan bizi zien, jentillek eta. Hor e, famelik bezela, ba... bertan kuebean, bi kueba dare, bata besten ondon, eta hor bizitzen emen zien. Eta, bat, oso gazte fuertea emen zeon, eta eitten emen zon mendia bialtzen zittun behiek-eta harrapau eta behiei esnea ean ta hola ibiltzen emen zan. Eta, Aitzarten, artzaie eoten emen zan, Señoratza izeneko sarioia, ardi sarioia, txabolekin ta emen zeon eta. Geo, udaberriñ artzaie jun zanen, hasi emen zan harreana juden, eta biltzen zittuen esnek eraten emen zion artzai horri. Ta artzaie, ba, bildurrez! Eze esateko ´re jentil haundie emen zan, eta jentill horri eze esateko bildurrez. Eta behera etorri zan baten pentsau emen zon: "Apaizai kontau ber zoat, aber ze esaten dien". Ta herriko apaizai kontau emen zion, ta esan emen zion: "Hizketan-ta aitzen al da?" ta "Bai, bai, hizketan-ta aitzen gea" ta "Galdetu behar diozu, beak izena zer doon eta aber nundik... nola manejatzen duen eta zuk eman konberstazioa, eta, zuri galdetzen baizu izena zer dezun -esan emen zion- Neuk esan, zuk Neuk zeala esan". Ta galdetu emen zion: "Beti etorri eta leku baten esertzen al da?", ta "Bai, txabolen ondon, hola, harri xabal bat dau, eta harretxen gaiñen jartzen da, ta esnek ean ta alde eitten do". Esan emen zion: "Ba iñoiz ´e galdetzen dizunen aber izena zer dezun, zuk esan Neuk zeala. Eta geo, beti bezela etorriko da hue berriz ´e, eta eserleku hoi in behar dezu, surtan bero-bero einda jarri. Ta han ipurdie berotzen zaionen, ba, alde eingo do". Hala, esan bezela, bee konfiantzan eta hizketan-ta ai ziela behintzat, jentill horrek galdetu emen zion aber izena zon, zer zon artzai horri, ta Neuk zola. Geo, hurrengo eunen, harri hoik beotuta jarri dittu, gorri-gorri inda, eta beti ordu jakiñen juden emen zan. Ta etorri ta jarri emen zan eseita harri horren gaiñen, ta bueno! ipurdie erreta, bueno...! Sue zeriola, garrasiz beheti gora! Ta goiko gaiñetik jentillek hots eitten emen zioen: "Zeiñek ein dik?" eo "Nork ein dik?" eta "Neuk neuri!" esaten emen zioen "Neuk neuri!" eta. Bai, bestak entenditzen emen zuela, ba, beak ein ziola bere bururi, ta: "Horrek [hobe] ein zok, hor daun artzai gixaixo horri!" esan emen zioen, goitti kontestau emen zioen. Ta artzaiek hoi aittu zonen, ardik eta danak utzi, eta herria! Ta gero, hurrengo eunen, kuadrillanbat jun emen zien, eta ardik-eta hartu eta Aralarra pasau emen zien. Baezpa ´re, horiin ingurun peligroa eongo zan eta...

1.23. "Xarmangarria zera"

- **Hizlaria(k):** Oiartzabal, Demetrio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** ATA-042/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Xarmangarria zera" abestia kantatzen du

Transkripzioa

Xarmangarria zera
eder eta gazte
nere biotzak ez du
zu besterik maite.

Xarmangarria zera
eder eta gazte
nere biotzak ez du
zu besterik maite.

Beste zenbait bezela
banegoke libre
zurekin ezkontzea
dudarik ez nuke.

Beste zenbait bezela
banegoke libre
[zurekin ezkontzea
dudarik ez nuke].

1.24. "Ume eder bat ikusi nuben Donostiako kalia"

- **Hizlaria(k):** Oiartzabal, Demetrio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** ATA-042/003
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:03:41
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Ume eder bat ikusi nuben Donostiako kalia" abestia.

Transkripzioa

Ume eder bat ikusi nuben
Donostiako kalia
itz erditxo bat ari esan gabe,
nola pasatu parian?

Gorputza zuan liraña eta
oñak zebilzkin aidean,
politagorik eztet ikusi
nere begien aurrian.

2. Aisia

2.1. Arantzamendiko erromeria; San Gregorioko frontoian gramola

- **Hizlaria(k):** Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ATA-006/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- **Laburpena:** Arantzamendi izeneko mendian erromeria egiten zen. Soinujolea egoten zen eta gazte asko joaten ziren. Lotuan dantza eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Inguruetakoko mendi-erromeriak. Kanean frontoian egiten zen erromeria. Apaizak gramola jartzen zuen. Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen jaietan. Batzuetan Lazkaoko "Gorrie" soinujolea egoten zen.

Transkripzioa

- Geo hemen, goien Arantzumendi edo hots itten zien ta, hor goiko mendi baten, hor zea itten huan erromerie. Jaietan hauntza jentea, gazte-jentea. Ta hor soinujolek izeten hittun ba hola xaxi-soiñujole batzuk eta horik soinue jotzen zuela ba han agarrauan igual ibiltzen hittun, eta jakitten bazuen ba, benga!, kastigue.
- Ordun herriin solten, baina gero mendiin ezkutun.
- Mendiin ezkutun, eta hola.
- Eta nun esan dezu izaten ziala erromeiak?
- Arantzamendi esaten dien hor goiko gain baten.
- Eta hori udan, uda parten?
- Bai, uda parten. Negun ez. Negun bertan, hemen.
- Eta goian, Arantzamendin, jende asko elkartzen zan?
- Nik ez nian hauntza joerarik baiño hemen baittun hor goiko barrio ta... Bestealdekok eta... Nere andreen aldeko barrio... ze hori, san Martingo horik eta horik jotzen hittun horrea.
- Baina Ataun inguruko koadrilla.
- Ataungok eta Idiazabaldarrak'e asko. Biitakok.
- Bestaldetik.
- Bai.
- Mendien bestaldetik.
- Nola daon erdi paren, erdi mugan bezela. Biitakok apuntatzen hittun horrea.
- Ta giro ederra ta?
- Hoixe. Ona izaten zalako juten giñun nunbait.
- Eta tabernarik-eta izaten zan?
- Tabernarik ez.
- Soinua ta dantza.
- Bakoitzek beak eramaten zon... Geo iturri bat zian azpiko alden, barrenen. Ta hue tabernea.
- Ura, ez?
- Ura, ura eateko.
- Eta kalen? Kaleko erromeiak-eta?
- Kalekoa hemen, zean hittun, frontoian.
- Oaingo frontoi hortan?
- Ez, hoi gero eindakoa dek. Hor frontoi librea huan lehen. Gero ein zien estalie.
- Baina bertan?
- Bertan. Bai, bai. Leku hortan bertan.
- Eta hantxe erromerie-ta?
- Hantxe.
- Eta...
- Eta apez bat bagenduan, horrek gramola edo jarri zian. Gramola ba... diskok-eta jotzeko.
- Eta berak jartzen zun musika?
- Beak musika're.
- Apezak?
- Bai. Jendea juntatzeko. Eta hemengo... Hemen jendea juntatzen huan,

festatan oain juntatzen dan baiño askoz gehio jaietan.

- Beste jairik ez zan izango, ez?

- Idiazabaldarrak, lazkaotarrak, Lazkaomendi, Zaldibi, Ordizi... Leku askotati, e. Kantidadea jendea.

- San Gregorio egunen?

- Bai, ez, ez, San Gregorio. Jaietan, jaietan, edozein... jai sueltotan

- Erromerietan.

- Bai, bai.

- Eta beste herri batzuetatik orduan?

- Bai, Zaldibiti, Lazkaomendi, Lazkao, Ordiziti ere bai, Idiazabal...

- Jai inportantea zan, orduan?

- Asko jendea edozein jaitan.

- Eta giro polita?

- Bai, jode. Dantza gramolakin-ta. Gero soinujolea`re eoten huan tartetan.

- Zein?

- Hemen, Lazkaokoa, 'Gorrie' edo esaten ziena.

- Ona?

- Bueno, ona... orduko... moldatzeko modun, poliki. Baiño oaingo soinujolek bezin ona ez.

- Baina dantza egiteko ta?

- Dantza egiteko nahikoa.

- Eta gero txapela pasatzen zun edo?

- Ez, ez. Txapelik ez.

- Txapelik ez.

- Keba.

- Ez zan ordaintzen?

- Ez. Geo gramola asunto hoi berriz apaizan kontua. Harek jartzen zian eta. Hola, festa.

2.2. Ataungo auzoen arteko ika-mikak

- **Hizlaria(k)**: Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ATA-006/006
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Ataungo auzoak: San Gregorio, San Martin eta Aia. Lehen bakoitzak bere aldetik gehiago jotzen zuen eta ika-mikak izaten zituzten, batez ere kirolean. Hala ere, jaietan batetik bestera joaten ziren. Auzo batek lasterketa jartzen zuenean besteak ere bai. Aiakoek Aiarako igoera jartzen zuten.

Transkripzioa

-Ataunen hiru barrio dia, ez?

-Bai.

-Hiru barrio nausi.

-San Gregorio, bueno, San Martin, San Gregorio ta Aia.

- Baina bakoitza, bere... pixkat aparte, ez?

- Bai, bakoitza bere...
 -Independiente.
 - Bai, je. Oain geihio zeetzen dek, unitzen dek, oain bat gehio eginda zeok.
 -Ta lehen?
 - Lehen bakoitza bee alden bezela.
 - Bai? Danak ataundarrak baina...
 -Baina sangregoriotarrak, sanmartindarrak eta aiatarrak.
 -Bai, e. Eta pikia izaten zan?
 -Pikea. Deporten ta beti pikea.
 -Gazteen artean-ta.
 -Bizikletan-eta, aizkoran-eta, dana tipo hortaa.
 - Apustu kontuak-eta?
 -Apustu kontuk-eta.
 -Eta pikea bakarrik izaten zan edo burrukak eta. Izango zian burrukak...
 -Ez, ez. Burrukaraino ez, hoinbestekoik ez. Pikea bai deporte asuntoon -
 eta.
 -Baina geo San Martingo jaiak-eta zianen...
 -Gero San Martingo jaiak zianen...
 - Hara juten zinaten ...?
 -Harea bai, bai.
 -Eta hangoon hona etorri ta...
 -Hiru barriotakook ta... Geo beste jai batzutan, igual izaten huan beste zera
 bat, edo Luistarren karrera jarri zala edo. Luistarrak igual hemen jarri
 karrera ta hangoon etortzen hittun ta hemengook ee bai ta. Harek'e
 pelean, bata besteen pikea... Geo han'e jarriko zien, San Martinen ´e.
 -Han karrera.
 - Han ´e karrera. Bai, karrera bertakoona ere bai.
 -Eta... aiarrak? Gutxio izango dia, ez?
 -Aiarrak, e... aiarrak jartzen zien subidea, Aiakoa.
 -A bai, bizikletan?
 -Bai.
 -Bertatik, hemendik edo?
 - Bai, Kaxetatik, Kaxetatik Aiara. Batzutan kontra-reloj igual izaten huan ta
 geo hurruna jarri zien bueltea ematea. Aian salidea hartu ta San Martindik,
 Kasetatik Aiaa berriz.
 -Aiatik San Martinea, hona, hamendik pasa.
 - Hemendi pasa ta llegadea berriz goien. Aian.
 - Ta ordun afizio haundia zeon, ez?
 -Afizioa, ba! Gazteek bai, afizioa.
 -Bizikletan-ta.
 -Ta korrika-apustuk'e jartzen zittuen bertan-eta. Hemen ´e baitta.
 - Ordun deporte kontuk-eta... dexente.
 - Bai, deporte kontuuk dexente.

2.3. Urrestarazu txirrindulariak

- **Hizlaria(k)**: Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ATA-006/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Txirrindularitza

- **Laburpena:** Ataunen baziren txirrindulari onak: Urrestarazu, Etxeberria ♦ Urrestarazu anaiak Espainiako itzulian ibili ziren. Urte batean Frantziako tourrera joateko aukera ere izan zuen, baina gaixorik zegoenez ezin izan zen joan.

Transkripzioa

- Ordun deporte kontuk-eta dexente.
 - Bai, deporte kontuuk dexente.
 -Eta bizikletan-eta bazan Ataunen, horrela... on-ona?
 -Bai! Bastante onak bai.Txatook-eta, Urrestarazu.
 -Hemengok?
 -Hemengok. San Martingok.
 -San Martingok. Hemengoa genduan Etxeberria.
 -Hori´re ona.
 -Bai, ona edo. Pelotoian ibiltzen dana. Baino profesioaletan korritu zian harek, e. Vuelta a España korritu zian Txatxok, Urrestarazu anai horik. Ta urte baten Frantziaa ere hartu zien.
 -Tourrea?
 -Ta ordun izaten huan "Equipo nacional" bakarrik Vuelta Frantziaako ta... Bai, ekipon hua hartu zien urte baten. Baino, bea ez zuan ondo tokau, katarrokin edo gripe edo ez zekiat zer, ta geo ez zien eaman, ez zion aillegau jutea.
 - Pena.
 -Baino bestela ondo ibiltzen zienak.
 - Eta hemengo karreretan-eta?
 - Hemengo karreratan ´e bai. Ta irabazi ere bai hemengo karrerak.
 - Profesionalak-eta.
 - Urrestarazu gaztea, espriñen eta ona huan. Vuelta Andaluzin urte baten irabazi zituan hiru etapa edo.

2.4. Soinua jotzen ikasten

- **Hizlaria(k):** Auzmendi Arratibel, Sabino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-014/004
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** 14-15 urte zituztela, Aldarreta baserrira joaten ziren. Hango mutiletako batek soinua jotzen zuen, eta Sabinok esaten zion zer kanta jo. Hala, pixkanaka, Sabino ere soinua jotzen ikasten aritu zen, baina ez omen zuen ganoraz ikasi, denborarik ez zuen eta. Gerora, soinua erosi zuen, soldadutzara joaterako.

Transkripzioa

-Ta gero pixka bat zea, gehixo igual pixkat hazitzen o hazi o..., hamalau, hamabost urte inguru hortan ta Aldarreta juten giñen gero, baserrie hor zan. Zeatik baserri... uain luizik botata dao, zuk baakizu, eta han zien bi mutil, bat zaharrena ez non nik ezautu ibiltzen, bestea pixkat bai eskola etortzen, baiño, gero geratu zan. Ba, hue aritzen zan, hasi zan, soiñu jotzen. Eta ni pixkat kalea, pestata ta juten hasi nitzenen beti soiñujolen ondon eoten nintzen, bertsolaria o soiñujole ondon, ta nik ematen nion piezan bat

o beste, ikasita. Memoria bastante zea nun. Baiño gero esan zin: “bai, ta hau nola ikasi behar diat nik?”. Klaro, pieza haik zien pianoko soiñukin jota, ta harrek trikitixa zeuken. Eta nola, nundik hasi? Klaro, gaur bezela izan [balin] nik beittuko nion holako botoitatik hasten da hau, bi-hirugarrena, laugarrena o... Baiño pianokonak zien ta beak inbentau behar zon ta bere modu batea aritzen zan /aitzentzan/ hue´re ta geo esaten zin: “hi, joko duk /jokouk/ soiñua!”, ta “nik ez det soiñuik jotzen; nik nola joko det...”, “bai, bai, hik joko huke!”. Eta hala hasi nintzen pixka bat, baiño ez nuen ikasi, ez nun... Haruntza ez nintzen juten, lana ein behar nun, fabrika jun behar nun, baserrin lana ein behar zan ta. Gero eon nintzan gaiñea jo bate jo bae. San Gregorion ibili nintzen bi urten, e! hor Arantzamendin erromeri eitten zan udan, mendi gaiñen eta...

-Non eiten zan?

-E?

- Arantzamendi?

- Arantzamendi zon, bai, Arantzamendiko zalaie esaten gendun. Ta han´e lehen ibiltzen zien soiñujoleak erretirau zian, batzuk ezkondata ta bestek e, kanpoa junda ta... [...] soiñue baneuken eta, eiña neuken nik soiñue, lehen esan dean baserri hortako zea, ezkondu zanen hango beste semea, Joxe Juakin, harren bodan izan zan soiñujolean soiñue eosi non gero.

-Eosi ein zendun?

- Bai, uda... Iruntzanberriko Joxe Manuelena; hiru illarakoa. Zortzirehun pezta pagauta garai hartan, e! Hoik urtek die, e! Soldauska juteako eta asike soldau, ia hogei urtekin jun nintzan eta... Baiño ez nun ikasi, ez nun ikasi ezerre, baiño, ba... Gaiñea behar du oidoa´re ona behar du eta aittu ein behar da gaiñea.

2.5. Soinua jotzearen onurak

- **Hizlaria(k)**: Auzmendi Arratibel, Sabino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-014/006
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:09:14. **Bukatu**: 00:10:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Ezkondu ostean, hamar urtean ez zuen jo soinurik. Gerora, bost urtez bai. Soinua jotzea ona omen da eskuentzat eta buruarentzat.

Transkripzioa

- Geo eon nintzen, e, hamabost, geo ezkondu ein nintzen Paxkiñanea, baakizu, zure lehengusuekin, eta han holako ambiente haundie ez zon soiñuako´re, eta hoi ambientea behar da gaiñea. Eta hamabost urten, hamar urten, ikuittu be euki non kajan sartuta eta han eon zan. Gero pixka bat hasi nitzen eta geo beste bost urten´e bai, eta gero ya honea etorri nintzen ta hemen ya ambientea, ba, andrek ez zon kasoik eitten baiño ni [nerea] neon, hemen jartzen nintzan ta kalea beida ta, benga ta, behin eo baiño gehio aitzen nitun hor saltatzen, e! Geo gañea esan zian, e, eskuntzat´e ona zala [... jartzeko] eta Donostin´e, alabana jun nintzen behin ta han apeaderoa lagundu zin Grosen ... ta han emakume batez saludau zon eta zin: “hau, atte, nee... Tolosakoa da eta nee lantokiko kutxan eitten do /eitteo/ lana ta gizon baten andrea da honek piano jotzen do” ta nik esan nion: “nik´e joko nuke, baneki!”. Ta “zuk soiñua jotzen dezu

/jotzezu/ ba" alabak esan zin-ta, "soiñua jotzen al dezu?" esan zin ta, "aitzen naiz, hotsa ateratzen, baiño, ez dakit ezer... eskuntzako ta ona da..." "Bai, eskuntzat ona da, baiño honentzat da ona, e! Honentzat! Zu segi ahal dezun arten, zeatik horrek muittuarazi itten do hoi dana ta." Hola die kontu hoik...

2.6. Inguruko soinu-jotzaileak

- **Hizlaria(k):** Auzmendi Arratibel, Sabino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-014/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Lehen soinu-jotzaile gutxi ziren inguruan. Haietako batzuen izenak aipatzen ditu. Lehengo garaietako gorabeherak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ze esan behar nizun? Garai haitan, esan dezu soiñujole gutxi zala.
- Bai.
- Hemen ingurun zeintzuk ibiltzen zian, hola...?
- Ordun ibiltzen zien, bat zan Gaintzako Felix. Eerki jotzen zon, hemen, honeako e, organistea, ta [...] igeltseroa. Gero, Etxarriko itsue, Joxe, ona zan hue're! Hue Bitorrenen asko! Hoik zien. Nik hemen trikitilarik... Aldakioko Joxe Ramon aitzen zan pixkat Aldarretan ta... Harrek poliki jotzen zon, baiño trikitixa ez zan... Onik ez non nik ikusi Tapia, Eleuterio Tapia. Nee kintoa zan gaiñea, ta geo Burladan eon giñen "periodo de instrucción" hiru hillabete. Joxe Oriá're bai. Eta ni Joxe Oriakin... Pedro, gue illoba, Olaberrin, ta esan zin: "Osaba!" ta "Zer dezu?" ta "trikitilaria billau behar diazu!" ta "Jo, nik ez dauket hola iñokin holako zeaik! Oriakin dauket, harren telefonoa ta bauzket baiño..." Lagune non ta, hemen e aitzen nitzan ni harrekin, Bitorrenea etorrita, [zaharreneñe] ekarri non neoni egon nitzenen [zaharreneñe] sekretario ta, harrekin jotzen neoni ta. Hots ein nion ta bai, etorriko zala Olaberria. Ta, bueno. [...] etortzen zat hortxe, lau t'erdi, bostak alde hortan, begitatik malkoa zeriola. "Zer dek Joxe?", esan nion ta "Nei soiñu jotzen eakutsi zin Ormazabal, Zumarragakoa, hil dala ointxe telefonoa hots ein ziek. Hik jo zak pixkat, nik erten in behar diat". Han beste saio bat ein non. Eta bueno, zea, Bastida zan hango nausie, uain, gero zeon gaztea, ta harrek: "zu soiñujolea al zea?" ta "Ni ez naiz soiñujolea; ni naiz lardaskeroa!" esan nion. Ta "horrek baiño hobeto atzek eta bajuk-eta manejatzen dittuzu /manejatzeittuzu/", "Bai! ni ez bajuk eta ez altuk, batez!" Hola ibilli naiz ni leku guztin ta gaiñea danen ibilli naiz... "hik hau egingo dek", "harrek hoi eingo dik" "Ein dezala harek", "esan Sabinoi"... Aiba la ospera... Nee bizi guztia hola jun da. Danen!
- Ba zeeze joko zendun, jendiak esaten zuneako...
- Besteik ez danen, "contigo Tomas", baakizu zer dan, "cuando no hay más, contigo Tomás" lehenao esaten zuen ta. Hoi izaten zan; gaiñea hemen ez zan ordun aukeraik, e!. Gero, zea ere bai, Tarragona ere bai, Ta Pepe Andoain ta horik zien hemen soiñujolek.
- Ta Lizartzako itsua ta...
- Lizartzako itsue gerogo hasi zan hori, gerogo.

- Gerogo?

- Bai. Ni soldauskan ezautu non Lesakako zea´re, Sanjurjo. Bai, bai, hamaika aldiz izaten nintzan ni, Bera-Bidasoan soldauska sei hillabete ta gehio ein nittun, ta ni juten nintzen, suminstroko kargue nik neuken. Eta Lesakan zeon panaderie Rekondo, Segurakoa zegon han ezkondata, panadero. Orduako labe jiratorioa zeon ta militarrek han eitten zuen. Harrek beak eitten zon aurrena ta geo militarrek. Ni juten nitzen suministron billa ta ogik-eta ein arte, ba, eon ein behar. Ta han ibiltzen nintzen ni, denboa pasa ta harren taberna jun, taberna txiki bat zeuken, eta... jotzen zon harrek´e! Geo han, anai gazteago bat bazeuken ta gero ikusi non harren fotografia, bea soiñukin ta, zeon, Larrinagara jun nintzenen soiñu-arreglo batea. Ta horik ezautu nittun nik, bai.

2.7. Doinuak buruz ikasi eta txistuz jo

- **Hizlaria(k):** Auzmendi Arratibel, Sabino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-014/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Lehen, soinu txikia jotzea ez zen arrunta. Doinuak buruz ikasi eta txistuz jotzen zituen.

Transkripzioa

- Ta garai hartan soiñu txikiya ere modernua bezela zan, ezta?

- Bai, baiño hemen jotzen gutxik zekien, e, gutxik. Hemen bakarren batzuk bazeren zeuzkenak, baiño, een kasa ikasitakok! Ez baitzan inor eakusteko hemen ordun. Nik, Urtxuana juten niñun, menditi, e! Etxegaratea´re bai! Ta nik handik pieza Aldarretako horri ekarri nion, eta artzaien pieza zala esan zin batek han. "Ze pieza earra!" esan nion ta, "Artzaien pieza dek hori", eta pianoko...

- Eta nun ekartzen zendun?

- Nik memorin ekartzen nun. Txistue jotzen nion gero, ahoko txistue. Ta hoi, handi ekarri niona zan... Hoi zan. Eta esan zon: "Baiño hau nundik hasi...?" esaten zin horrek, eta "ba nik ez dakit ba nundik", pianokokin jotzen zuen ta! Zelaia´re ezautu det nik, Altsasuko Zelaia, Enrike Zelaia´re. Hoi ona zan, e!

3. Herria, azpiegitura

3.1. San Martin auzoa inportanteena

- **Hizlaria(k):** Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ATA-006/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Ataungo auzoek bakoitzak bere eskolak eta elizak zituen. Gerora San Martinen jarri zuten denentzat eskola. San Martin da auzo garrantzitsuena bertan daudelako udaletxea eta bestelako zerbitzuak.

Transkripzioa

- Eta bestela zuek auzo bakoitza, barrio bakoitza, San Martin ta San Gregorio-ta, hiru barriook, bakoitza bee eliza eta kanposantu ee bai?
- Bai,baita. Bai, bai, kanposantu...
- Eskola ta...
- Eskolak-eta, bakoitza bere barrioon. Oain, gero, jarri zien hor, eskola, San Martinen, danantzako. Danantzako... hemen ikestola, hemen, jarri zien. Baina ia [...´re hon], dana ez zeon, beera, San Martinen.
- Baina leeno, bakoitza...
- Leeno bakoitza bee aldeti. Bakoitza bee elizea, eskolak-eta. Aiuntamentue bat.
- Han
- Han, San Martinen.
- Ordun, barrio inportanteena zein [...da]?
- Caja de ahorros ere han.
- San Martin ordun...
- San Martinen jefe.
- Diru kontuak-eta San Martinen?
- Dena San Martinen. San Martin nausie, kapitala.

3.2. Errepide eta zubi estuak Ataunen

- **Hizlaria(k):** Urbistondo Urdangarin, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-020/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:07:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura
- **Laburpena:** Errepidea oso estua zen orduan, eta zubia ere bai. Ikaragarri aldatu da Ataun. Beren baserrira ordubeteko bidea baino gehiago zegoen. Elizara bi aldiz jaisten ziren igandetan, mezara eta bezperetara. Festatik berandu itzultzen zirenean, afaldu gabe lotara.

Transkripzioa

- Ta karretera ´re lehen oain [aiñakoa] al zan o?
- Rufina: Karretara? Bai, ia ia. [Ezer ´e]... gurdiintzako bidia. Juxtu-juxtu gurdie pasatzen zan hortxe. Ze eukiko zittun, hiru metro? Holakon bat eongo zien hor. Zabalagoa...?
- M.R.: Bai, beti zabaltzen jun da; nik hain estue ez det ezautu baiño. Zabal...
- R.: Bai, beharko! Hiru metro hola [emango hon]. Bai, pusketea, pusketea eransten, eransten... hola, hola ein da. Ta zubie ere badakizu hor nolakoa zan: parregarrie.
- M.R.: Estu-estue.
- R.: Holakoxe zubi txiki bat zan.
- M.R.: Bizikletea ´re maniobrakin [sartu behar].
- Bai, e?
- Harrigarri horittakoa! Ez dau sinisteik, e. Gue denboran ze diferentzie ein

don San Gregoriok´e.

- M.R.: Danak bezela baiño ez, [haundie] danak.

- Bai.

- M.R.: Ataunek eta danak ein do zea haundie.

- Eta karretera hemendik San Martiñeakua halakua baldin bazan, oain baiño urrutigo´re geldituko zan San Martin. Oain seittun sartzen gea, baiño...

- R.: Bai, egie, urruti, bai. Urruti gue etxeti zan, Iturrioztio. Urruti handi etortzen [huan]. Ordubete, korrika junda ordu ta erdi [behar] ziñuzten. Juten behintzet gora. Behera errezago etortzen giñen. Baiño gora? Ez zeon ezer´e ta! Dana... bide penagarri bat.

- M.R.: Basobidea.

- R.: Urrutxua juten giñen bezela. Urrutxua´re juten giñen makiña bat aldiz, [Lauztierrekatio] Urrutxua. Ta gue etxeti´re bai, handio goittio, zelaie.

- Ta ordun igandetan-ta mezata jun behar zanen...

- R.: Iganden bi aldiz, gaiñea! [Bata] bestela kondenauta. Kondenauta etxen majiña bat aldiz honuzkeo. Beti kondenauta gu... Goizen mezata, goizeko zazpietako. Bostetako mezata etortzen giñen gu urrin, bai...

- M.R.: Ehiztarin garaien.

- R.: Lastoa, lasta-argie piztu ta haren argitan, horti goitti behera, goitti behera, honea San Gregorioa. Ta gero, atzea berriz arratsalden bezpera-ta zenden [etorri beharren], erremedio be, e, obligatorio zan, latza. Ta gero, beiz, bezpera-ta zala ta hori egun guzie pasa zan hemen buelta ta jira. Ta kitto. Iñun festaik bazeon, juten giñen ta gero etortzen giñen e, auskalo ze garaittan, ta gero afaririk batez! Errosarioa zeonan han. Tia apraketa zaharra su baztarretik aurea ta ospa dios, beti gora ohira alde eitten gendun guk eta... Aurreko egunen jandako bazkarikin hurrugo eunen. Ordun bai eitten gendun regimena! Oain ez! Hue zan regimena eittea, benetan.

4. Natura

4.1. Ehizarako zaletasuna; basurdeak inguruetan

- **Hizlaria(k)**: Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ATA-006/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:15:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
 - Natura » Meteorologia
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: 16-17 urterekin hasi zen ehizan aitaren eskopeta hartuta. Usoan egiten du, baina basurdetan ere egiten zuen hasieran. Basurdeak badira inguruetan eta etxe ondoraino ere etortzen dira gaur egun.

Transkripzioa

-Eta ehiza kontu ta holakotan noiz hasi zinan?

- Ehiza kontutan gaztetan.

-Gazte gaztetatik?

- Bai. Hamasei-hamazpi urtekin.

-Aitakin edo?

- Aitan eskupetea hartu ta... Hue kanpon ikusten noonen hartu ta fuera usotaa!
 - Mendira....
 -Usotaa?
 -Usotaa. Basurdetan ere bai haseran.
 -Hemen asko izango dia.
 -Basurdea urte baten asko [izan huan]. Ta oain'e izaten dituk, e. Oain´e bastante.
 - Hemen Lizarrusti inguruan?
 - Bai, Lizarrusti... Hemen bertako mendiotan ta. Ia atariaño etortzen dituk oain basurdek, bai.
 - A bai?
 - Hemen beheko intxaurretan ta igual.
 - Beldurra galduta?
 -Ba! Ohittuta jendeakin ya.

4.2. Umetan, txori-habia bila

- **Hizlaria(k)**: Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ATA-006/010
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
 Natura » Fauna » Hegaztiak
 Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Umetan, txori-habia bila ibiltzen zen. Klase askotako txoriak izaten ziren inguruetan: txepetxak, okilak... Txepetxen habiak bilatzen zituen gehienetan berak. Batzuetan, arrautzak jan ere egiten zituzten. Txepetxaren arrautzak txiki-txikiak izaten dira, baina jateko goxoak. Beste txori-klase batzuk.

Transkripzioa

-Eta umetan-eta ez zinan ibiltzen txori habik-eta?
 - Txori-hapik bilatzen bai.
 - Hori txiki-txikitatik.
 -Txiki-txikitatik hori txori-hapi bila. Hortan bai.
 -Bai?
 -Bai.
 - Ta hamen asko izango zan ordun, ez?
 -Bueno, asko. Klase´ateko ta besteko, txepetxa-ta, geo... zuloa ta itten zien ba, okilek eta, burubeltxak eta, holako danak.
 -Eta...
 - Ta beste bela-ta, zapelaitz-ta. Hoik danak'e bai.
 -Eta zuk zer bilatzen zenun gehienbat. Habiak-eta zerenak?
 - Ba, gehienak txepetxanak.
 -Txepetxanak gehien?
 -Bai.
 -Eta gero, e...?
 -Gue etxeko atarin, aten igual eitten zien eta.
 - Eta gero arrautzak edo kumak hartu, edo bertan utzi edo zer...?

-Batzutan arrautzak igual jan.
 -Jan?
 -Umeek bai, hau ona izate'ek eta benga, jan. Ta hola.
 -Txepetxanak´e bai.
 -Txepetxanak´e bai.
 -Txiki-txikiak izango dia, ez?
 -Ta atzea berriz igual eiten zoan. Beste hainbeste...
 -A, bai? Beste kumaldi bat?
 -Bai.
 -Ta txiki-txikiak izango dia txepetxan arrautzak.
 -Txiki-txikik, erabat txikik. Hola, ur-alen modukok. Ur-ale koskorran modukok.
 -Eta jateko goxo?
 -Jateko oso onak.
 -Bai, e?
 -Zaharrak ez bazien, zaharrak izan ezkeo umeek figurauta eoten dittuk eta harek ez zeok jateik.
 -Klaro.
 -Haek piztik eta hola jaten zituek.
 - Eta hori txepetxanak, eta beste batzuenak ere bai? Zozok eta birigarrok eta...
 -Bai. Eskuxok eta.
 -Eskusok?
 - Eskuxok. Zuek zer esaten dezue, eskinisua?
 - Bai, eskilarasua.
 -Eskilarasua?
 -Eskilarasua, bai, e?
 -Zuek eskuxok?

5. Euskara

5.1. Ataundik hurbileneko hizkerak Lazkaokoa eta Zaldibiakoa

- **Hizlaria(k)**: Munduate Zurutuza, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ATA-006/013
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:24:55. **Bukatu**: 00:26:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
 Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Beasaindik Ataunera txori-izenak aldatu egiten direla dio. Esate baterako: buztanikarari beraiek ur-txoria deitzen diote. Orokorrean ere Lazkaoko euskaratik Ataunekora badela aldea dio. Hurbileneko euskarak Lazkaokoa eta Zaldibiakoa iruditzen zaizkio; Idiazabalgoa desberdinagoa eta Segura edo Zegamakoa are desberdinagoak.

Transkripzioa

-Esan dezu txori izenetan-eta badala... aldatu egiten dala.
 -Diferentzie, bai.
 - Beasaindik honea ta...
 -Asko.

-Bai, e?
 - Bai.
 -Eta beste herri batzugin´e bai? Zaldibi ta Segura ta...
 -Danakin, batzuk postura igualtsun, baiño beste´atzuk oso diferente igual.
 -Buztanikara esan dezu...
 -Buztanikara batzuk.
 -Ur-txorie.
 -Guk ur-txorie.
 -Eta zuk beste herri batzutan-ta ikusi dezu diferente dala?
 -Bai. Beste izen klase dezente zerek.
 - Eta bestela, euskara kontuak´e bai diferente dia...
 -Baita.
 - Lazkaotik honea Atauna ta?
 -Bai, diferentzi pixkat bai hortan'e.
 -Eta berdintsuena zein da, Ataungo euskara-ta. Zaldibikoa edo Lazkaokoa edo?
 -Zaldibikoa igual gehio, bueno, Lazkaokoa ere bai.
 -Berdintsu. Eta Idiazabalgoa?
 -Idiazabalgoa diferentegoa.
 -Bai?
 -Bai.
 - Segurukoa ere bai?
 -Bai. Segurukoa diferentzia haundie.
 -Bai?
 -Bai.
 -Segura, Zegama...
 -Bai.

5.2. Eskolan, elebiduntasunaren aldeko batzuk

- **Hizlaria(k)**: Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-018/003
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:02:09. **Bukatu**: 00:04:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolara joaten hasi zenekoa gogoan du: han mikeleteak egoten ziren, gerran alde egin behar izan zuten arte. Eskolan, lehenengo erdaraz eta geroago erdaraz azaltzen zuten. Han ikasi zuen Felixek bere burua defendatzeko adina. Maisu batek zigortu egiten zituen euskaraz hitz egiteagatik.

Transkripzioa

- Negin geo maisu hoi etorri zan ta eskola horrea bialdu nittuen.
 -Zer zan hoi? Herri eskola zan o?
 -Ez. Hor egoten zien mikeletek. Eta mikeletek, klaro, geo esango dizut, gerrako garaian, "el año treinta y seis"-en aldein in zuen, alde ein beharko, bestela hil eingo zittuen, fusilau eingo zittuen. Eta horti aldein in zuen. Hoi zan herriko etxea. Eta, klaro, hor zeon etxe hoi. Ta gero maisue etorri zan ta harri eman zien, eskolea, lekue bizi izeteko ta eskolea. Ta horrea jutun giñen.
 -Zer zan, kanpotarra maisua?

-Maisue ez, Ergoienakoa, Ataungoa. E!, aurrena erderaz esplikatzen ziun, horrek bentaja zon. Erderaz esplikatzen ziun, ta gero euskeraz, ta gero esaten ziun: "entenittu ahal dezua Ergoneko hizkuntzea?" Aizu, ta nik gogo haundie non eskola ikasteko ta nik entenitzen banon esango nion "bai" edo bestela "ez", ta berriz ba... Ta nei horreati burun gauza asko sartzen zatean, ba, bestek askok ikasi ez duenak. Nik hor ikasi non neonen, nee burue defenditzeko aiñe.

-Ta ze entenintzen zenduen, erderaz esandakon edo euskeraz esandakon?

-Ba! Erderaz e... Erdera... [beez] lehen aurren-aurrena hamar urte konplittu bittarten beheran ibilli giñen San Martiñen. Juten giñen eskola eta han, ba, erdaldune zan, alabesa zan baiño erdaldune zan. Ta harrek, ba, kastigau eitten giñuzten euskeraz hitz eitten harrapatzen bagendun. Nik bi aldiz eo ekarri non "castigado por hablar el vasco", ehun aldiz eskribittu ta hue hurrungo goizeako eaman. E? "Castigado por hablar el vasco" ta belarrakziñakoa ´re bai ematen ziun tartetetan.

6. Familia eta harremanak

6.1. Umetako jolas originalak

- **Hizlaria(k)**: Auzmendi Arratibel, Sabino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-014/003
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:04:04. **Bukatu**: 00:05:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Baserrian, pilotan jolasten aritzen ziren. Euria egiten zuenean, bideko zuloetan sortzen ziren ur-korronteetan, zotz meheak jarri, eta lasterketak egiten zituzten, zein zotz lehenengo iritsiko. Plottean jolasten aritzen ziren. "Tres en raya". Txori-habia bila joaten ziren udaberrian.

Transkripzioa

- Eta esaten dezunian baserri inguruan ibiltzen ziñatela jolasian?

- Bai.

- Ze, oain bezela jostaillukin ta futbolian ta hola?

- Ez, pelotan. Etxe paret..., etxe zean, estalpea ba zan han, goitik ohola ta behetik hesie pertikakin´e, ta han ibiltzen giñen, zure aitte zana ta, "galtzaile fuera", han jokutzen gendun eta... lurre sekoka zeonen, harri koskorren sake eitten bazun juten zan pelota, ta hoi izan zan gue zea, ta geo, ebia itten zunen, bide, baserriko biden baakizu, gurdik, nola arrastua uzten dun, ta ude han juten zan ta gu karreristak, txotxak holakok ein, izena jarri ta haik bialdu ta zein aurrena aillegatzen zan meta.

- Nola eiten zenduen hoi? Nola, nola?

- Holako txotx mehek ebaki, ttikik, eta han, korriente hartan jarri, danak batea, korredorek bezela eta zein ailleatzen zan aurrena beheko muga, harrek irabazi ta... Ta geo beste... geo, zea izaten gendun beste jolasa, izaten gendun, "plottea" esaten zitzaion, intxaurrekin, o harrikin ´e eitten da. Txokoa jarri, han jarri batzuk ta bestekin ateatzen haak, handik. "Tres en raya" ere bai, esaten deu ba, uain, "tres en raya", hoi eitten gendun guk. Intxaurrak jarri han illaran eta jarri zortzi pauso o hola ta bota ta zenbat ataatzan zittun, beretzako. Ta han bi txokote o hola irabazi ezkeo, txokotea lau intxaurrei esaten giñun. Lau intxaurre zienen, txokotea. Bi

irabazi ezkeo, jo, jornal haundia zan ordun. [...] gue jolasak, [ta geo] txori-hapi bila, udaberrin. Galtza majo hausi, izterrak-eta majo urrau, arbolatan gora iyota ta sasiitan-ta. Hoik zien...

6.2. Anaiaren ezkontzako soinu-jotzaile

- **Hizlaria(k):** Auzmendi Arratibel, Sabino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-014/008
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Anaia ezkondu zenean, Isidro Larrañaga zen soinua jotzera joatekoa; baina gaixotu egin zen, eta Sabinok jo zituen pieza batzuk ordun.

Transkripzioa

- Anaie Lazkaokoa ezkondu zanen, soiñu-jolea zuen zeauta, koiñatok einda, han barriokoa zuen, Isidro Larrañaga. Larrañaga badau Tolosan, zea haundie dauke horrek, orkesta haundie soiñujoleena. Ta hoi laune zuen baserrikok, illara beste [...]. Eta hoi hartu zuen ekartzeko bodako, han, Tolosan gendun, [...] esaten zaion lekun, calle Rondilla o calle Mayor, Tolosakoa, eta bodea, bazkarie ta ez zeukela juteik, gaixotu in zala. "Jo! Uain soiñujoleik ...", ez zeon oaingo aukeraik ordun, bakar batzuk bazeren baiño, jolin! Eta hango koiñata o koiñado ein behar zona nere kintoa zan, Buenabista baserrikokoa ta harek esan omen zon: "Sabinok joko dik, moteil, guk ein behar deguna itteko!" ta Aldarretako horrek esan zin, geo Inaxio zeon horrek eta esan zin, soiñu berria zeuken ordun, Larriñagak zeak, Martzelino horrek, Donostin einda, hamar milla real, bi rejistrokin ta, trikitixa ta. "Hi, hau eaman zak" aitzen nintzen harrekin pixkat eta, "hau eaman zak,[...], berrie dakau gaiña ta..." Han ai naiz [...] Auskalo ze joko nun, eta bazan hemen soiñujolea, Maria Luisa Irastortza, ta Tolosan bizi zan. Ta zea, [...] semekin eo ezkondu. Ta etxe hortan bizi, tabernea zeon etxe hortan goien, eta ikusten det ate txirristutik, ni ai nitzela, burue hola jarrita. Nire arten esan... Esango zun harek: "Ze ai ote da hori? Ze ai ote da?" Ezer ez nekin ta! Portugesiña ta, holako batzuk, nola eo hala, ta yasta, kito.

- Zeintzuk zien piezak?

- Portugesiña ta. Holako batzuk.

6.3. Jose Migel Barandiaranekin ermandadea kudeatzen

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/024
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:39:57. **Bukatu:** 00:42:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- **Laburpena:** Frankismoan, baserritarrei erretiroa jasotzeko eskubidea jarri zen. Jose Migel Barandiaranen eta beste hainbat lagunen artean, ermandade bat sortu zuten, asegururik ez zeukaten baserrientzat. Gerora, Felix aritu zitzaion Jose Migel Barandiarani laguntzen. Orduko kudeaketei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

Don Joxe Migel Barandiaranekin... Ba, urdun, arten gaztea nintzen. Ta, ba, frankismok aurrena jarri zon ba, baserritarrai jubilazioa. Zeatio ez zeuken baserritak ezer. Bakar-bakarrrik fabrikantek-eta bagenduken seguroa, baiño beste gaiñetikok iñok ez. Ta aurrena jarri zien jubilazioa. Ba, ez dakit, hirureta bost urtetati gorakoi seittun jarri zien eta gero bestek, ba, hoinbeste urten pagau in behar, hilleko horrenbeste, gero eskubidea izateko. Hala. Ta Don Joxe Miel horrek eta besta batzuk hemen, ni baiño zaharragok, ba, zeatu zuen, antolatu zuen eo formau zuen, ba, ermandade bat. Ba, seguroik ez zeukenai launtzeko. Ba, eo, errezetak, botikak ziela o klinikako enstantzik ziela... ta horik. Ta lautatik hiru pagatzen gendun danan arten , hor ermandade hortan zeren danan arten; eta bat, beak, norbeak. Eta aurrena jarri zan besta bat Don Joxe Mielei laguntzen. Eta harrek ein zien faltxoriren bat, eta geo, Don Joxe Mielek nei hots ein zin: "Etorri hai honea". Ta "Zeer dezu?" ni asko jutun nintzen orduako ta, "Ba, honoko ermande hau bion arten eaman behar diau", "Baina, Don Joxe Miel, nik nola lagunduko dizut ba, nik nola lagunduko dizut ba, eskolaik ez dauket eta!" , "Bai, bai, hik eta nik eamango diau hau". Hartan, ba, bion arten aurrena eitten gendun, ba, zea, barrio bakutzen juntako bat zan ta eitten gendun errezetak izan zeizela beti medikuk eindakoa, herriko medikuk, "médico de cabecera" k eindakok. Eta klinikaa jun beharra izaten bazon ´e horrek justifika dezala. Ta hartan, ba, gero, ba, rezibok, hango gastunak, pasatu herriko zeorri. Ta herriko horrek nei pasatzen zin eta nik Don Joxe Miengana jun ta nik esan ta harrek apuntau. Geo harrek deskuentoa eitten zien [...] norbeai zenbat ein behar zien ta hartan. Ta gero ataatzen gendun, ba: "Beno, hemen gaixo... zea, pertsona bakutzek hoinbeste pagau behar do". Ta nik geo etxen, ba, rezibok eitten nittun famili bakutzenak, ta gero hemen barrion zeon horrek kobratzen zon ta berriz ´e Don Joxe Mielen etxera jun, nei ematen zien diruk, nik Don Joxe Mieli... Ez! Harrek eitten zon: nik pagau behar nienai, zea, reziboa, ba, "Fulanok horrenbeste pagau behar do". Ta hala, geo jai atsalden hartu bizikletea ta eitten nittun lan horik, dirue jendei partittu ta horik.

6.4. Diru-laguntzak lehenago iritsi izan balira...

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:42:57. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Ermandadeko kide zen emakume batek egindako komentarioaren anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Behin, anekdota bat dauket oso politte, parre eingo dezue. Ba, emakume batek, esanda igual da, Aldakioko Justa ezautu zendun?

-Ez.

-Ez? Joxen ta horin ama?

- A, bai.

- Bai. Ba harren etxea jun naiz. Ta harrek alaba zon Ordizin, ezkondata zeuken, Villafrancan. Eta hure zeon seguru hartan ta harrek izan zon familie. Ta familiko gastuk o klinikako gastuk presentauta zeuzken ta urdun ni´re pagatzea. Ta, klaro, ni jun nintzan jai atsalden beti bezela. Ta, ba... hala, han, gu lehengusu txikik gea Aldakiokokin, eta ogie ta gaztaia jaten ari giñela etorri zan emakume hoi eta jan gendunen hots einda dirue eman nion eta amak esan zin, Justak: "Ene, Felix, nei ume eindakon hoinbeste, hola, dirue eman balie, hamahirun lekun hogetasei izango netoan". Egie da hoi, e! Hoi holaxe, hitz horikintxe. Danok parrez jarri giñuzten.

- Gauza haundie zalako...

- Bai, harrek famili haundie izan zon, ez dait, hamahiru o... Berak, hamahiru o [hoitakoren bat...] burun ta "... hogeita sei izango netoan hola dirue eman balie bakutzeko" zeatu zanen. Ta, aizu, hola zien historik.

6.5. Lehendik zeuden ermandadeak

- **Hizlaria(k)**: Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-018/026
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:44:21. **Bukatu**: 00:45:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Pixkanaka, frankismoan, nekazarietzako gizarte-segurantza jarri zuten. Hori baino lehenagoko ermandadeak mediku eta botikak lortzeko izaten ziren. Baziren, horrez gain, beste ermandade batzuk.

Transkripzioa

- Ta gero, ba, poliki-poliki frankismoa jun zan, ba, seguro hoi e... etorri zan. "Seguridad social agraria" etorri zan. Ta urdun beste hoi desegindu zan ta "y se acabó".

- Ta lehengo ermandade hoiek zer zian, medikutako izaten zian bakarrik?

- Ez medikuntzako eta botikak. Farmakok, botikak.

- Ta geo etxea erretzea eta hola...

- Hoi aparte, et-et-et. Hoi aparte, etxe-errena aparte.

- Ordun zeon: etxe-errena bat.

- Bat, bai.

- ... medikuna ta botikana bestia...

- Bai.

- ... ta ganaduana beste bat bitarten?

- Bai! Ganaduna beste bat. Hoi geok ibiltzen gendun. Hoi Don Joxe Mielen, hoi... ez. Hoi geok ibiltzen gendun.

- Ordun famili bakoitzak igual hiru ermandade zeuzken [...]?

- Bai, bai, bai.

6.6. Ermandadearen babeseko suteak

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/027
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:45:09. **Bukatu:** 00:46:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Etxe errean ermandadearen funtzionamenduaz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Eta nola funtzionatzen zuen bakoitzak? Etxe-errianak adibidez nola funtzionatzen zun?

- Etxe-errena, funtzionatzen zon, por ejemplo, horrenbeste diru etxea erretakon. Baiño ez zon beste seguro bat euki behar, zeatio segurok baldin bazeuzken bi o hiru, ba, peligroa zeon etxei jo ta sue eman ta berrie eittetkoa. Nei behin osoba batek esan zin, hoi´re kontauko dizuet... Eta, hartan ,ba, hoi reglamentu hoi jarri zuen. Ta, klaro, gauzak, ba poliki-poliki... aurrena ez dakit zenbat zan topea, etxe bat erretakoon zenbat diru zan, ez naiz akordatzen. Eta, klaro, poliki-poliki gauzak igotzen jun zien, aspaldin urduti hasita eta esan gendun: “Bueno, bueno, hau ya dek imposible —bittarten etxeik ez zan erre tarte hortan, ta— hau dek ya imposible”. Ta hue´re desegindu zan “y se acabó” ta aizu, seguroa billau behar.

6.7. Etxeari su emateko aholkua

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/028
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:46:12. **Bukatu:** 00:48:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Felixen osaba bat Bilbon bizi zen, Ataungo lehenengo zaldizaina izandakoa. Behin Felix Bilbora joan zen, eta osabarekin elkartu zen kafea hartzeko. Han osabak aholku bat eman zion: baserriari su eman eta aseguruaren kontura berria egiteko.

Transkripzioa

Eta gero beste osoba horrena. Guk osoba genduken Bilbon, zeatan, Colegio Santiago Apóstol. Ta hue emen zan, hemengo zea, gure aittajaune ez, aittona zanen anaie ta Ataungo aurreneko kotxeroa. Ez zan autobusik ta zaldie karrookin, Ordizia, Lazkaoa, Beasaiña ta horitaa ibiltzeko. Ta hue emen zan. Hue Errotazarren morroi. Hala, gero gerrako garaien, ba, Santiago Apóstol hortati fraile guztiik danak alde ein due ta etxeen zaintzen geldittu da hue. Ta, ba, hue han ta gero etorri danen, bertako bezela hartu zuen. Ta nik, ba, anaie urduako neuken Billaron, zea, anai gaztena, oin Sevillan dauna. Ta hue bisitaez jun naiz, ba, Vuelta España bukatzen zan Bilbaon. Ta ez naiz akordatzen urduako ezkondata neon o ez neon, hoixe ez dauket gogon. Ta behin... dana dala, behintzat. Hala,

Billaron lo ein ta jun naiz Bilbaoa. Billau det osoba hoi, Santiago Apóstol kolegio hoi, ta esan nion: “Osoba, etorri zaiz bazkaittea, biok bazkalduko deu ta”, “Ez illoba, nik bazkaldu ta kafea hartzea etorriko naiz”, bale ba. Ta nik, ba, han bazkaldu non, oaindi gogon dauket, Loroñon barren bazkaldu non, San Mamesen ondon, kolegioa´re ingurun zeon ta hala. Ta etorri zait kafea hartzea. Ta urdun zeon, ba, Espilla ie eroien zeon, zeuken tripea hauzko paitek, honuzkok´e bai eta horrea hortik sukaldetik gora dana egurre zan, gaiñe danak egurra zien, lehenauko etxe zaharra. Urdun obran hasteko asmoon genden ta esan diot osoba horri: “Osaba, hola ta hola obran hasteko asmoa”. “Zer, illoba? Espillan obrea ein? Espillan ez zazu diruik gastau”, esan zin holaxe. “Ta ze ein behar diau ba, erortzen utzi?” “Ez, ez, bi-hiru segurotan sartu zazu eta emaiozu su” kontestau zin holaxe osoba horrek. “Ta kontzientzie?”, “Kontzientzie, gizon, astook jan zon!” kontestau zin. Egik die horik, e! Hoi neonek esandakok. Ta geo etxea etorritakon kontau nien ta: “Bai, bai, oain´e lehengo lekuti zeukek harek burue”. Lehengo lepo gañetik. Ta, aizu, hola, historie hola zan.

6.8. San Gregorio kalera bizitzera

- **Hizlaria(k)**: Urbistondo Urdangarin, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-020/003
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:05:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Rufina ezkondu zenean etorri zen San Gregorioko kalera bizitzera. Hiru aldiz aldatu da etxez.

Transkripzioa

- Ataun, ordia, bastante kanbiatu da, ezta? Oain ikusten dian etxe dotorek eta...

- Rufina: Bai, oain ez dao berriketaik.

- Zu txikia ziñenen, Rufina, hau nolakoa zan o? Zertan kanbiatu zan o?

- R.: Ezer ez hemen. [Horko hortantxe] zan, zea bat, bordea, Malixiñekoa, hemen. Hoik, etxe [horik daun toki baten]... Ta hor egoten giñen gu ume zai, ebie hasten zonen. Hor dauket lagune. Hoi ta biok, geen umeekin, hor sartu ta hor pasatzen gendun atsaldea, ebie ai zoonen ta. Ahal gendun bezela! Ezer´e ez zan hemen, ezer´e. Hoi, etxe hoi, hoi zeon. Ni San Gregorioa etorri nintzen, e.

- Maria Rosario: Bai, ta gero hor txaleta daon hortan zan nere baserrie.

- R.: Ni San Gregorioa etorri nintzen hogeta bi urte neuzkela.

- A bai?

- R.: Ezkondu nintzen. Eta hor jarri giñen. Hauzko... oain [...] dao [...] hue´re. Ta gero...

- Iturriotz?

- M.R.: Ez, Ugaldetxiki.

- R.: Ez! Bai, Iturriotz,, [...] Etxetxiki! Ze Ugaldetxiki? Ixildu hai! Ugaldetxiki... Etxetxiki din harek izena.

- M.R.: Bai, bai, bale.

- R.: Ugaldetxiki ez.

- M.R.: Egie da.

- R.: Etxetxikin. Ta geo handio, han urtebete pasau non, ta gero jun giñen

Elizondoa. Elizondo do izena beste... oain alde egin dean horrek, saldu ta alde ein dean horrek. Ta oain hemen sartu naiz. Hau det hirugarrena. "No hay dos sin tres"? Hauxe hirugarrena.

6.9. Eguneroko zereginak

- **Hizlaria(k):** Korta, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** ATA-041/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Egunero goizeko seietan esnatu eta eguna hastearekin batera egiten zituen zereginen berri ematen digu pasarte honetan.

Transkripzioa

Ni jeikitzen naiz goizeko seietan oia uzteko naiko perezeakin, gero joaten naiz elizara ateak uzteko irikitzea, lan para piztea eta itxoiten det abadeak etorri bitartean eta gero txintxiñe jo eta ateratzen ditut erropak meza emateko; gero preparatzen ditut binajerak meza emateko, gero meza laguntzen det eta komunioa ematen laguntzen diet. Gero berriz ere joaten gerade bakoitza bere etxeetara semeari zerbait eskolan erakustea, gero meriendatzen eta meriendatu ondoren paseo batzuek egitera mendietara, perritxikuak bilduaz eta gero saltoka eta brinkoka etxea pozik, aak prantatu eta afaltzea nere familiaren konpañian: gero andik laister elizara, errosarioko preparatzea eta errosarioa errezatu ondorenean kanpantorrea, Abe Mariatako kanpana jotzea eta gero, eliza itxi ondorean erretiratzen gera gure etxe aurreko, an kontuak alkarrekin kontatzea; andik erretiratzen gerade geren etxeetara, errosario santua errezatzea geron familiaren konpañian, [gero erretiratzen gerade bakoitza beren abitazioetara an pake santuan deskantsatzeko urrengo eguna zabaldu bitartean eta gero eguna zabaltzen duanean goizeko matutie jotzea; au da bada gure bizitzeko modua daukaguna, emen, Ataungo errian].

7. Lanbideak

7.1. Txikitatik umezain etxean

- **Hizlaria(k):** Mujika Zurutuza, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-015/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Etxeko lanak eta umezain egin behar izaten zuen ume-umetatik. Etxeko lana ez omen da ikusten. Orduan ez zen taka-takarik eta jostailurik.

Transkripzioa

- Ume batzuk hazitakoa izango zea ordun o zaindutakoa behintzat.

- Bai, pentsa zazu ba. Neoni eoten nintzen. Bi zaharrenak juten zien lanea aitte-amekin baserria, lanea, ta ni gelditzen nitzen etxeen umezain. Eta etxea etorri ta geo demanda igual ematen zien ahizpak. Zeatik otordue igual ta, [zerbait ez non eingo han gustoa lanak eitte]. Ama zana [onenak] eta, beste ahizpa zaharragoa non eta. Ta nik nahigo izaten non kanpoa jutea, e! zeatik etxen gelditzea baiño... etxeen... etxekolana ez da ikusten ba. Eta demanda igual ematen zien: "Nun eon haiz?" o "Ze ein den?" eo "Ze itten aritu haiz eo?" E? Eta hala. Etxeen ni, jeneralen ni etxeen gelditzen nitzen umezai. Aitte-amak eta bi ahizpa zaharrenak juten zien baserria lanea eta ni etxen.

- Ta umek oain bezela eoten al zian beaien sihaska propioakin ta taka-takak eta jostailluekin...

- Bai, hoixe...! Hola uste al dezu? Ez zan taka-takaik eta, ez zan gue etxen jostailluik. Keba, ezta pentsau ´re! Ezta, ezta ezerre e! Gu baserrin behintzet pentsa zazu ba nola aitzen giñen. Baserri haundie zan, haundie zeuken, eta... jostailluik eta gauzaik, holako... holako gauzaik ez. Ez dakit nik ze ekarriko ziuen, ez naiz ezer akordatzen.

8. Politika

8.1. Alde guztietan ibilitako maisua

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/004
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan, maisua errepublikanoa zen. Gerra etorri zenean, baina, falangera pasa zen; eta eskolako umei instrukzioak erakusten zizkien. Gerra bukatutakoan, PNVra aldatu zen maisu hura.

Transkripzioa

-Bai ta, klaro! Nik maixu harren... hue gero erabat kanbiau zan. Aurreneti, ba, geo besta bat eoten zan eskola hasi berriek hola letrak erakusten behatzakin ta 'Sankristaue' esaten gendun, Jesus Lasa, zuk ezautuko zendun hue, udaletxen eoten zan aitzenen, ta hue eoten zan ta, ta klaro, hue, Angelusko garaien ta Abemarik errezatzen ta, bestek begiratu bat...., puf. Zan republikano hutse. Ta gero ba, reboluzioa etorri zanen ta zeatu zanen, ba, Falangera kanbiau zan, ta guri instrukziok erakusten mosketoiakin umeeri kamiñon. Ta, gero, ba, urteek pasau ahalan, gerrea bukau zan eta gero, ba, nun kanbiatzen dan PNVa maisu hoi; bai. Ta euskeraz ikasi zon geo beak, andrea hemengoa zon. Ta geo Iruna jun zan, Iruna jun zien, Iruna destinau edo, nik ez dakit, berak eskau eo ze in zon.

8.2. Gerra hasierako nahaspila

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** ATA-018/007
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:10:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasiera gogoan du: bezperak ziren, nafarrak Lizarrustin sartu ziren, errepublikano eta komunisten bila ibili ziren, tiroa bota, batak bestea zauritu zuen... Ataungo emakume nazionalista bati ilea moztu zioten. Erreketean buruzagia Bilbon bizi zen; eta hari buruz zabaldutako esanak gogoan ditu.

Transkripzioa

-Ta zea, berriz, gerrako aurreneko zea, berriz, akordatzen zat, bezpera ta goatzen, bezperata jun beharra zeon garai hartan, ta Santiago atsaldea zan aurrena reketek etorri zienen. Uztaillen, hogeita bosten, Santiago atsaldea, ta reketek Lizarrustin, naparrak zien, Lizarrustin sartu ta Erremediotti hemen Aitzarteti bueltan Agerreko gaiñen presentau zien, ta gu bezperatara. Ta geo iluntzen gu etortzerako hemen zeren mikeleteen zean, zea hontan. Ta klaro, hemen herrin bazien bi-hiru republikano're, ta, klaro, izkutau, orduako izkutau zien ta beste bi-hiru komunista're bai. Ta haan billa amorrauta eta ezkutauta, ezkutau zien hak, ta. Gero behintzet ba hemen esan zuen: "Venimos a defender la religión, todos los navarros están en el cielo", ta holako zea batzuk in zittuen, tiro bat bota zuen, eta ez zekien tiroa botatzen, bata besteari deittu zuen. Ta hurrungo egunen hala alde ein zuen hemendik. Zea emen zeon, ordenea emen zeon, geo panadero batek esan ziin ordenea eman emen ziola aiuntamentuk, udaletxek, ba bostehun bollo, hurrungo goizeako eitteko. Haentzako gosarie. Haak goiti-behera hemendik, hala alde ein zuen.

-Halako...

-Ataunen ez zan eze pasatu. Ez fusilamentuik eta ezer ere. Bakar- bakarrik emakume bati, Sutegikoei, illea moztu emen zien, rape!

-Ta hoi zergatik izan zan?

-Ba, politika, nazionalistea zalako.

-Horrek ez al zien esan: "Abajo. España, abajo"?

-Ez, hemen ez zan holako... Hemen esan zan, zaaldu zan, klaro! Herri askotan ein zittuen fusilamentuk, eta hemen esan zan, ba, klaro, hemen zeon reketetan bastante pixu zeukena, Bilbon bizi zan, Don Daniel esaten zitzaion, txapel gorrikin akordatzen naiz nola etortzen zan hue honea meza nausira-ta jaietan. Bidarten eoten zan, ta esan zuen ba hue in zala responsablea, harrek esan ziela Ataungo jendeantzat hua eiten dala responsable. Ta gero enterau nitzen ni, PNV-ko batek esanda, kuntu horiek atera giñuzten, ta nik, beste hoi gaixoik zeon, ta jun nitzen ta kuntu horik atera giñuzten, bai, urduako nazionalistak fabore bat einda zeoan aurre hartati, ta hua izan huan ordaiñe. Ta eozein mouz'e egie esan, harrek Ataun ba defendittu zola; ta alde ein zuen beste horik ta ez zan hemen eze pasatu; bakar-bakarrik emakume horri illea moztu ta kitto.

8.3. Gerratik ihesi, eta gerra aurrera

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** ATA-018/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Frontera joan behar zuten bi lagunek ihes egin zuten; kobazulo batean egoten ziren, eta haiei ilea moztera joateagatik, arrisku handia hartzen zuen Felixen lagun batek. Elgetan eta Arraten egon zen fronte gogorra; gerora, Gernika eta Durango aldera mugitu zen frontea. Gerra amaitutakoan, aita hil zitzaien.

Transkripzioa

-Hemen gero soldauskaa jun behar frentea-ta, ba izan zien bi desertor, osea ke izkutaу zienak eta jun ez zienak. Ta, klaro, nei urdun kontau ziin lehen esan [dizudan] historia hoi, nazionalista horrek kontau ziiñen, urdun esan ziin ze arriskue eamaten zon beak ba desertor horriri illea moztea juten zala, zea, kueba hori-taa. Bi hillabeten behin edo, hiru hillabeten behin edo illea moztea juten zala. Ta ze konpromisotan juten zan garai hartan. Zegatio garai hartan garai serioa zan, ez zan bromaik. “El año treinta y siete, treinta y ocho” harik eta gerra rematau arte ta ez zan bromaik. Ta hala pasau zien historia horiek danak. Aurrenen; gero esaten due aurreneko frentea Elgetan izan zala, hemen Elgetan izan zan frente goorra, ta geo Arraten, Eibarren. Geo ia Bizkaia aldea, ia Gernika ta Durango, ta hor, hor, hor. Hor enfrentamento haundik izan zien eozein mouz'e. Baiño gu, aizu, ba esan deana, ba. Ta gero gerrea bukau zan “el año treinta y nueven” ta aitte hil zitzaian eta hemen bizi gea. Eta hori kontau dizut.

8.4. Nafarroara patata bila

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/010
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra bukatutakoan, gosea etorri zen. Nafarroara joan behar izaten zuten patata bila; Felix behin hara joaten zen gizon batekin joan zen, eta 40 kilo patata ekarri zituen lehenengo bidaian. Bigarren bidaian, abentura handiak pasa zituen.

Transkripzioa

-Oin, ba, “el año cuarenta, cuarenta y uno” ta hori zien goseak, gerra ondorenen. Ta klaro, Espillan ba, hamaika lagun zeren etxen ta patatea falta. Ta nik hamabi urte. Ta gue etxen, hemen aldamenen juten zan, ba, tipo bat, ba patatetaa. Barranka (Sakana) guzin ez zeon patataik, jun behar zan Lezaunaiño patata eske, ia Estellaaiño, ia Estella, ba, honeago baiño hamabost kilometro o ez dakit zenbat daren. Ta hue, harrek eitten zon, ba eguneko beaje bat ekarri handik, berrota hamar kilo. Han pesetan erosi ta

Villafrancan, oin Ordizi esaten zaio, baiña Villafrancan hirun saldu. Ta nik etxen: “Ni horrekin jungo naiz”, ta “Nola jungo haiz, ba?, Oindi umea ta, nola, nola ekarri behar dek hik?”. Behintzet goiz baten alde ein non zakuk hartuta aitte difuntun bizikleta zaharren. Ta illuntzeako etorri giñen, ta nik berrogei kilo patata ta harrek berrogeita hamar. Hue etxeko poza! “[Ene, umea, hoik ekarri [dittuk] behintzet” eta hala. Oin, bigarren beajea gero — haik gastau zien— ta bigarren beajea historikoa izan zan. Ba, bagoatz beheti gora, ta Lizarragako aldapea. Ez dakit zu ibilli zean hor, e, zea, hoi da ba, bi malda igo behar die, Lizarrusti ta geo Lizarraga hautza juteko. Ta Lizarragan, herrin toka zitzaion kamion zahar bat. Ta Villafrancakoak [...], ta, klaro, haek nik baiño malizi gehio zeuken, ni umea arten praka motzakin, ta haek heldu zien kamion horri bi aldetatik ta “oin nik ze ein behar diat?”. Ta nere erion kamion hoi harrapau non, ta heldu nion holaxe kartolatik, honi helduko banio bezela, ta ba, hala, ia goora arte. Goran ein zon, ba, kotxek gutxigo baiño kamionak eitten do hola kanbiatzeko garaien golpe bat zean ta aurreko erruedan... beak atzeko alden zeaman errueda repuestokoa, harrek jo zin kubiartan ta ni ipurtzuloz gora. Bi belaunek odola dariola jarri nittun ta “tira millas”. Aurrea.

Ta aurrea. Ta ,hala, igo giñen tunel hortaa gero jesteko garaien ba.. jetsi ta ia... bai, pixkat aurrexeago dao, zan, Benta Sunbeltz, baserri bat, ba, behiek ude edateko askea ta danak-eta, han belaunek garbittu ta Lezauna. Hala jun giñen ta hasi gea: “¿tiene patata?” —erderaz, han ez zon euskeraz iñork hitz eitten—, ta tokau da “bikatxen” ate jotzea, bikario etxen. Ulertu didazu, entenittu didazu, ezta? Ta ba, ataa zaiu bikarioa. Ta bikariok ni hala ikusi nittunen bi belaunek urranta, ba, sobra ´re errukittu ein zan o kupittu ein zan o, ta ba, esan zion... esan ziun: “Tranquilos, ya os encontraré yo la patata,” ta neskamei esan zion: “Prepárales a estos un plato de cocido de patata” [hiruori]. Hala, ba, neskamek eman ziun platerkada bana patata ogikin ta bikariok patata billau ziun ta nei holako ogi bat eman zin, mutil koskorra belaunak hala ikusi nittulako ta etxea. Ta inporta zian nei belaunak urranta egonagatik patatea ta ogie etxea ekarri nittun ta danok gustoa, etxe guzin! Ta, hala, gastau zan hoi ´e.

-Baiño hoi ez al zan estraperloa?

-Ez. Ba estraperloa... Estraperloa izaten zan han erosi ta hemen saldu. Hue da estraperloa.

-Han erosi ta hemen jan, hori ez.

-Ez. Etxeako zakarrenak ez.

8.5. Patata bila joateko abenturak

- **Hizlaria(k)**: Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-018/011
- **Iraupena**: 0:07:30. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,
kontakizunak
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: 17-18 urte zituela, fabrikan zebilen lanean. Larunbaterako plana egin zuten lankide batek eta berak, patata bila joateko Nafarroara. Harako bidean, guardia zibilekin topo egin, eta ez zieten

oztoporik jarri aurrera jarraitzeko; bueltakoan, beste guardia zibil batzuk zeuden bidean, eta esperientzia ez zen hain goxoa eta xamurra izan. Orduko abenturak kontatzen ditu.

Transkripzioa

-Beste behin fabrikan ein deu plana. Gerogo,e, ia ordun eukiko nittun nik, ba hamazazpi bat urte, hemezortzi, ia fabrikan nebillen. Ta, ba, hala ein deu Lazkaoko bat eta biok plana, zapatu baten. Ta, klaro, garai hartan mezea entzun beharra zeon ta goizen aurrena Beasaiña, Porteria, bostak eta hogeiko mezea entzutea. Zea, fabrikan relebon jun behar zuenak lanea ta, hola mezea ematen zon. Don Pedro Jimeno zan mezea ematen zona. Meza hue entzun ta bizikletan beheti gora. Ta aillau gea Etxarriko kruzeko zubia, “[Zaapiko] zubia” esaten diou guk. Ta han, ba, guardia zibillek. Ta esan diu etxeako patatea ekartzea goatzela, garbi. Ta guardia zibillek jatorrak ematen zuen, ez dakit, “sí”, bai, bai, “Sí, sí, nosotros también somos hijos de obreros y pero delante de nosotros pasar de ahí, del río, o sea que, del otro lado del río”. Hartan, patatea erosi deu ez dakit, Torrano, Unanue eo nun zan, han behintzet, Arbizuti aurrea. Ta bagatoz etxea ta beste bi agrega zitzaion: bat, Bitorreneko Miel zana. Akordatzen al zea, Zumarragan hil zana. E?

-Bai, bai.

-Bai, ta geo beste bat, Iturralden bizi zana, naparra, Daniel. Ta, hala, lauok bagatoz, ta Lizarragabengon zan paso nibela, karreteran, oin karreteren gaiñetik dao jarrita, baiño ordun zan karreteran. Paso nibela itxita zeon; trena, Altsatutik Panplonaa jun behar zona pasau arte, hala, itxoin diu. Ta etorri da, ba, Lizarrustin mezea eman ta apaize entregatzea zihona, kabo primera Etxarrikoa. Hue geldittu zaiu: “Alto, seguirme a mí”. Hala, isil-isilik gu bean atzetik. Ta Miel hoi pixka-pixkat aurreatu ein zan, zea, Bitorreneko hoi. Gaztea zan ta pixka-pixkat aurreatu ein zan. Eta esan zion: “Oye chaval, vete despacio que si no tengo una pistolita que canta muy bien”, holaxe. Isil-isilik, gu serio. Aillau gea guardia zibillen puesto hortaa eta hor, ba, beak papel bat ein zon, utzi zien parejei ta hartu nere bizikletea — kuadrillan zaharrena nerea eongo zan, seguronea—, han jarri ta Etxarria jun zan bea ta guri bizikletak eta patatak kendu ta hogeik kilometron oiñez bialdu giñuzten. Etxea! Hogeik kilometro e, dare [Zaapiko] zubitik honea, ta oiñez. Hala, esan ziun parejek: “No hay derecho para esto —beak alde ein zonen—. Debiais de ir a Pamplona”. Hartan, biden hitz ein gendun, “Beno, hi jun hai Panplonaa” neekati. Nik osoba bat neuken ordun Panplonan, sakramentinoa. Ta, hala, “Egune pagauko diau danon arten”, ta Lazkaoko horrek esan zin: “Nik fabrikako nausiri esango zoat, enkargatui, ze pasau dan”. Hartan, jun nintzen ba etxetik beste bizikleta bat hartu ta Etxarria bizikletan. Ta han trena hartu ta Panplonaa, Iruña. Ta hala jetsi han ta “Oin, konbentue nola billau behar diat nik, konbentu santu hoi?” Hasi nintzen ta galdezka ta bat eta beste ta billau non noizpait. Ta osoba zeatu non ta osobak esan zin: “Lasai”. Segittun fiskalia jun giñen eta fiskalin: “No hay nada que hacer, eso está así y ...”, hola. Ta gero jun giñen “a la capitania de la guardia civil”. Ta, klaro, han hue sotanekin zeolako errezibittu zuen ta ni kanpon. Hala, han´e kontestazio iguala. Hartan, osobak esan zin: “Beno, beno, lasai, lasai, oain bazkaldu eingo diau”. Ta bazkaldu gendun, ni bialdu nittun trenen ta ni Etxarria etorri, Etxarrin hartu bizikletea eta beiz´e etxea. Ta hala, harrek zer ein zon? Hurrengo egunen gobernadoreana jun. Ta gobernadorei danak “ipi-apa” esan, osea ke, ze famili genden, nola etxeako patatea ekartzea jun giñen, eta dana. Ta sobra´re gobernadorea pixkan bat kupittu ein zan. Ta gobernadorek: “No, no, a esos hay que devolverles la bicicleta, la patata y todo”. Hartan, ba, “aber

egie dan ba”, ta zapatu hartako aiuntamentua papela etorrita bizikletea jasotzea juteko Etxarriko kuartelea. Hala —zapatun lan eitten zan—, goizen zapatun lan ein deu ta bokadillon bat jan Beasaiñen ta trena hartu ta Altsasua. Altsasun, aillau gea, ta hurruna konbinazioik ez zeola Etxarriako. Beiz´e oiñez. Altsasutik Etxarria jun giñen. Ta jun gea kuartel santu hortaa ta bizikleta zeatu diu, ta nere bizikletea aurreko gurpilla hausita. Esan nion: “Oiga, esa bicicleta no he dejao yo así, eh” ta hortan, jarri zan bea “firmes” ta esan ziun: “Mira, si no recogéis hoy estas bicicletas os vais a dar cuenta en toda vuestra vida de mí”, esan ziun holaxe. Ta Miel horrek, Miel zana horrek, Bitorreneko horrek esan zin: “Felix, har zak bizikletea”. “Baiño bizikletea hartuta zer ein behar diat, berriz´e oiñez jun, hemendi Atauna?”, nik. Eta “Hik har zak bizikletea”. Bueno. Hartu non. Eta kamiñoa ataa giñen —baztarren zan koartela—, ataa giñen karreteraa, Estellati zetorren karreteraa, ta, “Eseri hai hemen tubon, bizikletan tubon”. Eseri nitzen ta nere bizikletea hartu non holaxe, bizkarren, ta beste eskukin manibelai heldu nion, esku batekin nere bizikletei eusten ta halaxe etorri giñen etxearte. Ibillirea, pentsau zazu. Hori nola ahaztuko zazu, ba? Ta behintzet, hala. Ta gero, ba, hartan genden, bizikletea ekarri ziun behintzet eta... Nik hurrungo egunen Beasaiñea eaman non, soldeau zien gurpilla ta beiz´e ba hartan. Ta ia lau-bost urte pasau ziela, patata horin dirue nola etortzen dan aiuntamentua. Bai jauna. Gu ezkontzeko gendela, ez dakit lau-bost hillabete falta ziela, patata horin dirua etorri zan Ataungo udaletxea Ataungona eta Lazkaoa besteena. Ixtori hoi hola da.

8.6. Estraperloa egitea errazena...

- **Hizlaria(k)**: Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-018/014
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:24:34. **Bukatu**: 00:25:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Nafarroara patata bila joaten zirenean, guardia zibilen beldur egoten ziren. Estraperloan asko ibiltzen zirenek ez zuten arazorik izaten jeneroa sartzeko, eskupekoei esker; bizikletan joaten zirenek, ordea, bai.

Transkripzioa

-Eta zuek holako kontuk in behar zenituenen, Naparroa jun zeozen billa o, guardia zibillei beldurra eukitzen zenien?

-Bai, guardia zibillek kendu eitten zuen. Beida, estraperlista haundiik —lehen esan dezu estraperloa—, estraperlista haundiik kamionen garia-ta ekartzen zuenak, salbau itten zien. Haak dirua ematen zuen eta esaten zien: “Beno, holako ordutan pasa zaizte, ez dek iñor egongo ta”. Hak pasau eitten zien. Baiño bizikletan zebiltzen gixaixook, ba, asko ta asko, ba, kendu eitten zien. Nei behin, urdun kendu zien, behin.

8.7. Gerra osteko urte miserableak

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Urte miserableak pasa zituzten gerra ostean. Errotak itxita egoten ziren, eta ezin izaten zuten irina lortu. Taloari esker, ez zuten gose handirik pasa etxean. Errotan ezkutuan ehotzen zuten garia. Orduko errotei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Urte miserablek zien. Nik ez diot iñungo jenerazioi opa lehen guk pasau giñuztenik pasatzeik. Ez diot iñungo jenerazioi opa.

-Eta iriñan kontuakin Naparroako...?

-E?

- Iriñan kontuakin, gariya etxen ta ezin iyo ta...?

-Ezin iho! E, klaro! Estraperlista haundi horik nunbait ihotzen zuen fabrikatan o bazeuken nunbait, aizu, amistadena bat. Horiri, ba... batzuk urdun dirue irabazitakok bazien, baiño "al fin y al cabo", aitzeneako, harrapatzen bazittuen beaje baten, dana kendu, asi ke... Ta hor ihotzen zuen. Guk errotan. Gu talok salbau giñuzten. Etxen eitten genduen artoa, iriñe, taloa ta harrek salbau giñuzten. Guk gose-goseik ez gendun pasatu, baiño taloi esker, e.

- Etxen ihotzen zenduen orduan?

- Ez, ez, ez, errotan, errotan. Baiño bazien errota bat baiño gehigo. Por ejemplo, hemen, San Martingoa prezintau in zuen garie ihotzen harrapau zuelako Joxe Antonio. Baiño, ba, Lazkaoko errota haundie, San Gregorioko errotea ta... bazien. San Gregorioko errotea zan lapurre! Harrek anega artoi kentzen zien... bua!, Julian zaharrak, auskalo zenbat. Lazkaoko errota jutun giñen bizikletan, nik hartu aldiko hogeie ho hogeitabost kilo ta han ihotzen gendun artoa.

-Baiño kartillan jartzen zuna o gehio?

-Ez, ez, kartillea. Kartillea bai, baiño kartillea garie zeatzeko izaten zan. Garie´re entregau ein behar izaten zan.

-Artua libre al zan?

- E?

-Artua libre...?

-Artoa bai, bai, bai. Artoa bai, artoa bai. Artoa ganadun pentsutzat bestela zeatzen zuen. Oin, guk jaten gendun. Gu harrek salbau giñuzten gosetik, talok. Ta, hala.

8.8. Olioaren orde, seboa (ahal zenean)

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/019
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra ostean, olioarekin arazoak izan zituzten, litroak 100 pezeta balio zuen. Olioaren ordez, seboa erabiltzen zuten, ahal zutenetan behintzat. Etxean txerri bat hiltzen zuten urtean; eta, Eguberrietan, ardi bat.

Transkripzioa

- Koipea gaizki, oliokin gaizki, uf. Ni olio aillauta nao [...], Markox —oindi bizi da—, Markox horri estraperlon hoge duro litroa pagatzea. Garai hartan, e! Hoge duro, e! Pentsau, litroa hoge duro! Eta gero, ba, seboa ibiltzen gendun. Karnazero bat bazan, ba, txekorra hiltzen zonen, ba, goizeko seiek baiño lehenao juten giñen, ta klaro, harrek bazekin gutxi gorabehera txekorrak zenbat sebo eukitzen zon ta, ba, famili bakutzeko libra bat, kilo erdi bat. Ta balek eitten zittun, ta gutxi gorabehera beak bazekin zenbat kilo-erdi izango zien, hainbeste bale. Ta halako baten balkoia ateata botatzen zittun; harrapatzen zonak seboa ekartzen zon etxea eta bestek burue makurtu ta etxea.

- Balek, goizeko ze ordutan?

- Seietan.

- Goizeko seietan balek balkoitik botatzen zittun eta...

-Bai, eta hartzen zonak...

- ... hartzen zonak seboa etxea?

- Seboa etxea.

- Eta ez zonak hartzen, ezer ez.

- Balek zien sebo puska hoiak?

- Bai. Olio a eitten gendun. E! Hoi gerogo´re bai. Zea, zuk... klaro, zuek ez dezue txerriik hil ta...E, ba, zea hiltzen zan, e... eitten zan etxen e... koipe... txerrin, zeakin´e, sebookin´e. Txerrie urten behin hiltzen gendun. Urten txerri bat.

- Hoi legala, baiño bigarrenik ez ahal zenduen hiltzen izkutun o?

- Ez, ez, guk ez, guk ez. Bat. Etxen gizendu ta geo nahi gendun janakin, garagar-iriñekin ta, ondo gizendu, ta etxen txerri bat hiltzen gendun guk jeneralen. Ta geo, ba, igual Eguarritan ardi bat, mondejuk jateko, besteik ez.

8.9. 1950. urtera bitarteko gosea

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/022
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:38:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** 1950. urtera arte gaizki pasa zuten janariarengatik; baina, gerora, egoera hobetu egin zen. Emaztearen bi izeba Kordoban bizi ziren ezkondata. Haien etxean ez omen zen olio faltarik izaten.

Transkripzioa

- Behin, e, gose... "El año cincuenta"tik izan zan kanbioa e, "hasta el año cincuenta" gaizki. Bai. Baiño cincuentatik aurrea, ba, ondo.

- Ordu arte sardinzarrak-eta...?

- Bai, bai, bai. Urduarte gaizki, taloa ta... ta ez zan... Beida, por ejemplo, nee andra defuntun etxea. Harek zeuzken bi izeba ezkondata Kordoban. Neskame jun Donostia, Donostin goardia zibille aiskide ein, goardia zibillei destinoa eman Kordobaa ta Kordobaa. Ta geo bea haurdun jarri zanen, eaman do beste ahizpa, Baidindik. Ta hue ´re, harrek ´e ein do goardia zibille aiskidea. Hala, goardia zibillekin ezkondata. Ta gu ezkondu giñenen hauntza jun giñen, garai hartan, "el año cincuenta y cinco". Aizu, handik buelta ein gendun, han astea pasau ta beiz ´e lanea. Ta hala. Ta haak, haak ez zuen olio faltaik izaten. Haari Kordobatik guardia zibillek prezintauta bialtzen zien ordun olioia. Ta haari haan prezintoa ez zien iñork ikutzen. Haak olioia, suelto.

- Baiño ez zien ezautzen ordun oaindio ta..

- Ez, ez, ez giñen gu ezautzen arten. Baiño gero kontautako kontuk die horiik. Ta olioia, olioia gauza sagradue zan. Gero esnegaiñekin ´e eitten zan olioia. Harrekin ´e koipea zeoze eitten zan ta esnei gaiñe kendu ta... hola.

- Olioia ez, koipea.

- Koipea. Hola, hola, hola zan.

9. Baserria

9.1. Txerrikiak kontserbatzen

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena:** Txerrikiak nola kontserbatzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta txerrian seboa, nun...?

- Txerrian seboa izaten zan txerrian mantekea; seboik ez du izaten, mantekea. Ta hue oolkik itteko, gehiena.

- Nun gordetzen zan hua?

- Zea baten, holako lapiko haundi baten, txorizok sartzeko. Ta han txorizok sartzen zien. Aurrena euki hemen txintxilika ta gero, ba, pilla bat udarako, kontserbatzeko, han sartzen zien. Holako altura hontako lapiko bat, lurrezko ze horitakoa. Oaindio Espillan eongo da bakarren bat igual, zean, sukaldeko armario zahar hortan. Ta hala, zu, hala zan. Ta txerrie, ba, harrek asko estaltzen giñuzten. Aizu, urdaiek eta urdaiazpikok eta...

- Aldiko puska bat.

- Aldiko... klaro!

9.2. Baserriaren beherakada gizartearen begietan

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/030
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:53:11. **Bukatu:** 00:55:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** Baserrian lana egin behar zen; eta Felix fabrikan aritu arren, baserriak ez zuen barkatzen. Ez zuen tabernara joateko ere denborarik izaten. Garai hartan, baserriko emakumea esklabo omen zen. Gizartea asko aldatu da: lehen maiorazkoa oso estimatua zen; gerora, inork ez zuen nahi. Gaur egun ganadu asko behar da baserri bizi ahal izateko.

Transkripzioa

Danak bukau zien horiik. Ta geo baserrik´e bai. Baserrik´e “hemen ez zeok ezer” esaten hasi giñenen... dana. E! Nei letxerok esaten zin... guk, pentsau zazu, hiru behi, esneen tankea beheran eukitzen gendun eta ni fabrikan. Ta, klaro, lana ein behar zan! E... hiru behien [ganao-janak] eta, aizu, beti lana, lanpen. Jaie etorri, siesta pixkan bat ein ta segea pikau o, beti zerbait! Ez zeon, ez zeon, zea, taberna juteik museen partidea botatzea. Aizu, hori, horik ez zeon eitteik. Bakarren batzuk eingo zittuen, baiño andreak sakrifikau beharko zon, gizona juten bazan, duda txikiñik gabe. Ta nik hoi rekonozitzen det /rekonozitzet/: baserriko andrea Euskal Herrin, garai hartan, esklaba zen, oso esklaba. Ta horregatik eaman zon, eaman zon paraderoa. Aurrena izan zan momentu bat gose urten, ba, baserriko maiorezkook andragaie eo andrea aiden bilatzen zuen. Ta gero etorri zan beste buelta bat, ba, mundu guzie fabrikanteekin. Ta baserriko maiorezkook sobre. Horik danak ezautu dittuu, horik hala die. Ta gero, aizu, kitto. Ba, oin baserrie eukitzeko behar dittuzu /beaittuzu/, ba, ehun behi, o... [...] hor dare. Aizu, ba, horik ehun ta gehio eukiko dittue. Horik ateako dittue bi egunen behin, ba, zazpi-zortzi milla litro esne, lehen Ataun guziik aiñe! Ta hala behar du gaur bizi izateko, horti bizi izateko.

9.3. Esnea banatzen zueneko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/033
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:58:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Esnea banatzen aritutakoa da Felix makina bat aldiz. Orduko bizimodua nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta hoi nola izaten zan? Emakumia jungo zan ba esne-partitzea o?
- Bai, ni´re bai hamaika aldiz!
- Bai?
- E! andragaie daukeala´re bai! E! Ba, bezperatan, bezperak zien, bezperak entzun ta jun neskeena bertaa hue´re espeatan izaten zan ta biok San Gregorio aldea buelta bat ein ta beherakon ni etxen sartu hemen ta, aizu, aldauko nitzen ta behiek jetziko nittun ta... Izeba gendun arten hemen, aitte difuntun arreba. Ta harrek emango zion, zea, kafesnea o, zea, beste zerbait eta nik ikuillukok eindakon, ikuillukok eindakon, ba, bi-hiru marmitt hartuko nittun ta Arrondon bagendun esneek uzten giñuztena ta haek utzi ta...

- Neskei laguntzea [...].
- ... neskei laguntzea. Halaxe, halaxe bizi izandakok gea. Ta hurrungo goizen bostak laurden gutxin jaiki behar ta ez zeon neskekin egoteik, aizu.
- Ni aittuta nao izeba [...] eta bion arten txandatzen ziñatela.
- Bai, bai, hoi´e bai, hoi´e bai. Biok txandan eitten gendun askotan. Baiño, baiño, harrek beste zerbait izaten zonen neonek ein behar, aizu.

9.4. Baserriaren jabeen historia

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: ATA-026/003
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:03:08. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Aitaren familiaren historia kontatzen du. Amona Okarizti baserriko nagusiaren semearekin maitemindu, eta elkarrekin ateratzen hasi ziren. Baina mutil hori hil egin zen; eta orduan haren lehengusu batekin ezkontzeko proposatu zioten. Proposamena onartu zuen; eta, horri esker, amona egin zen baserriaren jabe. Amona, baina, gazte geratu zen alargun, hiru ume zituela.

Transkripzioa

-Zuen aitten familie Okariztin urte askotan o... Bueno, zenbatgarren generazioa zen?

-Bai, e, hoi kontauko dizut, hor kaso kuriozoso bat zan. Gure amona Martina Barandiaran Urrestarazu, hau Okaiztiko garai hartako nausiin seme batekin enamoratu zan eo nobioa ein zun eta hala zebiltzela behintzet nobio hori hil egin zitzaion. Orduan Okaiztiko nagusi hoiek seme bakarra zuten eta beren illoba batekin propuesta in zioten ezkontzeko. Orduan, ba, onartu zuan eta beren etxe horren jabetza eman zioten. Osea ke guri etxe horren jabetza datorkigu pixka bat erregalo eginda, ez. Bai.

-Ya, ya.

-Hori da. Gure amandrea nik ezagutu nuen ondo, baiño aittunaik ez. Aittuna, gure aitte-da hiru senide zien eta gazteena da gure aitte. Eta gure aittek arteen uste det oso denbora gutxi zola hil zan, zea, aitte, bai, eta alargun gelditu zen gure amona hori. Hiru umekin.

-Edukiko zun lana, alargun.

-Bai, bai.

10. Ekonomia eta industria

10.1. Fabrikako soldatak ekarritako poza

- **Hizlaria(k)**: Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ATA-018/031
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:55:02. **Bukatu**: 00:55:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Felixek CAFen egin izan du lan. Etxean hiru behi zeuzkaten, eta haien esnea etxerako eta saltzeko izaten zen. Amaren alarguntasun-pentsioa oso txikia zen; eta Felixek fabrikatik lehenengo soldata ekarri zuenean, pozez zorutzen egon ziren etxeko denak.

Transkripzioa

- Zuen garaien, zuk fabrikan egiten zendun lana... CAFen o...?
 - E?
 - CAFen egiten zendun lana?
 - CAFen, bai.
 - Eta ordun etxen hiru behi esan diazu?
 - Bai.
 - Hoi ze izaten zenduen etxeako esnia iteko o?
 - Etxeako ta saltzeko ´re bai. Beida, aitte hil ta ondorenen danan beharra zeon, zeatio amai jarri zien, ba, "cinco veinticinco" aitten indemnizazioa. Ta, aizu, hue gutxi zan hamaika lagunentzat, hue etorriik ez zan. Ta nik aurreneko astea hamalau urtekin pasatu fabrikan ta ekarri nittun etxea "veintidos cincuenta". Ta, joe, gue etxeko poza! Gaur hola billoia eman eta halako pozik ez. "Umea, oaintxe ez gaittuk galdu" esanez ta, aizu, hola zan.

10.2. Lanpostu hobeak lortzeko mugak eta balioak

- **Hizlaria(k):** Eskisabel Zurutuza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ATA-018/054
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:25:11. **Bukatu:** 01:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Felixek fabrikan sufritu izan du gehien. Izan ere, han, pixkanaka, lanpostu hobeak lortzen joan zen, baina eskola falta zitzaiola nabari zuen. Orduko azterketa bat gogoan du.

Transkripzioa

Ta nik gehiena sufrittu deana zean izan da, fabrikan. Klaro, fabrikan, ba, ni aprendiz sartu nitzen; ofizial terzera ein nitzen. Ta gero, ba, segunda joe, pruebata juten nitzen ta pruebatan, ba... ez non /enon/ eze itten han, zeatio eskolaik ez neuken, dibujoa sobretodo gutxi. Hemen koadrado ta ronbo ta rektangulo ta holako zea batzuk bai, baiño beste horti aurrea bate ez non ezer eitten. Ta hala, segunda behintzet "por antigüedad" ein nittuen. Ta gero, makina bat zan, ba, oso ona, ez dakit ba /eztaipa/ amerikanoa o inglesa o zer zan eta Espaiñin ez zeon besteik. Largero haundik eta puentek eta danak harrek eitten zittun Espaiñi guztiako. Ta, ba, hautza iñok ez zon jun nahi. Ta Baztarrika, oin direktor jeneral daun horrek esan zin: "Eskisabel vete, que ya tendré yo en cuenta cuando hay que... en la subida de las categorías", esan zin holaxe. Ta behintzet ezetz esateko korajeik ez non /enon/ izan ta hala jun nitzen. Gau pare baten eon nitzen loik ein be, zeatio zan makina bat, ba, zue deskuidoa pertsona bat hiltzeko peligroa zeon, botoia zapaldu ta eozain gauza... deskuidatzen baziñen

harrek eozein gauza, harrek ematen zon golpeekin. Hala behintzet. Ta behintzet esamiña [han], ofizial primera. Ta montajea. Ta aurrena jarri zin, ba, “sumar enteros”; “[Kauen], hori besteik ez bada eingo diau!”. Geo “sumar decimales”, igual. Geo “restar enteros, restar decimales” igual. “Multiplicar enteros, multiplicar decimales”. Hue´re errez dominatzen non. Ta gero “dividir enteros, dividir decimales”. Hue´re igual. Ta geo kebradokin hasi zaten. “Oi dios! Oaintxe hondau nok!”. Ta hala, behintzet, beak pixkat zea, hasten zin, ta zeatzen non, soluzionatzen non. Ta aitzenen esan zin: “Eskisabel, tú todavía puedes llegar a más y vete al taller” esan zin. Hala jun nintzen. Zeatio besteek ez... bestea, nee lagune, bi giñen, bi plaza zeren. Eta bestea prailletan ibillita —Ordizikoa zan —, prailletan ibillita zeola ta ez dakit zer, badakit zer... “Aiba dios! Horrek nei... bueno, errez irabaziko ziak! Eingo ahal natxiek por antigüedad aunke sea” ta. Handik hillabete pare batea, nun jartzen duen anuntzioa: “Felix Eskisabel, oficial de primera por examen”; eta bestea, Jose Zaldua, “por antigüedad”. Nee arten... Ni pozak etorri nitzen etxea: “Ba! Jubilatzeako ofizial de primera ein natxiek behintzet eta”. Aizu, ni gustoa.

10.3. CAFeko laborategian, gustura lanean

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: ATA-026/009
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:12:40. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Pulido, Alejandro
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: 15-16 urte zituela, etxera itzuli zen, eta baserriko lanetan aritu zen. Horrez gain, mekanikari lotutako kontuak asko gustatzen zitzaizkion, eta mekanikari buruzko Amerikako aldizkari batzuk oso gustura irakurtzen zituen. 22 urterekin, CAFen sartu zen lanean, laborategian. 43 urtez aritu zen han lanean. Gustuko lana zuen, eta gustura aritu zen.

Transkripzioa

-Bueno, handi etorri hamabost-hamasei urtekin edo eta gero ibilli nintzen pixka bat hemen, baserrin lana eñez, kontabilidadea ikasi ta holako gorabeherak. Baita ere ba neri mekanika asuntua ta hola asko gustatzen zitzaten eta hor garai hartan bazien hor amerikano errebista batzuk-eta ta hoiek asko gustatzen zitzaten. Eta gero lortu non CAFen sartzea, ez dakit hogeita bi urtekin edo hola. Sartu nintzen zea laborategin, eta han jarri nittuen ensaio mekanikok edo esaten dan sekzion, materialan erresistentzik ta gorabehera hoiek neurtzeko asuntun. Hango buru izatea iritsi nitzen eta eon nitzen han, lantoki hortan bertan, berrogeita hiru urten-edo. E, bueno, ez dakit; neri gustatzen zitzaten langintza zan eta gustoa ibilli nintzen, nahiz ta askotan ba zenbait truko edo histori ein behar izan, ez? Materialak justu antxen baldin bazebiltzen resistentzin edo zenbait gauzatan ba hoiek ba nolabait pasatzeko bidek egiñarazitzen zizuen eta abar eta holako gorabehera batzuk bazien. Baiño beste gaiñontzen ba gustora.

10.4. CAFeko laborategiko lanak

- **Hizlaria(k):** Bikuña Agirre, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ATA-026/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:21. **Bukatu:** 00:15:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Pulido, Alejandro
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** CAFeko laborategian aritu zen lanean 43 urtez. Horretan aritzeko, hainbat gauza neurtzen zituzten. Teknologia aurreratu ahala, lana izugarri erraztu zen.

Transkripzioa

-Hor izan beharko zan ofizioa ikasteko, ofizio hori o bueno zea hori ikasteko, laboratoriko lan hori ikasteko jakintza beharko zan, ez? Funtzionamendua, konposizioak-eta izango ziren.

-Bai, bai, bai. Bai, bai. Klaro, gu ez giñen sartu analisisetan, ez. Gurea zan mekaniko asuntoa batik bait, ez. Osea ke makinan bittartez ikusten zan erresistentzie, fragilidadea, elastizidadea ta gauza hoiek danak, ez. Hoiek neurtzen giñuzten guk batik bait. Beste sekzio baten berriz ba, eitten zuten ba, material horren analisiak, ez. Hori ere ba hasiera baten izugarrizko lana zan eta bai, preparazio haundia eskatzen zona, baiño hori ia geroa sortu zien kuantometro deitzen zaion makina batzuk eta zuk material baten muestra pixka bat pulittuta jartzen zendun han leku baten eta hor korradiasion bittartez ematen zizun ba hogeita piko elemento zea horrek zeuzkenak, ez. Ya gauza erreztu zan izugarri. Bai, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolarik ez eta pelaio moduan instrukzioa (ATA-003/001)

Zazpi urterekin hasi zen eskolan. Dotrina ikasten zuten. Gerra etorri zenean, akabo eskola. Pelaio moduan, instrukzioa erakusten zieten.

2. Gerratean, hamaika urterekin etxeko ardura (ATA-003/007)

Anaia gerratean zauritu zutenean, gurasoak Zaragozara joan ziren eta hamaika urterekin bera geratu zen etxeko arduradun.

3. Mutilak etorkizunerako gai, neskak etxeko lanetarako (ATA-004/003)

Ahizpak, haziz zihoazen eran, neskame joaten ziren; bera ez. Bi anai zaharrenak seminaria eraman zituzten. Gurasoek mutilak ikusten zituzten etorkizunerako gai; neskak, berriz, etxeko lanetarako eta zaintzarako.

4. Dotrina amak erakutsita (ATA-004/004)

Hamaika urtera arte joan zen eskolara. Amak erakusten zien dotrina etxean; jatorduengatik eskerrak ematen, otoitzak egiten... Dena erdaraz ikasi zuen. Kantuz ikasten zuten dotrina.

5. Aitarekin mendira idiak hartuta egurra ekartzera (ATA-004/005)

Egur-loteak zozketatzen zituzten udaletxean. Goizean atera eta iluntzera arte joaten ziren aitarekin mendira, idiak hartuta, egurrak ekartzera. Egun guztiko otordua eramaten zuten. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du. Bidaiko, eguneko, hamar ogerleko kobratzen zituen aitak. Familia batzuek ogitartekoa ere ematen zieten lanaren truke; beste batzuek ez, ezin zutelako.

6. Amak lortzen zuen etxerako janaria eta abereentzat pentsua (ATA-004/006)

Irakurtzen eta idazten ikasi zuen baina zatiketak egiten ez. Aita mendira joaten zen egun osorako; amak gazta egiten zuen eta plazara joaten zen saltzera. Abereentzako pentsua eta aste osorako janaria lortu behar izaten zituen amak. Aita lotsatu egiten zen zorrak eskatzerakoan. Goserik ez zuen izan, ezta luxurik ere. Amak etxeko denei josten zizkien arropak.

7. Josten eta euskaraz alfabetatzen (ATA-004/007)

Hemezortzi urte ingururekin, neguan, Beasainen josten hasi zen. Hogeita hiru urterekin ezkondu zen eta hogeita bostekin izan zuen aurreneko semea. Euskaraz alfabetatu zen, lau seme zituela, ama ezkongabe bat irakasle zuela. Dotrinako irakasle izan da urte askoan, eta pixkaka jazten joan dela dio.

8. Tuntun-jotzailearekin edo Beasainera festara (ATA-004/008)

Hamasei bat urterekin hasi zen Beasainera-eta festara joaten. Hamar pezeta ematen zizkion amak. Bezperetara joan behar izaten zuten elizara, larunbatean. Autobusak izaten ziren. Udaletxean bi familia bizi ziren, bata basozaina eta bestea tuntun-jotzailea. Eguraldi txarra bazen eta festara joaten ez baziren, tuntun-jotzailearekin egiten zuten jaia. Bestela, oinez joaten ziren Beasainera eta pastelak jaten zituzten. Jende asko joaten zen dantzara. Izugarri dantzaria izan dela dio. Itzulera autobusez egiten zuten.

9. Trikitilariak, gaiteroak eta jazbanak (ATA-004/009)

Herriko festetan trikitilariak eta Lizarrako gaiteroak izaten ziren, baita jazbanak ere. Mutil bati helduta dantzan zebilela, mendiko basozainak makilarekin jo zituenekoa kontatzen du. Gizon hura nola jazten zen azaltzen du.

10. Jendaurrean ezin zen alkoholik edan (ATA-004/012)

Hilabete batzuez neskame egon zen Irundik etorritako medikuarekin. Familian ez zen inoren bistan alkoholik edaten. Ardo pixka bat jende aurrean edan zuelako aitak jipoitu zueneko kontakatu du.

11. Medikuaren andreak erre eta edan egiten zuen (ATA-004/014)

Medikuaren etxea nola garbitzen zuen kontakatu du. Medikuaren andreak asko erretzen zuela dio, eta edan ere egiten zuela. Lehen orain beste alkohol edaten zela dio.

12. Murumendin ikatza egiten (ATA-005/002)

"Tranpa-txondarra" eta "sorgin-garra" zer diren azaltzen du. Sorginari dama esaten zioten. 1945ean Murumendin ikatza egiten aritu zeneko pasarte bat kontakatu du.

13. Elurra iragartzen zuen behorren ipuina (ATA-005/004)

Ataundar gizon batek berari kontakutakoa kontakatu du. Behor batek menditik beherako bidea hartzen zuenean, elurra zetorrelako izaten zela azaltzen du.

14. Rafael zapatariari esnea eramaten zionekoa (ATA-005/007)

Rafaeli, zapatari zahar bati, esnea eramaten zionekoa kontakatu du. `San Anton´ deituriko gizona aipatu du.

15. `San Anton´en inguruko kontuak I (ATA-005/008)

`San Anton´; esaten zioten gizonaren pasadizoa kontakatu du.

16. `San Anton´en inguruko kontuak II (ATA-005/009)

`San Anton´; esaten zioten gizonaren pasadizoa kontakatu du. Kinkea zer zen azaltzen du.

17. Pago-ikatza, gaztaina-ikatza, arte-ikatza... (ATA-005/018)

Bero gehien ematen duen ikatza artearekin egiten dela dio. Errementariak gaztaina-ikatza nahi izaten zuten. Pagoarekin egiten dela onena dio. Hiru neurritara moztzen zuten egurra, ilara bakoitzerako neurri bana.

18. Txondorra nola egiten den (ATA-005/019)

Txondorra kargatu aurretik, txondor-zuloa edo txondor-plaza egiten da lehenengo. Orbela azpitik eta gainetik egurra jartzen zaizkio. Arbak jartzen zaizkio bueltan. Sua sartutakoan, arbak kendu egiten zaizkio; "arbeldia" esaten zaio. Suetxea aipatu du. Arnasa hartzeko zuloak egiten zaizkio txondorrari ("hondo-zuloak" eta "lumea-zuloak"). Karga bi zaku ikatz direla azaltzen du. Ehun karga pasakoa egin zuen.

19. Suetxea zer den eta nola egiten den (ATA-005/020)

Argazki bati begira daude. Suetxea zer den azaltzen du. Hondo-ilarari "alkatea" edo "zila" jartzen zaio, lau egur gurutzean jarrita. Egur pitzatuak, 40 cm ingurukoak jartzen zaizkio gainean, eta gero egur motzagoak. Puntan

suetxea egoten da; handik sartzen da sua palarekin. Gero tapatu egiten da, baina indarra daukanean. Garrik gabe egon behar izaten du suak, egurra erre beharrean egosi dadin.

20. Txondorraren iraupena eta garbiketa (ATA-005/022)

Egurak egosten hamabost egun inguru behar izaten ditu. Bertan eman zituzten egun guzti horiek. Txondorra egosten den garaian, garbitu egiten da, freskatzeko. Aldiko kamara bat jeisten diote eta harrotu egiten dute. Aldiko laurogei zaku inguru betetzen zirela dio.

21. Abatza, zurezko ontzia (ATA-005/024)

Zurezko ontzi bat aipatzen du, abatza. Horrelakoak egiten zituztenak, "abatzgileak", dagoeneko ez direla bizi azaltzen du.

22. Ikazkinik ez (ATA-005/026)

Ikatz eginda jornal ona ateratzen dela uste du. Lehen bost ogerleko irabazten zituztela dio. Euskal Herrian ez dela ikatzik egiten dio. Ameskoan ikatza arteekin egiten zutela kontatzen du.

23. Etxeko ura eta arropa garbitzeko egin beharrekoak (ATA-007/002)

Etxean ez zuten urik, baina auzoan gertu zuten iturria. Ganaduek askan edaten zuten. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du. Sutako hautsa erabiltzen zuten arropa garbitzeko. Arropa etxean egoten zen alanbre luze batean eskegitzen zuten.

24. Etxeko ardien esnearekin gazta egiten zuten (ATA-007/006)

120-140 ardi zituzten etxean. 8-9 urte zituela hasi zen Felisa artzain-lanetan. Ardietatik lortutako esnearekin gazta egiten zuten. Gazta egiteko prozesua eta erabilitako tresnak azaltzen ditu.

25. Belarra garraiatzeko kablea (ATA-007/008)

Segan aritzen zen Felisa. Belarra bildu, buelta eman, sokarekin lotu eta abereen bizkarrean ekartzen zuten etxera; beste batzuetan, kablean botatzen zuten belarra. Kable hura anaiak muntatu zuen, eta belazetik bordara zihonan. Kable hartan kakoak jartzen zituzten belarra garraiatzeko.

26. Etxeko taloa eta ogia (ATA-007/012)

Otordu guztietan taloa jaten zuten, tartean zerbait sartzen ziotela. Ogia ere izaten zuten. Etxean egiten zuten ogia. Legamia behin erosi eta hurrengotarako gordetzen zuten. Ogia astean behin prestatzen zuten, eta hartarako labe berezia izaten zuten.

27. Eskolara gutxi joan ahal izan zuten (ATA-007/013)

Eskolan gutxi ibili zen, 14 urtera arte, adin horrekin ez baitzien uzten eskolan sartzen. Astean behin edo bitan joaten ziren eskolara. San Gregorion zegoen eskola. Maistra erdalduna zen, eta ez ziren ondo konpontzen harekin, ez baitzuten elkar ulertzen hizkuntza zela eta. Zigorrik ez zieten jartzen euskaraz hitz egitegatik.

28. Gerra Atauna iritsi zenean (ATA-007/018)

Gerra hasi zenean, nafarrak etorri ziren mendian beheara. San Martinen "alto!" eman zieten hemengo soldaduek eta ez zuten aurrera egin. Gerora, herriko mutilek gerrara joan behar izan zuten. Hiru etxetako hiru mutil hil ziren gerran.

29. Gerra ostean errotatara ezkutuan (ATA-007/021)

Herrian ez zuten irina ehotzen uzten gerra ostean. Horregatik, beste errota batzuetara joaten ziren. Estraperloa izaten zen garai hartan, eta guardia zibilek harrapatuz gero, irina kendu eta isuna jartzen zuten. Felisa bera ibiltzen zen lan haietan mando handi batekin.

30. Baserriko eguneroko menua (ATA-007/025)

Bazkari normal batean, babarrun egosiak eta sagar erreak jaten zituzten. Afaltzeko porrusalda izaten zuten. Gauean ganbarara joaten ziren artoa zuritzera edo ganadua zaintzera, eta horren ostean, taloa eta esnea. Gaztaina zurituak ere jaten zituzten. Ura edaten zuten etxean eta gizonezkoek ardo pixka bat noizean behin.

31. Baserriko bizimodua: lan asko eta ahal zenean atsedena (ATA-007/027)

Gizonek eta emakumeek denek egiten zuten lan asko etxean. Siesta batzuetan egiten zuten, bero handia zenean. Ilunabarrean denak etxera itzultzen ziren eta denentzako lana egoten zen.

32. Soinua jotzen ikasia (ATA-007/031)

Soinua jotzen ikasi zuen Felisak artzain zebilela. Gustuko zuen soinua jotzea. Arantzazura eta Urbiara joaten ziren jaietan. Hara joateko, lagun-taldean joaten ziren.

33. Errazionamenduko ogia txakurrarentzat (ATA-007/037)

Errazionamendutik jasotzen zutena txakurrari ematen zioten, gogorra eta bel-beltza baitzen. Beraiek etxean egiten zuten ogia. Janaria soberan edukitzen zuten.

34. Mezara joateko bidea (ATA-007/041)

Neguan elizara joateko, lastoari su eman eta haren argitan joaten ziren. Bidean batzuetan banaka eta bestetan 2-3 laguneko taldean joaten ziren.

35. Erreterian neskame ibilitakoa (ATA-007/044)

16-17 urte zituela, Erreteriarra joan zen neskame. Han ez zuen denbora asko pasa, etxera itzultzeko eskatu baitzioten. Tabernan egiten zuen lan: etxeko lanak egiten, zerbitzatzen...

36. Eskolan gaiztakeria asko, ikasi gutxi (ATA-008/002)

Zazpi urterekin hasi zen eskolan, baina bi hilabetez joaten zen urtean. Bere kasa ikasi zuen ikasi beharrekoa. Orduko gaiztakeriak kontatzen ditu.

37. Apaizaren zigorrak (ATA-008/003)

Apaizak egunero harri kozkorren gainean jarrarazten zituen belauniko, euskaraz egiteagatik. Gogoan du eskolan zegoela, bi gizonak ikurrinari su eman ziotenekoa. Dotrina esaterakoan hanka sartu zuenez, zaplaztekoa eman zion apaizak.

38. Astoarekin larri (ATA-008/004)

Astoarekin pasatutako larrialdiak kontatzen ditu. Behin astoa erori egin zitzaion eta beste behin guardiek artoa eta garia kendu zizkieten. Guardiek janaria lapurtzen zuten etxeetatik.

39. Zozo-habien bila (ATA-008/005)

Zozo-habien bila joatea zuen gustuko. Zozokumea ekarriz gero, aitonak hamar zentimo ematen zizkion.

40. Gerra garaian, gizonak kobazuloetan izkutatuta (ATA-008/006)

Anai zaharrena frankistek gerran hil zuten. Ahizpa zaharrena gazterik hil zen. Aita eta beste batzuk malloetako zuloetan izkutatuta egoten ziren eta janaria eramatera joaten zen bera. Hegazkinekin ikaratu egiten zen. Osaba hil egin nahi izan zuten baina ez zuten harrapatu.

41. Urrea mendian (ATA-008/007)

Bere aita zenak urrea non zegoen esaten zuela gogoan du. Meatzeak egiten hasi zirenekoa kontatzen du.

42. Dantzazalea (ATA-008/009)

Eskusoinuarekin dantzan aritzen ziren, soltean eta helduta. Ezagutu eta bi urte eta erdira ezkondu ziren. Berak ez zeukan ezkontzeko presarik. Ez zuten makillajerik erabiltzen. Ilea zaintzen zuten; permanentea egiten zuen.

43. Baserritik kalera bizitzera, gustura (ATA-008/010)

San Gregoriotik San Martinera joan ziren bizitzera. Kalera gustura jeitsi zen. Baserrirako aldapa handia zegoela eta animaliak bezala lanean ibili beharra izaten zela dio. Baratzea eta animaliak bazituzten kaleko etxean ere. Bilobak zaintzeagatik baratzeari utzi egin zion.

44. Ataungo eta Gaintzako hizkera (ATA-008/011)

Ataunen eta Gaintzan desberdin esaten diren hitz batzuk aipatzen ditu. Herri bakoitzean bertako hizkera erabiltzen du. Bi hizkeren artean aldea dagoela dio.

45. Ezkutuan oilaskoa jaten (ATA-008/012)

Umea jaiotzen zenean, hogeita lau ordu bitartean, umeari amak ez besteren batek ematen zion bularra. Pasarte bat kontatzen du, amonak, aitonak eta alabak oilaskoa ezkutuan jan zutenekoa.

46. Alabetako baten jaiotza (ATA-008/013)

Joxepaz erditu zenekoa kontatzen du. Behiak kolpea eman eta hurrengo egunean jaio zen alaba, Martina ikatzetara zihoala, bidean. Medikiak hika

egiten zion. Umeari ebakuntza egin zioten eta ospitalean luzaroan egon zen. Erdaraz hitz eginez itzuli zela etxera kontatzen du. Bizimodu gogorra izan zuela kontatzen du.

47. Jaio orduko baiatu eta ama teila buruan hartuta (ATA-008/014)

Umeak jaio orduko bataiatzen zituzten. Elizan sartu aurretik, emakumeak teila buruan hartuta ibiltzen ziren, kalera irtenez gero. Bere seme-alaben ama-puntako eta aita-puntakoen kontuak aipatzen ditu.

48. Umeei bataiatzerakoan gatza janarazi (ATA-008/015)

Bataioa elizako ate ondoko harraskan egiten zuten. Umeak bataiatzerakoan, gatza janarazten zien apaizak eta burutik behera bota ura.

49. Bere jaunartzea, maiatzeko loreak eta Corpus eguna (ATA-008/016)

Umea bataiatu eta hilabetera, festa egiten zuten. Ez zieten oparirik ematen, ezta jaunartzeetan ere. Soineko loratuarekin eta zapata zuriekin egin zuen jaunartzea. Maiatzeko loreak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Corpus egunean larrosak botatzen aritzen ziren.

50. Telebista ikusteagatik kobratu (ATA-008/018)

Irratia ezkondu eta gero ezagutu zuen, telebista beranduago. Irratitik soinua entzuten zuten. Ataunen telebista lehenbizikoz jarri zuenaren etxera jende asko joaten zenez, ogerlekoa kobratzen hasi ziren.

51. Taloa nola egin (ATA-008/019)

Amarik ez baina ahizpak zeuzkan. Taloak egiten beste bati begiratuta ikasi zuen. Taloa nola egiten den azaltzen du. Su baxuan talo-burnietan erretzen zituzten. Taloak mantenduz gero, esnetan beratuta jaten ziren.

52. Ogia etxeko labean (ATA-008/020)

Ogia etxean egiten zuten. Hazgarria dendatik ekartzen zuten. Labean harrotzen ziren. Erratz handi batekin garbitzen zuten labea. Artoa labean lehortzen zuten eta haiek biltzeko sartu zen behin barrura.

53. Ogiarekin lotutako ohiturak (ATA-008/021)

Ogiari labanarekin marrak egiten zizkieten, barrukoa hobeto egiteko. Jaten hasterako ogiari gurutzea egiten zioten eta lurrera eroriz gero, musu emanda jaten zuten.

54. Erramua, eguzkiloa eta lizarra atean (ATA-008/022)

Ateetan eta soroetan erramua jartzen zuten, gurutzeak eginda. Eguzkiloak atean jartzen zituzten, sorginik ez arrimatzeko. San Juanetan lizarra jartzen zuten eta sua egiten zuten. San Juan eguna garai batean jai izaten zen.

55. Konfesatzea txorakeria (ATA-008/025)

Mariaren Alabak kongregazioan zinta urdinak izaten zituzten, eta haiek jantzita jauna hartzen zuten Amabirjinaren egunean. Umetan konfesatzera baino lelokeriak esatera joaten zirela dio. Apaizak mutilekin ibiltzen ote ziren galdetzen zien; apaizak mutilekin ikusiz gero, zaplasteko bana ematen zien.

56. Aste Santuko ohiturak (ATA-008/026)

Aste Santuan, ostiral santuan, ia baraurik pasatzen zuten eguna. Gurutzea jartzen zuten elizan eta bakoitza ordubete egoten ziren belaunikatuta, txandaka, emakumeak egunez eta gizonezkoak gauzez. Aldareak beltzez jartzen zituzten eta ez zen muskarik egoten. Misioak egitera etortzen ziren apaizak. Apaizek gauza bat esan eta bestea egiten zutela esaten du, ongi jaten zutela.

57. Apaiza bidean tokatuta, errezoak, gurutzea eta muin eman beharra (ATA-009/002)

Apaiza bidean tokatuz gero, "Ave Maria purisima" esan behar izaten zioten. Ez esateagatik, ezkutatu ere egiten ziren. Eskuan muin eman eta gurutzea egitera behartzen zituen apaiz batek.

58. Apaiza eta apaiz-mutila herrian zehar eta baserrietan (ATA-009/004)

Norbait hiltzen zenean, apaiza eta apaiz-mutila ibiltzen ziren herrian zehar, eta parean tokatuta, belaunikatu egin behar izaten zuten. Apaiz-mutilak eskean ibili behar izaten ziren baserri baserri.

59. Mutilak karrakak joz, Ostiral Santuan (ATA-009/005)

Elizan bedeinkatzen zituzten erramua eta makilak. Prozesioa egiten zuten erramuekin. Mutilak karrakak joz ibiltzen ziren, eliza barruan, eta harekin jo egiten zituzten buruan, Ostiral Santuan.

60. Sakamantekas, Bartzelonatik etorritako gizonak (ATA-009/007)

Sakamantekasi beldur izaten zioten. Gizonak kotxearekin goxokiak eskaintzen ibiltzen zirela dio, umeak hartu eta eramateko. Berak ikusi zuenean, korrika alde egin zuela kontatzen du. Gizonok Bartzelonatik etortzen zirela dio eta umeei kendutako organo eta gantzak zaharrei ematen zizkietela. Azkenean mediku bat harrapatu zutela dio.

61. Sorginek botika hartu eta animalia bihurtu (ATA-009/009)

Errekan sorginek zintzarriak jotzen zituzten. "Ez zirela eta bazirela ez omen da esan behar", dio. Osabari azaltzen zitzaizkion sorginak eta liburua zabaldutakoan aldegitzen zuten. Izebari zakur zuri batek jarraitu ziola dio; sorginak botikaren bat hartuta animalia bihurtzen zirela kontatzen du.

62. Sorgin bihurtu eta edozein kalte egin (ATA-009/010)

Sorginek umeak eramaten zituzten baina bueltan ekartzen zituzten. Bi lagun artean gorrotoa bazen, bata sorgin bihurtu eta besteari edozer egin ziezaiokeela dio. Sorgin bihurtuta, neskei edozer gauza egiten zirela azaltzen du. Sorginak botika hartu eta animalia bihurtzen zirela kontatzen du.

63. "Gauekoak gauekoentzat..." esaera; Kattalini gertatutakoa (ATA-009/014)

"Gauekoak gauekoentzat, egunekoak egunekoentzat, eta Ostokoizko Kattalin guretzat" esan omen zuten eta baserri hartako neska ez omen zen gehiago azaldu. Kattalin izena zeukala eta Gaintzakoa zela dio. Neska ederra zela dauka gogoan.

64. Umetatik lanean; baserriko tresnak (ATA-010/002)

Umetatik lanean. Aitzurrean egin, baba handiak... Dirua falta zuten. Lehen baserritarra orain baino okerrago bizi zela dio. Baserriko tresnak aipatzen ditu. Kablean belarra lotua, mandioraino.

65. Apaizak agintzen zuen; ezkutuan dantzan (ATA-010/003)

Inuzenteak dela dio, gero espabilatu zirela pixka bat. Apaizak agintzen zuen. Kontrolatu egiten zituen apaizak paseatzera joaten zirenean. Ezkutatu egiten ziren. Dantzan, ibai bazterrean, jai arratsaldetan. Ez zen musikarik egoten, jaietan ez bazen. Neska-mutilak denak elkarrekin, adin askotakoak lagun.

66. Neska laguntzea; bezperak (ATA-010/004)

Neska laguntzean mutilak zintzo ibiltzen ziren. Pikardiarik gabe. Bezperetara ez baziren joaten, bikarioak errieta egiten zien; amak ere egurtu, igual. Elizaren indarra.

67. Elizara joatea obligazio; otoitzak eta dotrina (ATA-010/006)

Elizarako bidean ordu erdi, baina obligazioa zen elizara joatea orduan. Ilunpetan joaten ziren, farolarekin. Ilobak esaten diona aipatzen du. Kredoak eta salbeak amak erakusten zizkien, apaizak ere bai. Dotrina, euskaraz. Jaunartzea. Eskolan erdaraz. Ez daki nola konpontzen ziren.

68. Hamar urterekin neskame Beasainera (ATA-010/007)

Beasainera joan zen neskame. Ez ziren iluntzetan ateratzen, bekatua zelako. Dena bekatu. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten zituen. Hamar urterekin joan zen, baina beldurrik ez zuen orduan.

69. Beasainen neskame; trenari begira (ATA-010/009)

Iluntzetan neskek ez zuten ateratzerik. Neska bihurriak bakarrik ibiliko ziren kalean. Beasainen umeekin ateratzen zen paseatzera, eta trena ikustera joaten ziren. Gauza handia iruditzen zitzaion trena, Ataunen ez zegoelako. Errepidera joaten ziren autobusa pasatzen ikustera.

70. San Gregorioko festak; orduko jan-edana (ATA-010/011)

Ataungo festak ziren dibertsiorik handiena. Gozozaleak, pilota partida... Etxean egiten zen festa, jan-edana. Zopa eta garbantzia, haragia eta gogortutako arroz-esnea. Gaur ez luke jango. San Gregoriokoek Aiakoekin eta San Martingoekin zuten harremana.

71. Errekan arrantzan, umetan (ATA-010/013)

Hanka hutsik ibiltzen ziren errekan. Bainujantzirik ez zuten. Sardexkarekin harrapatzen zituzten "maskarrak"; ez zen jatekoa. Eskailoak, sarearekin. Amuarrainik harrapatzerik ez zeukaten, mutilek bai. Zapaburuekin jolasean.

72. Umetako jolasak; tabak (ATA-010/014)

Umetako jolasak. Belarrekin janaria prestatzen. Oraingo umeek ez dakite jolasten. Txingotan. Gutxirekin entretenitzen ziren. Ezkutaketan. Beldurrik ez edadeko mutilei. Tabak, tximiniako paperetan bilduta.

73. Pilota ez zen neskentzat (ATA-010/016)

Pilotan jokatzeko zuten, baina apaizak esaten zien hori ez zela neskentzat. Baloia, trapaarekin egina. Esana betetzen zuten, apaiza begira bazegoen.

74. Mutil-lagunari besotik heltzea ere bekatu (ATA-010/018)

Nobioa topatu zuenean ere, argitan paseatu behar zen. Besotik heltzea bekatua zen. Mutilak nola ezagutzen zituzten. Mutilak eskatzen zuen nobio izateko. "Aimaritakoa" jotzean etxera.

75. Ezkondu arte, paseoa (ATA-010/019)

Nobioarekin paseatu egiten zuten, besterik ez zegoen. Ez ziren apaizarekin akordatzen halakotan. Norberak ikusten zuen zenbat urtean ibili, ezkondu aurretik. Nobio bat baino gehiago izatea ez zen normala. Lehenengoa, betiko.

76. Ezkontzea erabakiz gero, apaizarengana (ATA-010/021)

Mutil ona bilatzen zuten, formala. Beste bati gerritik heldu ziola entzuten bazuten, ez zuten sinesten. Denak hasten ziren norbaitekin. Ezkontzea erabakitakoan, apaizarengana. Hark egiten zituen galderak. Infernua.

77. Ezkondu gabe umea izatea; Fraisoro (ATA-010/022)

Ezkondu gabe haurrak izandako neskek ere baziren, baina isilpean konpontzen zituzten halakoak. Fraisorora eramaten zituzten umeak. Ondo tratatuko zituzten familiak bilatzen zizkieten han.

78. Ezkondutakoan, lehen umea lehenbailehen (ATA-010/024)

Ezkondu ondoren aspertu gabe jolasten zuten, baina umerik ekarri gabe. Tranpa hori bazekiten lehen ere. Aurreneko umea segituan, emakumeak balio zuela ikusteko.

79. Umeak, herriko medikuarekin; bataioa (ATA-010/026)

Umeak nola izaten zituzten, herriko medikuarekin. Ez zuten beldurrik izaten umea gaizki etortzeko. Lehen erditzea ondo joanez gero, hurrengorako lasai. Umea segituan bataiatzen zuten, lehenengo jaian. Linboa. Ama ez zen joaten bataiora.

80. Bataioa eta elizan sartzea (ATA-010/027)

Bataioa nolakoa zen. Umea dotore jarri, eta ama pontekoak eramaten zuen. Aita pontekoak eusten zuen umea. "Elizan sartzea": oiloa eramaten zioten apaizari.

81. Zerua eta infernua (ATA-010/031)

Umetan erakutsi zieten zerua bazela eta infernua ere bai. Oraingo gazteek ezetz diote, baina berak baietz uste du. Infernua nolakoa den: sua, etsaia... bekatariak kalderan erretzen. Zerua nolakoa den. Konfesioa.

82. Jauna hartzea, baraurik (ATA-010/033)

Hamabostean behin konfesatzera. Urrik ere ezin zuten edan Jauna hartu aurretik. Orain bai. Ahoa zabaldu gabe garbitzen zuten aurpegia, ahoa ez bustitzeko.

83. Bedeinkatutako erramua, gurutzeak eta lur-sailak (ATA-011/003)

Erramu egunean erramu adar handiak elizara eramaten ziren bedeinkatzera. Haren makilarekin gurutzeak egiten ziren eta, bedeinkatu ostean, soroetan jarri, harria egiten zuenean zortea emateko eta hango gaiak ez hondatzeko. Ganbaran edo ukuiluan ere jartzen ziren gurutzeak. Apaizak lur-sailak bedeinkatzen zituen eta trukean arrautzak eta lukainka ematen zitzaizkion. Kandela bedeinkatuaren tantak nola botatzen ziren, kredoa errezatuta. Bedeinkatutako erramua gorde egiten zen eta, ekaitza zenean, sutan erre.

84. San Juan loreen ura, hildakoak garbitzeko (ATA-011/004)

San Juanetako ohiturak. San Juan loreak hildakoak garbitzeko, uretan berotu eta haren saldarekin. Amak gorde egiten zituen, lehortuta.

85. Hildakoa etxean edukitzen zen; garai bateko ohiturak (ATA-011/005)

Garai batean hildakoa etxean edukitzen zen. Gauean arrosarioa errezatzen zen. Abisua ematen zen etxeetara. Ogia eta ardoa ematen zitzaien etorritakoei. Erramuarekin eta ur bedeinkatuarekin gurutzea egiten zen. Gaur egun hildakoak gaizki tratatzen direla uste du.

86. Gorpua bizkarrean eramaten zen elizara (ATA-011/006)

Gorpua bizkarrean eramaten zen elizara, lau gizonen artean. Senideak edo auzokoak izaten ziren. Hilkutxa kanpotik ekartzen zen.

87. Apaizak ez ziren gaizki bizi (ATA-011/008)

Hiru mailatako hiletak egoten ziren. "Primera"ko meza garestiagoa zen eta apaizak gehiago kobratzen zuen. Apaizak eta fraideak antzekoak direla dio, tontotik ezer ez. Arantzazun fraide batek meza-diruarekin egindakoa. Apaizen inguruko hainbat kontu pentsatu arren, ez zuten ezer esaten, kontakatiluren batek beraiei esateko beldur. "Mingañe bustie daukenekin kontuz: aindu asko baiño eman gutxi".

88. Euskara indartuta (ATA-011/013)

Tolosako euskara polita iruditzen zaio, Ataungoa baino politagoa. Euskara erabat bajatuta egon zela, baina orain indarrean dagoela dio. Diruak izango zuela zerikusia uste du.

89. Martin maisu karlista (ATA-012/004)

Eskolako kontuak. Martin maisua. Karlista zen. Bandera hori-gorria pintatzeko esaten zien.

90. Bere kabuz ikasi zuen irakurtzen eta idazten (ATA-012/007)

Eskolan zer ikasten zuten. Eskolara joaterako bazekien irakurtzen eta idazten. Bere kabuz ikasi omen zuen.

91. Amak bertso zaharrak irakurtzen zituen (ATA-012/009)

Etxean amak irakurtzen zuen eta berari ere beti asko gustatu izan zaio. Bertso zaharrak irakurtzen zituen amak. Aita artzaina zen eta bera ere ibiltzen zen lan horretan.

92. Erreka txikietan karramarroak harrapatzen (ATA-012/010)

Umetan karramarroak harrapatzen zituzten eskuz erreka txikietan. Gaur egun jada ez dago. Karramarroak egosi eta jan egiten zituzten gero.

93. Haragia gazi-kutxan kontserbatzen zen (ATA-012/016)

Aitak 150 ardi inguru izaten zituen. Nahikoa zezina izaten zuten. Orduan ez zegoen hozkailurik baina gatzarekin kontserbatzen zen haragia, gazi-kutxetan.

94. Aita garraiorako kableak ipintzen (ATA-013/003)

Aita Nafarroan ibiltzen zen kableak muntatzen, Iratitik egurra jeisteko, Iruñeako enpresa handi batentzat. Aita gaztetan hasi zen eta bera ere bai. Ataunen jartzen zituen kablerik gehienak, belarra jeisteko.

95. Belarra jeisteko kable sistema nolakoa zen (ATA-013/004)

Belarra jeisteko kableek zortzi milimetroko diametroa izaten zuten. Luzera, behar zutena izaten zuten. Belarrarentzat erabiltzen zuten Ataunen, zelaietatik baserrietara eramateko. Karga bi sokarekin lotu, txirrikara kateatu eta hala jeisten zuten belarra. Beheko aldean motorra ipintzen zioten, bi bolante ere bai.

96. Kable sistema nolakoa zen (ATA-013/005)

Belarrarentzat kable bakarra erabiltzen zen. Soka eta txirrika izaten zituen kableak kateatuta. Astoekin eramaten zituzten txirrikak-eta gora. Motorrak kablea mugiarazten zuen. Gurdian kableak eramaten zituzten.

97. Mendiko egurretarako kable sistema nolakoa zen (ATA-013/006)

Mendiko kableak nolakoak ziren azaltzen du. Lau kable izaten ziren, eta beste bat bolanteetan ibiltzen zena. Haiei ere motorra jartzen zieten. Egurra bi katerekin lotzen zuten, zintzilikatzeko. Egurra kargatzen hiru lagun inguru egoten ziren.

98. Egurretik alkohola eskuratzen zuten (ATA-013/007)

Menditik egurra jeitsitakoan, kamioira kargatzen zuten. Uztarrozeko Irati lantegira eramante zuen egurra kamioiak. Alkohola eskuratzen zuten egurretik eta ondoren, sutarako erabiltzen zen.

99. Kableak zatika ipini eta elkarri lotu (ATA-013/011)

Kableak mandoarekin jasotzen zituzten gora. Zatika jasotzen zituzten kableak eta gero zatiak elkarri lotzen zizkieten. Puntak barrura sartzen zituzten.

100. Ataungo baserri ia denetan kablea (ATA-013/012)

Belarretako kableak goitik behera jartzen zituzten. Frenorik ez zuten izaten. Kablea han geratzen zen, behin jarritakoan. Baserri ia denetan zegoen kablea Ataunen. Kargak goitik behera eramateko balio zuten kableek.

101. Ekaitza bazen, kableekin ibiltzea arriskutsua zen (ATA-013/014)

Tximistekin arriskua izaten zuten. Behin gertatu zitzaiona kontaktzen du. Kableak altzairuzkoak izaten ziren eta nonbait ekaitza bazen, nabaritu egiten zuten. Ekaitza bazen eta belarretan bazebiltzan, etxera joaten ziren.

102. Victoria Eugenia erreginari kable sistema gustatu (ATA-013/018)

Victoria Eugenia erreginak aitagatik galdetu zuen, kableen sistemarekin liluratuta. Aita Sevillara joan zen baina ez zuen ezer muntatzeko aukerarik ikusi.

103. Mendiko kableak jartzeko prozesua (ATA-013/022)

Mendiko kableak jartzeko prozesua azaltzen du. Mandoen gainean kableak igotzen zituzten. Kableak ireki eta ondoren elkarri lotzen zizkieten. Gero, puntak barrura sartzen zituzten. Azkenik, sistema martxan jartzen zuten. Bolantearekin manejatzen zuten.

104. Lana egunero eta lotarako txabolak (ATA-013/023)

Lana egunero egiten zutela dio, jaietan ere bai. Mezetara joaterik ez zuten izaten. Nafarroan lau edo bost tokitan izaten zituzten kableak ipinita. Lotarako egurrezko txabolak izaten zituzten.

105. Kotxea gasogenoarekin (ATA-013/028)

Ez dauka gogoan bere kotxearen marka. Gasogenoarekin zebilen kotxea zeukan. Ikatza izaten zuen leku batean eta su ematen zitzaion beste aldean. Funtzionamendua azaltzen du. Mendiko kableen motorrak gasolinarekin ibiltzen ziren. Ataunen kotxe bakarra aitak zeukan.

106. Etxerainoko porlanezko bidea, etxeok egina (ATA-013/029)

Autoentzako bideak txarrak zirela dio. Baserritik bidera hirurehun metro inguru zeuden. Etxerainoko errepidea etxeok beraiek egin zuten. Porlana erabili zuten.

107. Musikari formalak eta ez hain formalak (ATA-014/014)

Inguruko txistulariei buruz hitz egiten du. Txistulariek formal-ospea zuten; soinu-jotzaileak eta bertsolariak, ordea, etxe-galgarriak omen ziren.

108. Dantza lotuarekin, alkatea haserretu (ATA-014/016)

Ataunen ezin zen dantza lotua egin; baina behin dantza lotua egin zuten denek; eta, orduan, alkateak bandari ordaindu, eta herritik bidali zituen.

109. Gerra hasiera eta orduan etorritako zorigaiztoak (ATA-014/021)

Hamar urte zituela hasi zen gerra. Gogoan du hasiera nola izan zen: pulpitutik eman zuten nafarren etorreraren berri. Orduko ihesaldiari, tiroei, zaurituei... buruz hitz egiten du. Belaunaldi gazteenetako mutilak gerrara eraman zituzten. Hainbat gaztek denbora luzea eman zuten militar gisa.

110. Gerra aurreko hauteskundeak eta makiak (ATA-014/022)

Gerra aurreko hauteskundeetan izandako gorabeherak kontatzen ditu. Makien bila ibiltzen zireneko kontuak gogoan ditu.

111. Ibiltzeko baimenaren inguruko komeriak (ATA-014/025)

Garai hartan, baimena behar zen batetik bestera ibiltzeko, eta behin izandako komeriak kontatzen ditu.

112. Gerraosteko otorduak (ATA-014/027)

Gerraostean, baserrietan, ogia jateko irina bazeukaten; baina kalean okerrago pasa zuten. Orduko otorduei buruz hitz egiten du.

113. Patataren etorrera (ATA-014/030)

Lehen patata lur txarrenetan egiten zuten beraiek. Lehen patata ez zen egiten Ataun inguruan.

114. Mahoizko galtzen moda (ATA-014/032)

Izebak josten zizkien arropak. Mahoizko galtzak izaten zituzten orduan; nolakoak izaten ziren azaltzen du.

115. Galtzerdiak lehortzeko sistemak (ATA-014/033)

Lehengo oinetakoak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Galtzerdiak bustitzen zitzaizkienean, su gainean jartzen zituzten lehortzeko, eta gogor-gogor egoten ziren hurrengo egunean.

116. "Pues" esaten baino ez zekien erdaraz (ATA-014/038)

Euskaraz aritzea debekatuta zegoen, baina beraiek ez zekiten erdaraz. Eskolan ez zuten ezer ulertzen, dena erdaraz baitzen. Fabrikan lanean hasi zeneko anekdota kontatzen du.

117. CAF errepublika garaian (ATA-014/040)

CAFeko langile asko kanpokoak ziren; baina bazeuden inguruko herrietatik etorritakoak ere. Errepublika garaian, CAFen kaleratzeak egon ziren; orduko kontuak kontatzen ditu.

118. Maiorazkoa ala fabrikako lana? (ATA-014/043)

Maiorazkoa zuenak, garai batean, erraztasun gehiago zeukan ezkontzeko. Gerora, ordea, gauzak aldatu egin dira, emakumeek nahiago baitute kalean bizi.

119. Bere bertso bat (ATA-014/045)

Berak asmatutako bertsoa abesten du.

120. Zapiak, orduko painalak (ATA-015/003)

Orduan zapiak ipintzen zitzaizkien umeei pixoihal gisa. Nolakoak ziren eta nola jartzen zitzaizkion. "Paxea", "mantea" eta abar. Berak ere hala hasi zituen bi zaharrenak. Eskuz garbitzen ziren.

121. Umezain etxetik kanpo (ATA-015/004)

Hainbat lekutan ibili zen umezain: Ataunen bertan, Lizartzan, berriz ere Ataunen... Azkenengo lekuan 14 urte pasatu zituen, eta lau ume hazi zituen.

122. Ataungo auzoen arteko pikeak (ATA-015/008)

San Martinekoek "señorito" fama omen zuten, San Gregoriokoek harroxko fama. Auzoen arteko pikeak; San Martin, San Gregorio, Aia, Ergoiena... Hizketan ere ezberdin egiten da auzo bakoitzean.

123. San Gregorioko festak (ATA-015/009)

San Gregoriorako joera zuen jendeak erromeriarako. San Martin "ziudadea" omen zen. Herriko festetan ere garaiz etxeratzen ziren, ez ziren gaueko erromeriara geratzen.

124. Guardiaz zibilak dantzaldia eten lotuan ari zirelako (ATA-015/011)

Dantza soltean egiten zen. Behin Beasaingo banda etorri eta lotua jotzen hasi zen, baina Guardia Zibilak parte hartu eta dantzaldia desegin zuen. San Gregorioko bikarioa oso gogorra omen zen. Ergoiengo neskak Mariaren Alabetatik bota zituen dantza lotuan egitearren.

125. Neskak dantza lotuan ezkutuko lekuan (ATA-015/012)

Sekula ez du egin lotuan dantzarik. Auzoan baziren neska batzuk elkarrekin lotuan ibiltzen zirenak erdi ezkutuan.

126. Mutilak "faborez" eskatzen dantzan sartzeko (ATA-015/013)

Dantzari onak eta ez hain onak egoten ziren. Mutilak "faborez" esanez sartzten ziren dantzara. Festen bigarren egunean pasatzen zuten ondoen.

127. Neska-laguntzea eta guraso estuak (ATA-015/014)

Neska-laguntzea egiten zen erromeria ondoren. Nola izaten zen hori. Hortik bikoteak sortzen ziren. Neskak ez zuten ekimenik. Goiz erretiratu behar izaten zuten. Zain egoten ziren arrosarioa esateko. Gurasoak oso estuak ziren.

128. Modako arropa berria ahizparen laguntzaz (ATA-015/015)

Arropa berria egiten zuten egun seinalatuetarako. Modako arropa, ona. Bera neskame egon zen, eta baserriko ahizpak laguntzen zion diruz arropa berria egiten. Oso gutxi irabazten zuen neskametzan.

129. Luistarrak jauna hartzen Kontzesio Egunean (ATA-015/017)

Gogoan du nola soldadutzatik etorritako Luistarrak denek batera jauna hartzen zuten Kontzesio Egunean, beren zinta eta guzti.

130. Ilea apaintzen (ATA-015/019)

Ilea kizkurtu egiten zuten egun handietan apaintzen zirenean. "Rizadoreak" nolakoak ziren. "Permanentea" ere asko egiten zen, baina berak ez zuen ohiturarik. Ondak nola egiten ziren. Ilea horitzeko garagardoa edo kamamila erabiltzen zuenik ere ba omen zen.

131. Soineko berria eta berokia (ATA-015/021)

Festetarako egiten zuten soineko berria eta berokia San Martinetarako. Aste Santurako ez zen hainbeste prestakuntza egiten. Dena dela, prozesioetara dotore joaten ziren.

132. Bi plantxa mota (ATA-015/022)

Plantxa elektrikoak zein bestelakoak ezagutu ditu. Ikatzaz brasa eginda berotzen ziren plantxa zaharrak.

133. Garbigailuari ezetza eman zion (ATA-015/023)

Neskame zegoen lekuan garbigailua erostea proposatu zioten Luisari, baina ez zuen nahi izan; nahiago izan zuen eskuz garbitzen jarraitu. Nola garbitzen zuen arropa.

134. Harizko arropa hobea garbitzeko (ATA-015/025)

Harizko arropa erabiltzen zen orduan. Amona haria egindakoa zen. Aitak ere egiten zuen, baina artilez. Harizko izarak errazago garbitzen dira.

135. Koltxoiak artilez egiten (ATA-015/027)

Koltxoiak artilez egiten ziren. Orduan estimazio handia zuen artileak. Beratu eta garbitu egin behar zen. Ezkontzen aurretik nabarmena izaten zen artile mugimendua baserrietan.

136. Somierra edo lastaira (ATA-015/028)

Koltxoiaren estalkia. Urtero artilea atera eta jo egiten zen harrotzeko. Somierra edo lastaira arto-txurikinezkoa izaten zen.

137. Sexu-heziketarik ez (ATA-015/031)

Ez zuten sexuaz edo umeen jatorriaz hitzerdirik entzuten gurasoen ahotik. Dena kanpotik jakin zuten.

138. Bataioa eta "elizan sartzea" (ATA-015/032)

Bataioa berehala egiten zen. Ama handik hamabost egunera-edo joaten zen elizara, "Elizan Sartzea" egitera. Atarian errezu batzuk egiten zituen apaizak. Meza ondoren opariak eramaten ziren apaizetxera. Oiloa eta erregaluren bat eramanda dago behin edo berriz Luisa. Elizan sartu aurretik ezin zuen ama berriak etxetik irten.

139. Erditutako amari bisita auzoko andreek (ATA-015/033)

Haurra izandako amari bisita egiten zitzaion. Jateko eta edateko zerbait eramaten zen eta merienda egiten zuten auzoko andreek. Batek ardo mindua ekarri ohi zuen.

140. Janari-dendako gorabeherak (ATA-015/036)

Azukrea, kafea, ardoa, abarketak... saltzen ziren dendan. Kilo laurdenka saltzen zen produktu asko. Pisu gorabeherak.

141. Bi janari-denden arteko kompetentzia (ATA-015/038)

Bi denda zeuden orduan Ataunen. Lehia handia izaten zuten. Jabeek begi txarrez begiratzen zieten beste dendan sartzen zirenei.

142. Baserritarren sindikatua (ATA-015/040)

Baserritarren sindikatuan zegoen San Isidroren irudia harrapatu egin zuten soldadu nafarrek. Sindikatua zer den.

143. Nazionalistak eta karlistak lehian (ATA-015/042)

Baserri handiak zeuden batez ere ermandadearen barruan. Aitonari isuna jarri zioten nazionalista izateagatik Francoren tropak sartu zirenean. Ermandadekoak nazionalistak omen ziren. Borroka latzak izaten ziren nazionalisten eta karlisten artean.

144. Ilea moztu Ataungo neska bati zigor gisa (ATA-015/043)

Francotarrak sartu zireneko gorabeherak. Neska batek erantzun egin zien soldaduen "¡Viva!" oihuei, eta zigor gisa ilea moztu zioten. Gero paineluz burua estalita ibiltzen zen.

145. Lau abizenak Zurutuza (ATA-015/045)

Ataunen abizenak asko errepikatzen dira. Bertakoak bertakoekin ezkontzen zirelako izango da. Lehengusuen arteko ezkontzak ere izaten ziren. Beren aldameneko baserrikoek lau abizenak Zurutuza dituzte.

146. Erreka garbi-garbian etxe bakoitzak bere jetsaroa (ATA-016/006)

Hautzaroa eta gaztaroa etxe inguruan pasatu zituen. Erreka ederra zeukaten orduan, garbi-garbia. Arropa zuriak errekan akklaritzen zituzten, aulkitxoan belauniko jarrita. Barrinoian eramaten zituzten arropak. Jetsaroa zeukan etxe bakoitzak errekan, jeisteko lekua.

147. Artoa eta indaba nola ereiten zituzten (ATA-016/009)

Babarruna artoarekin batera ereiten zuten. Lau arto ereiten zituzten, karratu baten eran jarrita, eta erdian indaba ale bi jartzen zituzten. Orduko artoa motza izaten zen, eta gorria. Santiagoko inguruan garea kentzen zioten. Arto hura hobea zela dio. Aldapa zegoen lekuan, lehenengo artoa ereiten zuten "harrika" eta hura hazita zegoela, indaba.

148. Artoa erne orduko, jorratu (ATA-016/010)

Errenkadak egiteko tresna erabiltzen zuten idiekin, sorotan ilarak markatzeko, eta gero artoa ereiten zuten. Traktorearekin ibiltzen ziren gero. Erne orduko, aitzurrarekin jorran aritzen ziren, ahal zela eguzkitan.

149. Soroko txandakatzea: artoa, garia, arbia (ATA-016/012)

Santiago aldean, artalorea kendu egiten zioten, haizearengatik. Abuztu-irail aldera indaba biltzen hasten ziren. Urte batean artoa egindako lekuan, garia egiten zuten hurrengoan; garia egindakoan, berriz, ondoren, arbia. Hura ere jorratu egin behar izaten zuten, bakantzeko.

150. Umetan mutilak galtza motzetan eta neskak gonarekin (ATA-016/013)

Umetan, lanean aritzearren suminduta ibiltzen ziren, hotzarengatik. Mutikoak galtza motzekin ibiltzen ziren urte osoan, eta neskak gonarekin. Esportak erabiltzen zituzten, belaun azpirainoko galtzerdiak. Berak egiten zituen.

151. Haziak etxean egiten zituzten (ATA-016/014)

Soroko lana gustoko zuen, baina etxean nahiko zeregin izaten zuen, baita baratzean ere. Aitak etxean egiten zituen haziak, oso baratzezalea zen, eta bera ere zalea da. Tomate hazia etxean egiten du; nola biltzen eta gordetzen duen dio.

152. Porru hazia bildu eta gorde (ATA-016/015)

"Porru haziak egin ditut" esaeraz hitz egiten du. Porru hazia nola biltzen eta gordetzen duen kontatzen du. Haziak trukatzeko ohitura zeukan beraien amak.

153. Patatak luberria nahi (ATA-016/016)

Lehenago ez zen patatarik jaten, sororik txarretan jarrita ez bazen. Sasia garbitutako lekuan, mendian, patata egiten zen. Hori gustatzen zaio patatari, luberria. Aitak Arabatik patata ekarri zueneko kontatzen du.

154. Manteka edo karea arrautzak mantentzeko (ATA-016/018)

Etxean txerria hiltzen zuten urtean behin. Oilaskoak azokan saltzen zituzten. Manteka edo karea erabiltzen zuten arrautzak mantentzeko, ez baitziren urte osoan izaten.

155. Urdaiazpikoa eta solomoa nola kontserbatu (ATA-016/019)

Artoa eta garia mantentzen zuten. Urdaiazpikoa ahalik eta gatz gutxienarekin egiten zuten; prozesua azaltzen du. Solomoa ere antzera egiten zuten. Gatzarekin oinetarako bainuak egiten zituzten. Euliak ez jotzeko, hauts bat botatzen zioten.

156. Arroz esnea eta sagar erreak (ATA-016/020)

Arroz esnea jaten zuten postre berezi modura. Errezeta ematen du. Sagar asko izaten zituzten eta labean erreta jaten zituzten. Horren errezeta ere ematen du.

157. Sagarrondoak nola txertatu (ATA-016/022)

Sagarrondoak nola txertatzen diren zehatz azaltzen du. Erretxina eta seboa urtuta erabiltzen zituzten txertaketarako.

158. Elorri zuriari mizpira txertatu (ATA-016/023)

Elorri zuritik etortzen da mizpira. Mizpirak bildu eta usteldu ez zitzaizkioneko kontuak aipatzen ditu.

159. Ogia, olioia eta janaria bedeinkatzen ziren San Blasetan (ATA-016/025)

Ogia eta olioia bedeinkatzen zituzten San Blasetan. Sagarrak bedeinkatu izan dituzte. Bedeinkatutako jakietatik zati bat mezetara etorri ezin izan zirenei ematen zieten.

160. Kandelario eguna: ama eta haurra elizan sartzeko egun berezia (ATA-016/026)

Kandelario eguna berezia dela dio: elizan sartzeko eguna. Jesus jaio zen egunetik berrogei egun pasatzen direla kontatzen du, eta orduan, ume jaioberria duten amak elizan sartzeko direla haurrarekin. Amak kandelarekin joaten ziren eta apaizak elizkizuna eskaintzen zien. Kandelario eguneko kandelak ekaitza zenean pizten zituzten, baita norbait hilzorian zegoenean ere.

161. Erramua eta gurutzea soroak babesteko (ATA-016/027)

Erramu egunean, erramua bedeinkatzen zuten. Soro bakoitzean gurutzea jartzen zuten, argizari tanta batzuk gurutzeari botata. Soroak babesteko izaten zen. Apaizak San Juan inguruan auzoetatik itzulia egiten zuen, ura bedeinkatzeko.

162. Gaztainak bildu, gorde eta jan (ATA-016/035)

Gaztainondo asko zegoen lehen. Morkotsak biltzen zituzten udazkenean eta pilan gordeta izaten zituzten. Gaztaina berdea esaten zioten klase bati, beranduago heltzen zelako eta oso ondo kontserbatu. Zumitzarekin pintza modokoak egin eta harekin biltzen zituzten morkotsak. Udaberrira arte izaten zituzten gaztainak. Erreta jaten zituzten gehienetan. Etxe guztietan zegoen gaztaina; orain pinudiak diren horiek gaztainadiak ziren lehen.

163. Gaztaina zaharrak galdu eta berririk landatu ez (ATA-017/002)

Aita mandazain ibiltzen zen. Hazienda handi samarra zuten. Dena soro eta belardi zen orduan. Bera umea zela ez ez zen pinurik. Ondo zaindutako gaztaina arbolak zeuden, baina galduz joan ziren eta berririk ez zen jarri.

164. Inaurkina, otea eta su-egurra basotik (ATA-017/003)

Garoa eta orbela (inaurkina) ekartzen zen basotik. Otea jo eta zaldi eta mandoei ematen zitzaien jateko. Etxerako egurra ere ekartzen zuten. Zazpi urte zituela jarri zuten ekonomika. Su-egurrik onena pagoa.

165. Ataunen ikazkin ugari (ATA-017/004)

Ikazkin asko zegoen Ataunen. Garai hartan fabrika handiak ikatzarekin zebiltzan. Jakin egin behar da ikatza egiten. Eman beharreko pausoak. Egosi egin behar da, erre gabe.

166. Ikatzarekin zebiltzan lantegi handiak (ATA-017/005)

Patxiko 'Motza', Ataungo ikazkin famatua. Nafarrak ere asko ikazkinak, Leitza aldekoak, Amezkoarrak, barrankesak... Altos Hornos, Araiaiko fabrikak, Patricio, Orbegozo... saltzen zen ikatza.

167. Basoan lanean (ATA-017/007)

Basoan lanean ibilitakoa da. Hogei urterekin hasi zen eta hogeita hamarrekin fabrikan sartu arte ibili zen. Denetik egiten zuten, pinua sartu, bota eta zuritu. Pagoa ere asko lantzen zuten, gehien.

168. Zuhaitzak botatzen, atontzen eta garraitzen (ATA-017/008)

Pago lodiak botatzeak prestaketa-lan handia eskatzen du. "Ezpalsartu" egin behar da. Garbitu, zerraz ebakitzen hasi eta ziria sartu ebakia estutu ez dadin. Geroko lanak zeintzuk ziren. Idiak erabiltzen ziren zuhaitzak ateratzeko.

169. Baso-jabearekin tratua egin behar (ATA-017/009)

Basoaren jabearekin egiten zuten tratua. Sail bat botatzeagatik hainbesteko bat ematen zion taldeari eta gero taldea konpondu behar zen banaketa egiteko. Aseguratuta ibiltzen ziren.

170. Zuhaitz mota bakoitza noiz bota behar den (ATA-017/010)

Zuhaitz mota bakoitzak du bere botatzeko garaia du. Badira ilberrikoak, pagoa edo alertzea, esaterako, baina gehienak ilbeherakoak dira. Hosto koskaduna duena ilbeheran, eta lisoa ilberrian. Altza maiatzeko ilberrian. Udazkena da zuhaitzak botatzeko garaia.

171. Suegurra ere bere garaian bota behar (ATA-017/011)

Haritza ilbeheran botatakoa eta pagoa ilberrian, su-egurretarako ere. Hobeto egiten dute su.

172. Basoa maite du (ATA-017/014)

Basoa gustatzen zaio Iñakiri. Fabrikan edo abereekin lan egitea baino nahiago izan du. Hori berezkoa omen da.

173. Aldaketa klimatikoaz (ATA-017/015)

Eguraldi aldaketa gertatzen ari dela diote baina orain ere izaten dira negu gogorak eta bigunak, lehenago bezalaxe. 1956an pinuak eta beste landare asko ihartu ziren.

174. Inguruko herrietara festara (ATA-017/018)

Txikitan errekan ibiltzen ziren jolasean. Bere adineko askok dakite igerian. Nagusitu zirenean inguruko herrietara irteten hasi ziren: Etxarri, Beasain, Zaldibia...

175. Ataundarrei barre Etxarrin erdaraz ez jakiteagatik (ATA-017/019)

Etxarrin barre egiten zieten Ataungoei erdaraz ez jakiteagatik. Goierri aldean gehixeago egiten zen euskaraz. Orain aldatuta daude gauzak.

176. Ataunen "deje" diferentea auzo batetik bestera (ATA-017/020)

Goierri ez da hizkera asko aldatzen, nahiz eta herri bakoitzekoari igartzen zaion. Ataunen ere auzotik auzora badira diferentziak. "Dejea" dute diferentea. Euskara ikaragarri aberatsa omen da.

177. Araitz-Azpirotz aldeko euskara, garbi-garbia (ATA-017/022)

Zegama aldekoiei berehala antz ematen die hizketan. Nafarroakoa diferentea da oso. Euskara garbi-garbia egiten da Araitz eta Azpirotz aldean. "Barrankesak" ezberdin egiten dute. Ataundar asko bizi da Etxarri aldean, eta alderantziz ere bai.

178. Mikeleteak arbitrioak kobratzen Lizarrustin (ATA-017/023)

Bi erreal ordaindu behar izaten zituzten Nafarroan bizikletan sartzeagatik. Mikeleteak zeuden Lizarrustin arbitrioak kobratzen.

179. Ataundarrak "otsoak" (ATA-017/024)

Goierriko herri bakoitzak du bere goitizena. Idiazabagoak "azeriak", Zeraingoak "xaguak", Zegamakoak "belak"... eta Ataungoak "otsoak".

180. Sorginaren istorioa (ATA-017/025)

Sorginaren istorioa kontatzen du. Mutila maitemindu da neska eder batez, baina sorgina ote den susmoa du. Haurgintza bat dela medio, haren susmoak baieztatuta geratzen dira.

181. Jentilen istorioa (ATA-017/027)

Eibarko armek desagerrarazi omen zituzten sorginak. Jentilen istorio polita: jentilak baserri batera etortzen omen ziren gaixoa zaintzera. Oihal bat (sobrekama) ekartzen omen zuten, eta kendu nahi zieten baserrikoek...

182. Astoa agertu zitzaion mutilaren historia (ATA-017/029)

Behin mutil bat andregai bisitatzer zahoan baina kexu zen lokatza handia zegoelako. Astoa agertu zitzaion eta haren gainean joan zen, baina...

183. Duque del Infantadok basoa bereganatu jentilak handik bidaltzeko baldintzaz (ATA-017/031)

Jentilak eta sorginak diferenteak ziren. Jentilak zibilizatu gabekoak omen ziren. Diotenez, militarrei eman zien herriak ehun urterako basoa, handik jentilak

bidaltzeko baldintzarekin. Duque del Infantado-k bereganatu zuen basoa, eta gaur arte.

184. Mateo Txisturen elezaharra (ATA-017/033)

Mateo Txistu meza ematen ari zela, erbia eta txakurrak elizan sartu ziren; apaiza meza utzi eta atzetik joan zen eskopeta hartuta.

185. "Bertan goxo" (ATA-017/035)

Gauza guztiek hizketan zekiten denboran gertatutakoa. "Aurrerago eta goxoago" esaten zuen belarrak, eta aurrera eta aurrera joaten ziren ardiak...

186. Jentilen ipuinak-eta asko entzuten zituzten haurtzaroan (ATA-017/037)

Orain ez da jentilen ipuinik entzuten. Beren denboran artazuritzetan-eta egunero entzuten zituzten.

187. Jolasak eta bihurrikeriak (ATA-019/004)

Ezkutaketan-eta ibiltzen ziren jolasean. Gerezi-lapurretan ere bai: aizkora txiki batez adarra moztu eta lurretik hartzen zituzten. Harrika bizikletariei.

188. Goserik ez baina oso pobre (ATA-019/005)

Gose-goserik ez zuten pasatu, baina miserian hazi zen jende asko. Kolean miseria handiagoa baserrian baino. Txahalak, txerriak, sagarra, gaztaina... bazen baserrian. Baina ez irrati eta ez ezer.

189. Lazkaoko jendea Ataunera gose denboran (ATA-019/007)

Lazkaoko jende asko egon zen Ataungo baserrietan gose denboran. Gero, lantegiak indartzen hasi zirenean, lehengo pobreak asko itxuratu ziren.

190. Nola-halako argindarra (ATA-019/009)

Argindar kableak nahastu egiten ziren eta erraz joaten zen argia. Bonbillak ere oso motelak ziren. Forratu egiten zituzten kableak koloretako paperez.

191. Amuarrainez betetako erreka garbia (ATA-019/010)

Ura ere neurtuta eegoten zen lehorte garaian. Danborreroak iragartzen zuen noiz eta nondik hartu zitekeen. Erreka garbi-garbi zegoen eta nahi beste amuarrain harrapatzen zuten.

192. Behia galdu mendian (ATA-019/013)

Behizain ibiltzen ziren. Eskolatik etorri eta behiak zaintzera. Behin, etxeratu zituenean bat falta zen. Anaia joan, bilatu eta ekarri zuen, txahala eginda.

193. Noiz edo noiz eskolara (ATA-019/014)

Eskolara astean behin edo joaten ziren. Oinez Ergoienetik San Gregoriora. Maistra erdalduna zuten. Beste maistra batek ahuntzak zituen eta ekartzen laguntzen zioten. Mutilak eskolatzen ahalegin handiagoa egiten zen.

194. Lixiba egiten (ATA-019/016)

Surtako hautsarekin egiten zen lixiba. Bahean pasatzen zen lehendabizi. Lejiarik gabe. Oso usain ona ateratzen zuen arropak. Lixibaren pausoak zehatz-mehatz azaltzen ditu. Alanbrean eskegitzen ziren arropak edo belar gainean zabaltzen ziren.

195. Gutxi joaten ziren azokara (ATA-019/018)

Diru gutxi ikusten zuten, baina etxean sortzen ziren jakiak. Gutxi joaten ziren azokara saltzera. Gaztaina edo sagarra bai, Ordiziara.

196. Gaztaina diruarekin berokia eta zapatak erosi (ATA-019/019)

Gaztaina biltzen jarduten zuten, haren diruarekin San Martin festetarako berokia, zapatak eta guardasola erosteko. Behin jabeak harrapatu zituen gaztaina biltzen ari zirela.

197. Esker txarreko kaleko jendea (ATA-019/020)

Kaleko jendea gaztaina biltzen ibiltzen zen beharrak eraginda. Baratze mutur bat ere ematen zitzaien lantzeko. Gero, indartu eta alde egin zutenean askok ez omen zuten diosalik ere egiten.

198. Ijitoak (ATA-019/021)

Ijito asko ibiltzen zen orduan. Behin patata lapurtzen harrapatu zituen aitak. Eskean ibiltzen ziren. Ijitoen itxurari buruzko azalpenak.

199. Hoge urterako prakak janzen (ATA-019/024)

Ez zitzaien heltzen soineko berria egiteko. Hoge urterako prakak janzen zituzten. Gaizki ikusia zegoen baina bost axola zitzaien.

200. "Gereziak goiz heldu dituk!" (ATA-019/025)

Makilajea erabiltzen zen orduan ere. Gizon batek esaten omen zuen: "Mutilek!, keizak goiz heldu dituk!". Ezpain pintatuez ari zen.

201. "Permanentea" modan (ATA-019/026)

Permanentea egiten zen asko. Ile kizkurra eta harroa modan zegoen. Jaiko arropa ondo gordetzen zen. Apaizak norbaiten arropari nabarmena iritziz gero, atzeko jarlekuetara bidaltzen zituen emakumeak elizan.

202. Lasta-balaz argi eginda mezara (ATA-019/027)

San Gregoriora joaten ziren mezara. Baserrietatik lasta-balaz argi eginda etortzen zen jendea. Beraiek haien atzetik joaten ziren. Arratsaldetan bezperatara.

203. San Gregoriora erromeriara alde guztietatik (ATA-019/032)

San Martin baino gehiago izan omen da San Gregorio. Askok ere festa hobeak egiten ziren eta jende asko etortzen zen inguruko herrietatik. San Martinen inor ez omen zen geratzen. Soinujoleen izenak.

204. Etxegaratera erromeriara (ATA-020/005)

Uztailaren 18an Etxegaratera joaten ziren erromeriara, bi orduko bidean. Dantza lotuan ere ibiltzen ziren.

205. Dantza lotua ibiltzeagatik kartzela mehatxua (ATA-020/006)

Arantzamendin dantza lotuan ibiltzen ziren, eta behin apaizak argazkiak atera zituen eta udaletxera deitu zieten. Kartzela mehatxua ere egin zieten baina azkenean ez zituzten sartu. Behin hogei urte ezkerro neskazaharrak omen ziren orduan.

206. Aguazilak makilaka sakabanatu dantzaldia (ATA-020/007)

Beasaingo orkestra ekarri zuten San Martingo festetan. Lotuko doinuak jotzen hasi zenean, aguazila makilarekin irten eta dantzarietara kolpeka hasi zen. Dantzariak sakabanatu eta musikariak bidali zituen Ataundik. Baina Rufinak eta ez zuten etsi, eta herriko soinujolearekin jarraitu zuten festa. Kongregaziotik bota zituzten.

207. Arantzamendiko erromeria (ATA-020/008)

Jaiero izaten zen erromeria Arantzamendin eta beraiek hara joaten ziren. Dantza lotuan ere egiten zen. Hiru-lau soinujole hurbiltzen ziren.

208. "Titi-erretenak ikusi ezkerro, kitto" (ATA-020/009)

Prakarik ez zuten janzen baina soineko dotoreak bai. Eskoterik eta pentsatu ere ez. "Titi-erretenak ikusi ezkerro, kitto".

209. Mantzanila-ura ilea horitzeko (ATA-020/010)

Berez zuen ile kizkur samarra. Ilea Lagarto-rekin garbitzen zuten. Mantzanila-ura erabiltzen zuten ilea horitzeko. Ondak egiten zituzten ilean.

210. Gurasoak errieta egiteko zain erromeriatik bueltan (ATA-020/011)

Izarra agertu orduko etxeratzeko agindua zuten, baina ez zuten betetzen. Aiatik oso bide luzea zuten. Atzeko atetik sartzen ziren gurasoen errieta saihesteko. Orduko ibilerak eta bizimodua ez dago sinesterik.

211. Infernuko zuloaren mehatxuari jaramonik ez (ATA-020/014)

Emakumeak gorriak ikusitakoak dira. Infernuko zulora kondenatuko zirela zioten apaizek, baina ez zieten sinesten, eta eskerrak. Konfesatzeko garaian komeriak; eskerrak bazen dena barkatzen zuen apaiz bat, don Juan Txiki. Apaizen sekretuez ez du ezer esan nahi.

212. Urik ere ezin edan jauna hartu aurretik (ATA-020/016)

Ezin zuten urik edan komulgatu aurretik. Aurpegia garbitu ere ez bada ezpada. Urrutitik etorri behar zuten lasta-argitan elizara. Etxean ere berandura arte ez zuen argirik ezagutu.

213. Aitona sasiabaitaria (ATA-020/017)

Aitona sasiabaitaria zuen. Belarrekin sendatzen zituen abereak. Rufina eta bere ahizpak ibiltzen ziren belarrak bilatzen. Don Juan txiki apaizarentzat ere biltzen zuten, saritxoren baten truke.

214. "Minak nola etorri hala jun" (ATA-020/018)

Orduan ez zegoen botikarik, "minak nola etorri hala jun" egiten omen ziren. Ahulak hil egiten ziren eta indartsuak aurrera.

215. "Umea egin ezkerro, kito" (ATA-020/019)

Mahaietik begira egoten ziren aitonari, kanpotarrekin zegoenean. Denborarekin pixka bat espabilatu ziren. "Umea egin ezkerro, kito zegon ordun". Anega erdikoan edukitzen zuten soroan lanean ari zirenean. Bi ume-sabelean, beste bat eskuan, belar-sorta bizkarrean... aldapan gora.

216. Ama berria buruan teilarekin elizan sartu arte (ATA-020/021)

Haurrak jaio eta hurrengo egunean bataiatzen ziren. Amak buruan teila zuela irten behar zuen, elizan sartzea egin arte. Orain dena aldatu da.

217. Aitak esandako guztiak bete dira (ATA-020/022)

Aitak esaten zieten egunen batean erregea baino hobeto biziko zirela, ez zioten sinisten, baina azkenean hark esandako guztiak bete dira. Irratia asko entzuten zuen. Idiazabaldik-eta etortzen ziren aitarengana berriak jakitera.

218. Abioia noiz eroriko zain (ATA-020/024)

Umea zela hasi zen gerra eta abioei begira egoten ziren, bat noiz eroriko zain.

219. Karlista baten etxean ezkutatu gerra denboran (ATA-020/026)

Rosarioren aita boletan omen zebilen lagunekin gerra hasi zenean, eta bikarioak ezkutatzeko esan zien. Karlista baten etxean egiten omen zuten lo.

220. Amona astebete bakarrik eskolara eta aita zortzi urte bete arte (ATA-020/028)

Amona astebete bat bakarrik joan zen eskolara, eta esaten zuen beste hamabost egun gehiago joan izan balitz ez zuela Iturriozko Patxik harrapatuko. Aita zortzi urte artera joan zen; aitonari deitu zion maisuak esanez berak zekizkien eskola guztiak ikasi zituela eta ez gehiago eskolara bidaltzeko.

221. Amona zazpi urterekin neskame (ATA-020/030)

Rufinak bide luzea zuen eskolara eta eguerdian herriko etxe baten geratzen zen etxetik ekarritakoa jatera. Ama neskame egonda zegoen etxe hartan, zazpi urterekin joanda. Gero Legorretan egon zen hogeitaz neskame, ezkondu arte.

222. 25 urterekin neskazahar eta mutilzahar (ATA-020/031)

Behin 25 urte betez gero mutilzahar edo neskazahar ziren, eta ez zuten fama onik. Bizimodu latza izaten zuten, beti etxeko nagusiaren (maiorazkoaren) mendean. Gaztetan gorriak ikusita daude, baina zahartzaro ona izan dute; hurrengo belaunaldiari alderantziz tokatuko zaio agian.

223. Lutoaz beti: "belak bezela beltz-beltz jantzita" (ATA-020/033)

Lutoa erabili behar zen; "belak bezela beltz-beltz jantzita" ibili zen bera ere zazpi urterekin. Amak izarak beltz tindatu eta harekin soinekoa eginda. Urtebete pasatakoan luto erdia, zuri eta beltz. Eta etxe hartara ezin zen joan Eguberritan kantatzera. Lutoan zegoenak ezin zuen ez antatu eta dantzan egin. Beren denbora lutoan pasatu omen dute. Gaurko bizimodua askoz ere hobea da.

224. Enterradorea hildakoari kendutako trajea jantzita (ATA-020/034)

Hildakoak bere traje eta zapata onenekin hilobiratzen ziren. Barre artean dio enterradorea ikusi zutela hildako bati kendutako trajearekin. Ondo egin zuela, dio.

225. Josepetako Zelaian praka horiekin nola presentatuko da ba? (ATA-020/035)

Hildakoen etxekoek ezin zuten lanik egin eta auzokoek egin behar ganajatenak eta enparauak. Negar asko egiten zen eta neskatilek aurpegia "mantaliñakin" estalita izaten zuten. Erramuaz egiten zuen bedeinkazioa apaizak. Rosariok San Martinen gertatutako istorio barregarria kontatzen du.

226. Baserritik bizkarrean hilkutxa (ATA-020/037)

Bizkarrean ekartzen zen hilkutxa. Ordubeteko bidea edo gehiago zegoen beren baserritik. Lokatza artean etorri behar izaten zuten askotan. Bere gurasoak hil zirenerako autoak heltzen ziren baserrira.

227. Amak ura jarri etxean ezkondu zenean (ATA-020/039)

Ama neskame egondakoa zen ura zegoen etxeetan, eta ezkondu zenean ura jarri zuen txerriekin irabazitako diruaz.

228. Kinkea eta karburoa argi egiteko (ATA-020/040)

Ez zuten argirik baserrian. Kinkea eta karburoa erabiltzen zen argi egiteko. Barrealdia.

229. Lixiba egiten (ATA-020/041)

Surtako hautsa erabiltzen zen lixiba egiteko, bahean pasata. Heriotza omen da azkena, eta azken aurrekoa, berriz, bizimodu hura. Eta are okerragoa izan zen aurreko belaunaldiena.

230. Ekonomika jarri zuen amak (ATA-020/042)

Ama "artistea" omen zen. Ekonomika handi bat jarri zuen. Ordura arte beheko suaz bizi ziren ke artean.

231. "Zurie ta mardule behar degu guk" (ATA-020/043)

Beltzaran ez jartzeagatik guztiz estalita ibiltzen ziren. Beltzaranak gaizki ikusita zeuden, "zurie ta mardule behar degu guk" esaten omen zuten.

232. Tratu txarrak ohikoak ziren (ATA-020/045)

Gizonaren mende bizi zen andrea. Jo ere bai, nahiz eta gero horrelakoak kanporatu ez. Beldurraren mende bizi ziren, gurasoen, apaizaren, senarren... beldur.

233. "Berorika egin behorrari" (ATA-020/046)

Rufinak ez du berorika egin izan. Ataungo apaiz txikiari bat berorika hasi omen zitzaion eta hark zera erantzun:"berorika egin behorrari". Berorika egiteko ere jakin egin behar.

234. Ataunen euskararik onena (ATA-020/047)

Eztabaida Rufinaren eta Rosarioren artean. Batak dio Ataungo auzoetan badirela ezberdintasunak euskararen aldetik eta besteak ezetz. Zegamakoez oso luze hitz egiten onen dute. Rosarioren ustez, Ataunen egiten da euskararik onena. Rufinak, berriz, lehen ziotela Tolosakoa zela onena.

235. Ataunen eta Zegaman egunez ikusi eta gauez eraman (ATA-020/049)

"Ataunen eta Zegaman egunez ikusi eta gauez eraman" da esaera. Horren sustraia non dagoen azaltzen du Rosariok. Ataundarrak "otsoak" dira, ordiziarrek "azak", amezketarrak "euliak"...

236. Seigarren mandamentua, "nola etorri hala jun" (ATA-020/050)

Ba omen zen apaiz bat konfesatzeko orduan seigarren mandamentua heltzerakoan zera esaten zuena: "Seigarren mandamentua nola etorri hala jun egiten da, eta horri paso eman beharko diogu". Bukaera umoretsua.

237. Aita, beste baserri batetik etorritakoa (ATA-021/002)

Gurasoak ez ziren baserrian jaioak. Aita zena morroi etorrita zegoen Txuloara, eta lehengo familiak alde egin zuenean bera geratu zen baserriarekin. Infantadoko Dukearena zen. Iberondo baserrikoa zen aita eta ama Erroiondokoa.

238. Lizarrustin festa san Jose Egunez (ATA-021/004)

Lizarrustin festa egiten zen San Jose egunez. Ezin dantza lotuan egin, kongregaziotik botako zituzten beldurrez.

239. Aiara eta San Gregoriora distantzia berdintsua (ATA-021/006)

San Gregoriora eta Aiara distantzia berdintsua dago baserriatik. Bietara joan izan dira mezara. Derrigor joan behar. Orain berriz dena da libre. Linternarekin edo kristalezko farolarekin ibiltzen ziren gauez.

240. Taloa egunero (ATA-021/008)

Taloea egunero jaten zuten, bi edo hiru aldiz egunean. Errota hurbil zuten, Aiako partean, Kasetatik gora. Ogia hamabostean behin egiten zuten. Goserik ez zuten pasatu

241. Urdiainera txekorra hiltzera (ATA-021/009)

Nafarroatik estraperloan jende asko ibiltzen zen orduan. Txekorrik ezin zen hil eta gauez Urdiainera joaten ziren oinez mendiz, hango harakin batengana. Bera ere ibilia da. Ezin eramanik ibiltzen ziren, txahala nekatu egiten zelako.

242. Albaitari beharrik ez txahalgintzarako (ATA-021/010)

Behiak txahala egin behar zuenean orrotxo bereziak egiten zituen eta horri esker jakinean egoten ziren. Oraingoek ez omen dute horrelakorik egiten. Albaitari beharrik ez zen izaten orduan. Gainera, bazen auzoan gizon bat langintza horretan aditua.

243. Esne guztia txekorrak hazteko (ATA-021/011)

Ez dute esnerik inoiz saldu. Txahalak errapera botatzen zituzten amaren esnea edan zezaten. Txahalak haztera dedikatu dira batik bat. Esnea eman behar duen behia hobeto elikatu behar da.

244. Uztarrirako ere behiak (ATA-021/012)

Behiak erabili dituzte uztarrirako. Erakutsi, hezi egin behar aurrena. "Itzulan" ibiltzen zirenean, "itzuli!" esaten zieten behiei buelta egiteko.

245. Arto-lastoa ere jaten zuten ganaduek neguan (ATA-021/013)

Garai hartan belar gutxi izaten zen. Arto-lastoa ere jaten zuten behiek neguan. Arte-orria, arbia, lastoa... izaten ziren neguko jatenak. Abereek ere ez zuten "nahierarik" izaten orduan. Pentsua ere eman izan diete apur bat, baina konpuestorik ez sekula. Garagar-irina, arto-irina... soilik.

246. Belarra kable bidez etxeratzen (ATA-021/014)

Inaurkina ekartzen zuten basotik azpietarako. Famatuak dira Ataungo belarra garraiatzeko kableak. Lehenago bizkarka ekarri behar. Basolangileak ezarri omen zuten sistema. Aldapa handiak direnez, ez dute gurdirik ezagutu etxean.

247. Gaur ezin da abelzaintzatik bizi (ATA-021/015)

Kable bidezko sistema nolakoa den. Inoiz gertatzen zen bidean belar-sorta trabatuta gelditzea eta nola-hala konpontzen ziren etxeraino erakartzeko. Aurrerapen handia izan zen sistema hori. Orain, berriz, bideak egin dira baina ez dago ganadutik bizitzerik. Lehen askoz ere emankorragoa zen abeltzaintza.

248. Txerriak hazten (ATA-021/016)

Txerriak ere hazten zituzten. Estimazio handia zuten. Orain ez dute batere balio. Normalean etxera etortzen zen tratantea. Hilabete pare batera saltzen ziren.

249. Arrautza-diruarekin erosketak (ATA-021/017)

Hamabostean behin arrautzak saltzen zituzten azokan eta haren diruarekin egiten zen etxerako erosketak. Etxean ere arrautza asko jaten zen.

250. Gaztak egiten (ATA-021/019)

Aurten ere egin ditu gaztak. Gatzagia erabiltzen zen horretarako. Esneak epela behar du. Prentsa badute baina eskuz egiten ditu gaztak. Gazta nola egiten den azaltzen du. Zumitzezko ontzian ipintzen ziren. Esku beroa komeni da.

251. Gazta zaintzen eta ketzen (ATA-021/020)

Egunero buelta eman behar zaio gaztari, bestela lizundu egiten dira. Ketu ere egiten ziren lehen. Intxusa azalarekin egiten zuten kea. Batzuek omen diote lehortu egiten dela keaz. Gaur egun ez da ia ketzen. Gaztura txerrikumeei ematen zieten. Oso gozoa omen da norberarentzat ere. Lehengo artzainen esaera: "Maiatzeko gazture, esnearen pare". Negu-udaberri partean egiten da gehienbat gazta.

252. Eguzkitik babesteko jantziak (ATA-022/001)

Oihalarekin besoak estaltzeko jantziak egiten zituzten, eta buruko zapia okotsaren azpian lotzen zuten; belarrondotan zebiltzanean aritzen ziren horrela. Lehen ez zegoen beltzaran egoteko irrikarik.

253. Gaztainak burusiaren barruan (ATA-022/002)

Mandoarekin ibiltzen ziren gaztainak biltzen; burusian bilduta ekartzen zituzten etxera. Burusia maindire modukoa zen, lau ertzak elkarri lotu eta barnean ekartzen zituzten gaztaina morkotsak.

254. Behatz-zorroak, esku-sarea, matxarda eta sakela gaztainak biltzeko (ATA-022/003)

Iraila bukaeran hasi eta azarora bitartean biltzen zituzten gaztainak. Eskuz biltzen zituzten, behatz-zorroak jantzita (gomazko zorroak). Eskubiko eskuan jartzen zituzten behatz-zorroak eta ezkerreko eskuan esku-sarea izaten zen, gaztainak bertan biltzeko. Matxardea ere erabiltzen zuten bilketarako. Aleak biltzeko sakela izaten zuten aurrekaldean jantzita, mantalaren antzera.

255. Gaztainondoen zaindaria (ATA-022/004)

San Martinetarako biltzen zituzten gaztainak eta zaindaria egoten zen garai hartan, abereek gaztainak jan eta hondatu ez zitzaten. Tarteka besteen sailetatik lapurretan ere aritzen ziren gutxi batzuk.

256. Gaztainak kontserbatu, saldu eta jan (ATA-022/005)

Etxerako gaztainak lehorrean gordetzen zituzten eta kanpoan botatzen txerrientzakoak. Azokan ere saltzen zituzten. Eskuarearekin jotzen zituzten morkotsak, aleak ateratzeko. Aurrena egosita jaten zituzten eta gero erreta. Egunero jaten zuten gaztaina.

257. Anaia eta ahizpa, umetan gaixorik hil (ATA-022/006)

Txikitan mandozain ibiltzen zen. Hamar urteko anaia hil egin zen, apendizitisaren ondorioz, mandazain zebilela. Kukutx-eztularekin hil zen

ahizpa bat ere. Eztularentzat, sasian bildutako belar latz baten ura hartzen zuten.

258. Pasma-belarra eta amaren ukendua (ATA-022/007)

Ahoko infekziorako edo zauriren batentzat erabiltzen zen pasmo-belarra. Intsusaren azala gaztaiak ontzeko erabiltzen zuten. Bere amak ukendua ze osagairekin eta nola egiten zuen kontatzen du.

259. Errapeetako minarentzat eta kukurutx-eztularentzat erremedioak (ATA-022/009)

Behiak errapeetako mina zeukanean, xaboia, ardoa eta olioia zartaginean berotu eta harekin igurzten zioten. Kukurutx-eztularentzat sasiko belar latz batekin ura eginda hartzen zuten.

260. Ataungo hizkera (ATA-022/015)

Ataundik Lazkaora hizkeran aldea nabaritzen du. Lehenago nola hitz egiten zuten kontatzen du. Euskararik politena Tolosan dagoela entzun izan du. Auzo batetik bestera ez du alderik nabaritzen. Anekdotak bat kontatzen du.

261. Eskolara tarteka (ATA-022/018)

Familia oso handiak ziren lehen eta ezin eskolara egunero joan, etxean lana izaten zutelako. Maistra Irene zen, Tolosakoa, erdalduna. Euskaraz eginez gero, jo egiten zituen maistrak eskuan.

262. Eskola ez, lana zen betebeharra umeentzat ere (ATA-022/019)

Eskolan lehen denak batean aritzen ziren, bakoitza bere lanetan. Gutxitan joaten zenak, nahikoa lan izaten zuen besteei jarraitzen. Erdaraz ez zuten ezer ulertzen. Bazkaltzera etxera itzultzen ziren. Orduan betebeharra lana zela dio, ez eskola. Senarra Agurainen ibili zen, gazteleraz ikasten. Mutilek gau-eskolak izaten zituzten.

263. Eguneroko eta jaietako otorduak (ATA-022/022)

Egunero babarruna jaten zuten; astean gorria eta jaietan zuria edo garbantzuak. Tarteka haragi pixka bat jaten zuten. Jaietako otordu berezia zenean, zopa, haragia garbantzuekin eta xerra piperrekin jaten zuten. Postretzat fruta jaten zuten sarritan, melokotoia eta anana ere bai.

264. Belar-ondoarentzako kableak eta tresnak (ATA-022/025)

Sokak, antzailak, uhalak erakusten ditu. Antzailak gaztaina sastrakekin egiten zituen beraien aita zenak. Belarra nola lotzen zuten kontatzen du. Txirrika erakusten du, kablean erabiltzen dena. Irudian agertzen da kablea nondik nora doan.

265. Bezperen ondoren San Gregoria erromeriara (ATA-023/002)

Elizara joan behar izaten zen nahi eta nahi ez. Bezperatara ere bai jaiero. Bezperen ondoren, San Gregoria erromeriara. Abemariatakoa jotzen zuenean, etxera. Soinujoleak hainbat ezagutu ditu. Jende asko biltzen zen erromeriara. Bi taberna ziren San Gregorion, beste bat Kaxetan eta beste bat Aian.

266. Nekatu ere ez ziren egiten gaztetan (ATA-023/003)

Oinez ibiltzen ziren atzera eta aurrera. Lazkaotik-eta bizikletan etortzen ziren San Gregorioko erromeriara. Motorik eta kotxerik ez zegoen ia. Ez ziren nekatu egiten sasoi hartan.

267. Neska-laguntza neketsua (ATA-023/004)

Abarketak erabiltzen zituzten, giroa baldin bazen. Zapata pare bana ere izaten zuten. Behin neska-laguntzera joan zen urrutiko baserri bateraino. Lehena eta azkena, ez zen esperientzia ona izan.

268. Okin eta harakin ezkondu aurretik (ATA-023/005)

Ia hemezortzi urte arte ibili zen eskolan. Okin Beasainen, baina ez zitzaion gustatu, eta gero harakin. Soldadutza egin eta gero orain bizi den baserrira ezkondu zen.

269. Ikaragarri mundualdi ona basozaintzan (ATA-023/008)

Baserritik bizi ziren hasieran; orduan baserriak dirua ematen zuen. Gero basozain sartzeko aukera izan zuen eta horretan jardun zuen harrezkero. Ikaragarri mundualdi ona pasatu omen du basozaintzan.

270. Egur-lapurrak uxatu zituenekoa (ATA-023/009)

Telefonoa erabiltzen zuen "ipurgainean", harekin kontrolatzen zuten nagusiek, baina ez zien beti egia esaten. Ataungo herri-lurren eta Aralarkoen ardura zuen. Baziren ezkutuan egurra botatzen zutenak Aralar aldean, eta behin bete-betean harrapatu zituen. Berriz egiten bazuten "narrutik ordainduko zutela" egin zien mehatxu eta harrezkero ez zen lapurrik izan.

271. Basoko zura tasatzea, basozainaren eginkizuna (ATA-023/011)

Basozainak tasatu egiten zuen egur-lotea. Gero udaletxean subasta egiten zen. Lau edo bost egur-merkatari aurkezten ziren eta gehien ordaintzen zuenari ematen zitzaion. Materialetarako zura, gehienbat, baina baita paper-fabrikarako eta sutarako ere.

272. Nafarroa eta Gipuzkoako ordezkarien bilera Aralarren (ATA-023/014)

Aralarren mugarrak ipini zireneko istorio luzea. Bera basozain sartu eta laster deitu zioten langintza horretarako. Igaratzen Gipuzkoako eta Nafarroako ordezkari eta injineruekin bildu zen. Eztabaidak. Lehen mugarritze saioa.

273. Aralarren mugarriak ipintzeko kargua (ATA-023/015)

Zaldiek ez zuten Guardetxerantz joan nahi. Nola edo hala heldu ziren ilunetan. Leher eginda heldu zen, garagardo hotza edan zuen eta ondoeza egin zitzaion. Hurrengo egunean jakin zuen berari eman ziotela mugarriak ipintzeko ardura. Eta horrela gertatu zen, berak eta injineruak zuzenduta ipini zituzten mugarriak.

274. Hamalau herriren mugak ezagutzen zituen (ATA-023/018)

Martinek ongi ezagutzen zituen Aralarreko mugarriak. Osaba artzain batek erakutsi zizkion. Hamalau herriren mugak zekizkien. 17 urte pasatu zituen Aralarren basozain.

275. Basozainaren lana: bijilantzia (ATA-023/020)

Bijilantzia zen basozainaren lana: suteak, itxiturak, basoak... Oinez lehendabizi, motoan gero, eta Land Roverrean azkenik. 5-6 laguneko langile-taldea zuzentzen zuen batzuetan. Artzainak, ehiztariak... beti izaten zuen norekin hitz egin.

276. Lehenengoan barkatu, bigarreanean denak erantsi (ATA-023/021)

Pagoak bota eta egur txikitzen harrapatu zituen bi lagun. Lehenengo aldia zelako barkatu zien, baina berriz ez egiteko baldintzarekin. Bigarrenez ere harrapatu zituen eta salaketa jarri zien.

277. Lazoarekin basurdeak harrapatzen (ATA-023/024)

Basurdeak alanbrezko lazoarekin harrapatzen zituen. Behin, ehiza itxita gero harrapatu zuen bat, galanta. Gero bizkarrean ekarri ezinda ibili zen. Autora heldu zenean, ertzainak zeuden berearen ondoan. Larri egon zen, baina ez ziren konturatu, eta pozik heldu zen etxera.

278. Basurde ehiza Pilarika egunetik urtarril azkenera (ATA-023/025)

Basurdea harrapatzen zuten ehiztariak; erbia ere bai baina erbia gutxi. Pilarika egunetik (urriak 12) Ilbeltzaren azkenera arte egoten da irekita ehiza garaia. Asteburuetan bakarrik.

279. Orkatza, ahuntza baino okerragoa zuhaitzentzat (ATA-023/026)

Orkatza (korzoa) bota zuten mendira, baina landareei punta jaten die eta kalte handiak egiten ditu. Ahuntza bezain txarra edo txarragoa omen da. Asko ehizatzen dituzte.

280. Basurdetan (ATA-023/027)

Basurdetan jende asko ibili izan da beti, baina aspaldi honetan gehiago. Basurdetan nola egiten den azaltzen du. Orain lehen baino errazagoa da, eskopetak hobeak direlako. Zakurrak ezinbestekoak dira. Basurde zaleen Elkartea dago Ataunen.

281. Ia ez du etsairik egin bere basozain bizitzan (ATA-023/028)

Ez du etsairik egin bere basozain bizitzan. Ia denak ditu adiskide Ataunen, salbuespentxoren bat kenduta. Nekez topatuko dugu beragatik gaizki hitz egiten duenik. Lehenengo aldian barkatzen zuen baina bigarrenez harrapatuz gero, salaketa.

282. Garoa eta orbela, irailaren 20tik aurrera (ATA-023/030)

Agorraren 20tik aurrera libre zen garoa eta orbela herri-lurretatik eramatea. Bere garairako garoak ez zuen lehengo estimaziorik.

283. Ziza zalea bai, perretxiko zalea ez (ATA-023/031)

Ez da perretxiko zalea izan, baina ziza biltzailea bai, amorratua gainera. Orduan ez omen zen inor ibiltzen perretxikotan. Bera jubilatzeke garaia heldu zenean hasi omen ziren ugaritzen. Perretxikoa urtero irteten da eguraldiak lagunduz gero, baina ziza asko galdu.

284. Mendia zikintzen ari da (ATA-023/032)

Lehen mendia askoz ere garbiagoa zegoen. Abere gehiago ibiltzen zen eta zurari ere etekina ateratzen zitzaion. Orain ez dauka probetxurik eta sasial nagusitzen ari da. Suaren arriskua gero eta handiagoa da.

285. Goierriko suak itzaltzen (ATA-023/033)

Goierriko suak itzaltzeko ardura ere izan zuen, bost pertsonako talde baten buru eginez. Aproposa emandako suak izaten omen ziren asko.

286. Larraitzen suak inguratuta (ATA-023/034)

Behin eskapada handia egin zuten Larraitz aldean sua itzaltzen ari zirela. Hego-haizea zebilen eta suak harrapatu zuen talde osoa. Berak autoan ihes egin zuen ozta-ozta, eta taldekoek erredurekin baina hainbestean ere libratu ziren.

287. Basozain lana, lan atsegina (ATA-023/036)

Basozain lana oso atsegina izan da Martinentzat. Gainera lantalde oso ona zuen, konfiantza osokoa, nahiz eta bera aurrean ez egon, lan gogor egiten zuena.

288. Eguberri-pinua negozio ona (ATA-023/037)

Baserrian txerriak hazten zituen emazteak, baina zegamar batek eguberri-pinuak landatzea proposatu zion, eta baita landatu ere. Emazteari ez zitzaion asko gustatu, baina diru asko eman zuten. Duela hamar bat urte utzi zioten landatzeari, plastikozkoak-eta nagusitu zirenean.

289. Azpeitiarrak ataundarrari aizkoran irabazi (ATA-023/039)

Auzo batekoek bestekoei fama txarra emango diote, baina egia esateko harreman onak dira. Lehen izaten ziren tirabirak aizkolariak zirela eta. San Martingo bat zen onena. Gerora, San Gregorioko bat, baina herriko neska batekin ezkondu zen azpeitiar batek erraz irabazi zion apustua.

290. Aiakoak jentil arraza omen (ATA-023/041)

Aiakoak jentil arraza omen dira. Baina San Martinen dago Jentilbaratzea. Ez du jentil istorio asko entzun.

291. Sorgin kontuak (ATA-023/043)

Etxean entzun ditu sorgin kontuak. Tximiniatik sartzen ziela, lixiba jotzen ibiltzen zirela, Anbotokp Mari gauetan sua zeriola Aralarrera eta Aizkorriara etortzen zela eguraldi aldaketetan, eta horrelakoak.

292. "Beste mundukoak" bisita (ATA-023/044)

Lehengo zaharrek sinisten zituzten sorgin-kontuak. "Beste mundukoak", hildakoak ere etortzen ziren. Lagun bati "gertatutakoa" kontatzen du: tximinia gaineko tresna eta lapiko estalkia berez mugitzen ikusi zituen. Hil zenean mezarik atera gabeko pertsona baten arima omen zen. Guztiz sinistuta zegoen.

293. Jose Migel Barandiaran Adan eta Ebaz mintzo (ATA-023/045)

Don Jose Migel Barandiaran behin umeekin joan zen Aralarrera eta kontatu zuen gizona ez zettorrela Adan eta Ebarengandik, horrek kontuak zirela. Pagolaren liburua ere badu eta esaten du Jesusek hainbat anai-arreba izan zituela.

294. Anaiarekin borrokan "etsaiaren" itzalagatik (ATA-023/047)

Mutikotako oroitzapena: amaren etxean esan zieten "etsaia" irteten zela ilundutakoan, eta etxerako bidean, leku ospel batetik igarotzean, anaiarekin borrokan egin zuen handik igaro nahi ez zutelako.

295. Mateo Txistu apaiz ehiztaria (ATA-023/048)

Kontatzen zieten Mateo Txisturen elezahar ezaguna, meza utzi eta erbiaren ondoren joan zen apaiz ehiztariarena. Txikitan dena sinisten da eta erraz beldurtzen ziren umeek. Oraingo umeak espabilatuagoak omen dira.

296. Sakamantekasaren beldurrez (ATA-023/049)

Sakamantekasaren beldur handia izaten zuten, mantekak kentzen zituela eta. Oso indarrean egon zen beren ume-denboran.

297. Alde guztietan ataundarrak, zeruan izan ezik (ATA-023/051)

Ataungoak "Otsoak" dira; basoetan otso asko zegoelako izango omen da. "Ataunen eta Zegaman egunez ikusi eta gaez eraman" esaera dela eta dio, ez direla oso zuzenak izango ataundarrak, alde guztietan daudelakok, zeruan izan ezik.

298. Txahala eramaten gaez Urdiainera (ATA-023/053)

Mutikoa zela, estraperlo garaian behin baino gehiagotan joanda dago gaez Urdiainera edo Iturmendira txahala eramatera. Txahala makal egoten zen, eta etzan egiten zen lurrean. Nolako ibilerak! Gero bueltan patata edo zerbait ekartzen zuten.

299. Aiakoei burla hizkeragatik (ATA-023/054)

Hitz banaka batzuk kenduta, hizkera ez da aldatzen auzo batetik bestera. Dena dela, burla zieten zieten Aiakoei hizkeragatik. Idiazabal eta Zegama aldera asko aldatzen da. Nafarroan oso diferente egiten zuten beren gazte garaian, baina orain normalago hitz egiten dute. Tolosako euskarak du famarik onena. Ataungoa ere garbia da.

300. Lokatza, harri-koxkorak, zotzak, tortolosak jolaserako (ATA-024/002)

Hamabi senide izan ziren, eta bi txikitan hil omen ziren. Lokatzarekin jolasten zuten. Harri-koxkorak, zotzak, ura, zeramika zatiak... erabiltzen zituzten jolaserako. Tortolosak zer diren azaltzen du.

301. Ura nola ekartzen zuten erraramakilarekin eta ontziekin (ATA-024/005)

Bi kilometroko bidea izaten zuten eskolarako eta bazkaltzera etxera itzultzen ziren. Egurretara edo zotzak bilatzera joaten ziren. Argindarra noiz jarri zuten gogoan dute, baita ura etxeraino ekarri behar izaten zutenekoa ere, erraramakilarekin eta ontziekin. Garoa jartzen zioten urari gainaldean, asko ez mugitzeko.

302. Emakumeek ura eta lixiba buru gainean (ATA-024/006)

Emakumeek buru gainean ekartzen zuten ura, gehienetan. Burukotea jartzen zuten, bigungarri modura. Lixiba egiteko ere arropak halaxe eramaten zituzten, buru gainean. Errekara joaten ziren izarak-eta garbitzera.

303. Ordiziako feriara (ATA-024/007)

Ordiziako feriara joaten ziren, arrautzak, oilaskoak eta jakirik onenak eramanez. Autobusa Kaxetaraino iristen zen eta handik joaten ziren Ordiziara. Emakumeak ortuariak eta beste saltzera joaten ziren eta gizonezkoak ganadu kontuetara. Txekorra oinez eramaten zuten Ordiziaraino, hiltegitara. Lan nekeza izaten zela kontatzen dute.

304. Soroa nola lantzen zuten, pausuz pausu (ATA-024/009)

Laiarekin iraultzen zuten lurra soroan. Lehenengo zopizarra egiten zitzaion lurrari aitzurrarekin (belarra kendu); ondoren lurra ebaki egiten zuten, nabarrarekin (aizto bat, kirten luzearekin); eta azkenik laia pasatzen zuten.

305. Aita eta Bertizeko jabea, Pedro Ziga (ATA-024/010)

Aita Bertizen ibili zen lanean, hango etxera bidea egin zutenean. Aita astoarekin ibiltzen zen. Anekdotak bat kontatzen du, hango nagusiarekin, Pedro Zigarekin, izandako pasarte bat. Pedro Zigak animaliak zaindu egiten zituela kontatzen dute.

306. Txintxinean jolasa (ATA-024/012)

Txintxinean ibiltzen ziren jolasean; makilekin egiten zuten jolasa azaltzen dute.

307. Zotz egiteko kanta (ATA-024/013)

Ezkataketan, arboletan... jolasean aritzen ziren. Zotz egiteko kantuak izaten zirela diote. Zelestinok zotz-kanta abesten du.

308. Kapitaketan jolasa (ATA-024/014)

Kapitaketan jolasa azaltzen dute.

309. Koxkol jokoa (ATA-024/015)

Koxkol jokoa nola egiten zuten kontatzen dute.

310. Txepetxaren, okilaren eta zozoaren habiak (ATA-024/016)

Txorien habiak harrapatzen ibiltzen ziren. Txepetxaren, okilaren eta zozoaren habiak nolakoak izaten diren azaltzen dute.

311. Txori gutxiago zergatik dagoen (ATA-024/018)

Txori gutxiago zergatik dagoen azaltzen dute; hostozabaleko baso gutxiago dago eta garia eta artoa ere askoz gutxiago daude. Txori asko izaten zituzten ganbaran neguan.

312. Enara eta saguzar ugari ikuiluan (ATA-024/019)

Enarek habiak egiten zituzten ikuiluan. Saguzar asko izaten zirela diote. Kandlekin edo kinkearekin ibiltzen ziren argindarrik ez zegoenean, eta ikuiluan haren argitan, saguzar asko ikusten zituzten.

313. Ipurtargiak eta beste animalia batzuk (ATA-024/020)

Ipurtargi bila ibiltzen ziren udaran. Banaka ikusten ziren, belar artean edo harrizuloetan. Ez zituzten biltzen, ikusi bakarrik. Zomorroak, zapoak, sugeak... ez zituzten ukitzen, gurasoek aginduta.

314. Txindurriei buruzko ipuina (ATA-024/021)

Txindurriei begira egoten ziren, zein ibilbide egiten zituzten, zer eramaten zuten beraien txindurri pilara, zelako arrautzak izaten zituzten... Txindurriei buruzko ipuina kontatzen dute.

315. Trikuari begira (ATA-024/022)

Trikua ikustea ikusgarria izaten zela dio Pedrok. Beldurtutakoan, pilota baten moduan biltzen dela azaltzen dute. Bakean utziz gero, joan egiten dela diote.

316. Arkumeak, oso maiteak (ATA-024/023)

Arkumeak jaiotzeko garaia oso polita izaten zen. Lagun artean, zeinen etxean lehenengo jaio, hura txapeldun. Arkumeak jolasean ikustea oso polita izaten dela diote. Artaldean ardi beltz bat edo bi izaten ziren, eta beltza bereziki maitatua izaten zen.

317. Gaztaina erreak eta ipuinak sutondoan (ATA-024/025)

Baserrietan gaztainondo asko izaten ziren eta neguan gaztaina erreak jaten zituzten, zartanean erreta. Aitari gaztainak zuritzen zizkioten eta hark kontuak kontatzen zizkien, suaren inguruan. Kriseiluak erabiltzen zituzten argiztatzeko.

318. Kriseilua nolakoa den (ATA-024/027)

Kriseilua erakusten dute eta azalpenak eman, nola erabiltzen zen ulertzeko.

319. Aiatarrak jentilen ondorengo (ATA-024/031)

Jentilen eta sorginen ipuin asko zekizkien aitak, bere gurasoei entzunda. Aiatarrak jentilen ondorengoak direla esan izan da.

320. Jentilen ezaugarriak (ATA-024/032)

Jentilak nolakoak ziren azaltzen dute: basatiak, jantzirik gabekoak, mendian bizi zirenak...

321. Nesken interesak fabriken etorrerarekin aldatu (ATA-025/002)

Lehen inguruko jendearen artean ezkontzen ziren. Fabrikak iritsi zirenean, bizikalitatea hobetu egin zen. Emakumeak, aldaketa hura etorri zenean, kaleko mutilak bilatzen hasi ziren; eta, orduan, baserriko mutilek arazoak izan zituzten andregaiak topatzeko.

322. "El que tiene Vespa tiene neska" (ATA-025/004)

Lehen, hasiera batean, bizikletan hasi ziren ibiltzen. Gerora, motorra etorri zen; eta neskek oso gustura joaten ziren Vespa zeukan mutilarekin. "El que tiene Vespa tiene neska".

323. Neska-laguntzako komeriak (ATA-025/005)

Garai batean, neska-laguntzen aritzen ziren. Horrelako batean izandako komeriak kontatzen ditu.

324. Neska lagundu osteko afaria (ATA-025/007)

Neska-laguntzen aritu eta gero, mutilek afaldu egiten zuten: batzuetan, beraien etxean; besteetan, neskarenean.

325. Emaztea ondo aukeratu izanaren zorzea (ATA-025/009)

Nobio garaiez hitz egiten du: neska zaindu egin behar da; ondo begiratu behar da norekin elkartzeko den. Juergazalea izatea eta neskekin arrakasta izatea zaila zen lehen. Juan ondo moldatu zen lagunekin ibili eta andregaiak izateko; emaztearekin zorre handia izan du.

326. Neska-laguntza ukatzeko arrazoiak (ATA-025/010)

Neskek neska-laguntza ukatzeko ematen zituzten arrazoiak aipatzen ditu. Garai hartan, egon ziren Juan neskarengandik bereizi nahi izan zutenak, baina ez zuten lortu.

327. Neskek ere bazekiten begiratzen (ATA-025/011)

Andregaiak, Juanekin hasi baino lehenagotik ere, begia bota zion Juani. Mutilek ez ezik, neskek ere begiratzen zuten zein mutil gustatzen zitzaien.

328. Emakumeen bizimodua lehen eta orain (ATA-025/013)

Gaur egungo egoerari buruzko iritzia ematen du. Gaur egun, emakumeek lan egiten dute; baina lehen etxean geratzen ziren familia eta etxea zaintzen.

329. Artzainen ohiturak neguan (ATA-025/018)

Lehen, artzainaren lana neguan nolakoa izaten zen azaltzen du: artzainak behera joaten ziren negua pasatzera, batzuk Bizkaira ere bai.

330. Gazta egiteko prozesua lehen (ATA-025/024)

Lehen gazta gutxi batzuk egiten zituen; prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du.

331. Osabaren txabola berritzen (ATA-025/026)

Beraien osabak txabola zeukan. Txabola hori, baina, berritu egin behar zen, eta Juan arduratu zen horretaz. Oso gustura geratu zen emaitzarekin.

332. Norbere bakearen balioa (ATA-025/029)

Bere bakean dagoen pertsonak besteei errespetua sartzen die. Ez biziogia, ez tontoogia, tartean dago neurria. Bakea da giltza.

333. Balioa barruan dago (ATA-025/031)

Artzainen ospeari buruz hitz egiten du. Norbera ona bada, ez du zertan bere burua famatu eta ondokoa beheratu. Hortik eztabaida dator.

334. "Zenbat ardi dituzu?" (ATA-025/032)

Artzainek ez dute esaten zenbat ardi dauzkaten zehatz-mehatz. Normalean, dauzkan ardiak baino gutxiago dituela esaten du artzainak. Hori aspalditik datorren ohitura da, inork esan behar izan gabe ikasitakoa.

335. Ataungo ikastolaren sorreraren aurrekariak Lazkaon (ATA-026/016)

Ikastolaren sorrerari buruz hitz egiten du. 1965 inguruan hasi zen Ataunen sortzen; Lazkaoko ikastola sortu zenetik, inguruko herrietara zabaldu baitzen mugimendu hori.

336. Ataungo hezkuntza ikastola baino lehen (ATA-026/017)

Ikastola sortu baino lehen, Ataunen eskola pila bat zeuden.

337. Ikastola sortzeko, gurasoen babesa lortzea ezinbestekoa zen (ATA-026/018)

Ataunek demokratikoki aukeratutako alkateak, agintera iritsi zenean, hiru helburu jarri zituen. Pixkanaka, jendeari ikusarazten joan ziren hezkuntza beste era batekoa izan zitekeela. Nahiz eta ados egon, gurasoak beldur ziren: hutsetik hasi behar zuten, garestia zen... Baina, hala eta guztiz ere, hainbatek ontzat eman zuten hezkuntza-proiektu berria. Donostiako Elbira Zipitriaren esperientzia eredugarria izan zen beraientzat.

338. Ikastola oilategi batean (ATA-026/019)

Gurasoen buruak askatu zituztenean, Ataunen, 1966-67ko kurtsoan, ikastola sortu zuten, 14-16 umerekin. Lekuarekin arazoak izan zituzten: errenta altuak, obrak beraien gain zeuden... Azkenean, oilategi batean hasi zuten ikastola; behar bezala prestatu zuten hura auzolanean. Oilategirainoko bidea egiteko baimena nola lortu zuten azaltzen du.

339. Ikastolako irakasleak bilatzeko zailtasunak (ATA-026/020)

Ikastolako lehenengo irakaslea Begoña Munduate izan zen. Orduan, oso jende gutxi egiten zituen maisu-maistra ikasketak, eta horregatik, hemengo irakasle gehienak kanpotarrak ziren.

340. Elizak ikastolari emandako babesak (ATA-026/021)

Ikastolaren finantziarioa, hasieran, ikasleen gurasoen esku zegoen; gerora, bazkideen esku; eta, gerora, Elizak ere babes handia eman zuen. Xabier Zubizarreta apaiz-lagunkideak, gainera, maisu-ikasketak egin zituen, eta bera ere ikastolaren problematikan murgildu zen.

341. Ikastolako metodologia berritzaileak (ATA-026/022)

Ikastolaren helburua zen irakaskuntza euskaraz ematea eta heziketa hori integrala izatea, umea osoki osatzea. Orduko metodologian, umea zen garrantzitsua. Jolasari garrantzi handia eman zitzaion, eta metodo horri esker, umeak oso pozik joaten ziren ikastolara.

342. Don Juan Barandiaranen testamentua (ATA-026/023)

Ikastolaren arrakastak eskola nazionalen beherakada ekarri zuen. Mojek ere hezkuntzaren ardura uztea erabaki zuen. Don Juan Barandiaranek, hil zenean, Ataungo umeen heziketarako utzi zuen eraikin bat; baina baldintza baten pean: hiru kongregaziok eraman behar zuten haren ardura, horrela, heziketa kristaua bermatzeko. Kongregazioek ardura hori gehiago hartu nahi izan ez zutenean, arazoak etorri ziren, testamentua errespetatu behar baitzen. Orduan, Setien gotzainarengana joan ziren laguntza eske. Arazoak eta trikimailuak egon ziren, baina.

343. Mojak joan ostean, patronatuak hartu zuen ikastolaren ardura (ATA-026/024)

Mojak Ataungo hezkuntzatik joan zirenean, patronatua sortu zen. Haren ardura zen irakasleak aukeratzea eta eraikina jartzea. Irakasleen soldata, baina, gobernutik ordaintzen zen. Garrantzitsua irakasle onak eta aproposak bilatzea iruditzen zitzaion. Orduko lehenengo andereñoak gogoan ditu.

344. Ikastolaren arazoak eta lorpenak (ATA-026/025)

Ikastolaren lokalarekin eta irakasleen prestakuntzarekin arazoak izan zituzten; baina aurre egin ahal izan zieten. 1968an beste ikastola bat sortu zen San Gregorion: 6 bat haurrekin hasi, eta 33 ingururekin bukatu zuten.

345. Alkatearen pisua ikastolen auzian (ATA-026/026)

Demokratikoki aukeratutako alkatea izan zuten Ataunen, baina gobernadoreak dimititzeko eskatu zion. Alkateak babesak izan zuen, eta jarraitu egin zuen. Kargua utzi zuenean, gobernadoreak Ataungo eskola nazionalako maistra jarri zuen alkate, eskola nazionalak bultzatzeko asmoz. Orduan, oinarritzko baldintza batzuk eskatu zituen Ataungo patronatuak, euskarazko irakaskuntza bermatzeko, eta irakasleek jarraipena izan zezaten; baina alkatetzatik ez zituzten onartzen.

346. Francoren heriotzaren osteko hezkuntza (ATA-026/027)

Franco hil ostean, patronatuaren sistema ezabatu egin zen irakaskuntzako legeetan. Beste antolamendu bat sortu zen orduan: eskola pribatuak, publikoak eta hitzartuak. Orduko zailtasunak aipatzen ditu. Eusko Jaurlaritza ezarri zenean, herri-eskolak jarri zituzten herri txikietarako. 1984an, eskola berriaren aroa hasi zen, beraien ametsaren bukaera. Orduan ere, zailtasunak egon ziren.

347. Herri-eskolak eta ikastolak (ATA-026/028)

Herri-eskola eta ikastolen arteko aldeak aipatzen ditu. Ordura arteko eskola txikiak herri-eskolan pixkanaka joan ziren elkartzen.

348. Bailaran elkalanean, ikastolaren alde (ATA-026/029)

Ahalegin handiena maila oneko irakasleak lortzea izaten zen. Bailarako ikastolen arteko elkarlana sortu zuten, ikastolaren hezkuntza-eskaintza luzatzeko. Kilometroak ekitaldia sortu zuten garai hartan Beasainen.

349. Ikastola finantziatzeko bideak (ATA-026/030)

Aseguru-etxe batek eskaintza berezia egin zien, eta handik lortutako irabaziak bailarako ikastolen gastuak ordaintzeko erabiltzen zituzten. Auzolanean, tonbola egin zuten; eta hortik lortutako dirua ikastolarako izaten zen. Gerora, diru-laguntzen sistemak asko erraztu zuen kontua.

350. Herritarrek ikastola onartzeko prozesua (ATA-026/033)

Herrian, hasieran, borroka gogorra izan zuten, auzoetan ez baitzuten nahi bertako eskolak ixterik. Baina azkenean, bilera eta elkarrizketa ugari izan ostean, pixkanaka jendea konbentzitu egin zen.

351. Eskola nazionala vs ikastola (ATA-026/034)

Eskola nazionaletako maisu-maistrek fronte izugarria sortu zuten ikastolaren kontra, eta berealdiko irainak asmatu zituzten. Gauzak pixkanaka baretu ziren, batzar ugari eta eztabaida gogorren ostean.

352. Demokratikoki aukeratutako alkateak pasa beharrekoak (ATA-026/035)

Ikastolaren sorrerako garaian, alkatea demokratikoki aukeratu zuten Ataunen. Hori lortzeko prozesua nolakoa izan zen azaltzen du. Zailtasunak eta arazoak egon ziren, baina aurre egin ahal izan zieten.

353. Gurasoen batasunaren indarra (ATA-027/001)

Behin greba egin zuten, haurrak Lazkaoko eskolara eramanez nahi zizkieten, han ikas ezazaten. Gurasoak antolatu egin ziren; eta, azkenean, lortu zuten haurrek Ataunen ikasten jarraitzea. Gurasoak lokal batean elkartzen ziren, eta botazio bidez hartzen zituzten erabakiak.

354. Ikastola sortzeko ideia (ATA-027/002)

Ikastola sortzeko ideia nork eta nola sortu zen azaltzen du.

355. Beasaingo bileren aberastasuna (ATA-027/003)

Beasainen biltzen ziren Goierriko herri guztietako guraso-elkarteak. Han andereñoentzako prestakuntza ere ematen zuten. Gerora, prestakuntza Bergarako UNED irakaskuntzaren bitartez lortu zuten.

356. Ikastola finantzatzeko bideak (ATA-027/005)

Ikastolak sortzean, dirua lortzeko, hainbat ekintza eta bide urratu behar izan zituzten.

357. Elizak ikastolari emandako babesak (ATA-027/006)

Elizak ez zuen inoiz ikastolarako dirurik jarri; baina babesak eman zuen paper-kontuetan. Xabier Zubizarreta elizgizonak lan izugarria egin zuen ikastolaren alde.

358. Jose Migel Barandiaranen aholkuak eta ekimenak (ATA-027/008)

Herri-eskola sortu zenean, betetzat eman zuten beraien helburua. Garai hartan, Jose Migel Barandiaranengana jotzen zuten aholku bila. Barandiaranek nekazarien osasun-baldintzen alde asko egin zuen.

359. Kilometroak: sorrera eta jatorria (ATA-027/010)

Kilometroak jaialdia Beasainen egiten zituzten batzarretan sortu zen. Amerikatik ekarri zuten ideia hori.

360. Eusko Jaurlaritzaren babesak pixkanaka (ATA-027/011)

Eusko Jaurlaritza, denbora pasa ahala, gero eta erraztasun handiagoak jartzen hasi zitzaion ikastolen mugimenduari.

361. Ataungo eskolako irakaslearen aukeraketa (ATA-027/012)

Patronatuko eskola izan arren, Ataungo eskolan irakasle egokia aukeratzeko nola moldatzen ziren azaltzen du.

362. Hezkuntzako metodologia berrian, umea ardatz (ATA-027/015)

Ikastolaren hastapeneko metodologian, umea zen ardatza. Igandero ibilaldiak egiten zituzten, umeek herria ezagut zezaten. Bazkaltzeko, elkarte gastronomiko batera joaten ziren, eta orduan tertuliak egiten zituzten; bazkalondoan, umeak zinera joaten ziren. Horrek onura handia ekarri zion ikastolaren mugimenduari. Ibilaldi batean, 150 lagun elkartu ziren. Oso esperientzia aberasgarria zen hura.

363. Soldadutzako giro ona (ATA-027/017)

Soldadutza Carrascalen eta Donostian egin zuen Joxek. Orduko bizimodua kontatzen du: oso giro ona zeukaten, oso harreman ona elkarren artean...

364. Neska-laguntza, eta gaizki ikusitako erromeriak (ATA-027/019)

Joxe behin joan zen neska-laguntzera. Komeriak pasa zituen etxerako bueltan, bidea oso lokaztuta baitzegoen. Erromerietan, apaizak jartzen zuen

gramofonoa. Mendiko erromeriak ez ziren apaizen gogokoak, eta baziren hara joateagatik kongregaziotik kanpora bidali zituztenak.

365. Soldadutzan zegoela, San Luis jaietara (ATA-027/020)

Herriko festa egokienak San Luis festak izaten ziren. Joxeri, soldadutzan zegoela, baimena eman zioten festa haietara joateko. Ataun aldera joateko nola moldatu zen azaltzen du.

366. Soldadutzan, asteburuetako baimena (ATA-027/021)

Soldadutzan, asteburutan etxera itzultzeko aukera izaten zuten, galdera teoriko batzuk ondo erantzunez gero. Atauna joateko, autobusa hartzen zuten; Carrascalea itzultzeko, ordea, arazo gehiago izaten zituzten.

367. Carrascaleko meriendak (ATA-027/022)

Soldadutzan, Carrascalen, zer baldintzatan bizi ziren azaltzen du. Merienda egitera, taberna batera joaten ziren; eta han prezio ona negoziatzea lortu zuten.

368. Soldadutzako gimnasia "gogorra" (ATA-027/023)

Carrascalen egin zuen soldadutza, eta konpainiako tenientearekin zorte handia izan zuten, ez baitzien ariketa gogorrik eginarazten. Behin gimnasia nahitaez egin behar izan zuteneko anekdota kontatzen du.

369. Soldadutzako agurra (ATA-027/024)

Soldadutza garaian, 3 hilabete eman zituen Carrascalen. Agurtzeko garaia iritsi zenean, festa txiki bat antolatu zuten. Batzuk mozkortu egin ziren, eta kanpamentura itzultzeko komeriak izan zituzten.

370. Soldadutzaren "balioa" (ATA-027/025)

Soldadutzako oroitzapen onak ditu, baina hura denbora galtzea zela iruditzen zaio orain; gizarterako baliorik ez zuten gauzak ikasten zituzten han.

371. Etxean, artoa zuritu bitartean, kontu-kontari (ATA-027/027)

Umetan, ipuinak kontatzen zizkieten etxean, arto-zuritzen aritzen ziren bitartean: lehenengo arrosarioa; eta, gero, kontu zaharrak, bertsoak... Horren ostean, afaria izaten zen; zer jaten zuten azaltzen du.

372. Jentilak Agerre baserrian (ATA-027/029)

Jentilak Agerre baserrian izandako istorioa kontatzen du.

373. Sorginei buruzko istorioa (ATA-027/031)

Sorginei buruzko istorioa kontatzen du.

374. Sendabelarreko interesa piztu zitzaioneko (ATA-027/033)

Sendabelarreko zaletasuna izan du Joxek aspalditik. Izan ere, izebak infekzio izugarria izan zuen behatzean; eta, antibiotikoen bidez ezer sendatu ez zutenez, behatza moztu behar izan zioten. Gerora, beste eskuko behatz berdinean, gaitz bera sortu zitzaion. Herriko petrikiloarengana joan zen Joxe

laguntza eske; eta, hari esker, izebak behatza salbatu zuen. Esperientzia horrek beste bide batzuk ikasteko nahia piztu zuen Joxerengan; pixkanaka, sendabelarrei buruzko jakinduria enpirikoa lortu du.

375. Gaur egun ere, sendabelarrak erabilgarri (ATA-027/034)

Gaur egun, fede handia du belarrengan, batik bat gaitz klase batzuei aurre egiteko. Bilobekin izandako esperientziak kontatzen ditu.

376. Belar-ura prestatzen (ATA-027/035)

Belar-ura noizean behin hartzea oso komenigarria dela uste du. Belar-ur hori nola prestatzen den azaltzen du.

377. Hainbat belar, eta haien erabilerak (ATA-027/036)

Infekzioen aurka egiteko, berbena-belarra oso ona da. Pasmobelarra ere oso ona da; lehen abereentzat erabiltzen zen; pertsonentzat azalean erabiltzeko ere mesedegarria omen da. Beste zenbait belar aipatzen ditu, eta zertarako balio duten azaldu.

378. Oreganoaren onurak (ATA-027/037)

Oreganoak digestioa egiten laguntzen duenez, mondeju eta odolkiak egitean sartzen dute.

379. Ijitoaren jakinduria (ATA-027/038)

Behin, etxeko zaldia pixarik egin ezinik gelditu zen. Ijito batzuek eman zieten orduan sendabidea.

380. Petrikiloen ospea eta jakinduria (ATA-027/040)

Lehen, fama txarra zeukaten belarrekin sendatzen zuten pertsonak. Baina, hala ere, jendeak fedea izan ohi zuen haiengan, arazoren bat zeukanean; askotan, sendatzea lortzen zuten. Ospe txarrak, nolahi ere, mespretxua sortzen zuen bai petrikiloekiko, bai eta haien familiekiko ere. Pena da haien jakinduria idatziz jaso ez izana.

381. Eliza vs sorginak (ATA-027/041)

Sendabelarrekin lan egiten zuen jendeak ez zuen arazorik izaten Elizarekin. Elizak, ordea, izan zituen arazoak, bai, "sorginkeriekin". Gaur egungo antzezlan bati buruz hitz egiten du: sorginen bizimodua, kristauak eta jentilak...

382. Neska-mutilak elkarrekin egoteko askatasunik ez zegoenean (ATA-027/042)

Lehen, mutilak gauzez neskengana joaten ziren; beila esaten zitzaion horri. Neska-mutilek, elkarrekin egoteko askatasun handirik ez zeukatenez, hainbat bide bilatzen zituzten elkar ikusteko.

383. Ataungo ur sufretsuak (ATA-027/044)

Lehen bainuetxe bat zegoen Ataunen; han ur sufretsuak zeuden, eta haiek aprobeztatzen zituzten. Eraikuntza haren egitura azaltzen du. Hango langileen lan-baldintzak. Bainuetxeko bezeroen ohiturak.

384. Ur sufretsuaren propietateak (ATA-027/046)

Ataungo ur sufretsuaren iturriari buruz hitz egiten du. Usain txarra izaten du ur horrek; baita pozoia ere. Pozoi horri esker, azaleko arazoak senda ditzake.

385. Lehengo erritoak eta sineskerak (ATA-027/049)

Lehen, konjuruak egiteko ohitura zegoen, baserrietako uztak gal ez zitezen. Horrez gain, apaizek uztak bedeinkatzen zituzten, baserriko jeneroaren trukean. Erramu egunez, erramuak bedeinkatzen zituzten. Aste Santuan, gurutzeak bedeinkatzen zituzten, gaitzen aurka egiteko. San Juan sua gaitzak uxatzeko egiten omen zen.

386. Elizan sartzea, emakumeari sexu harremanak eduki izana barkatzeko (ATA-028/001)

Euskal Herrian etxeko martxa eramaten zuena emakumea izan arren, elizan sartzea esaten zen ekintza, apaizak emakumeari sexu harremanak eduki izana barkatzeko edo antzeko esanahiarekin egindakoa izaten zela azaltzen du.

387. Elizan, gizonak aurrean, emakumeak atzean (ATA-028/002)

Emakumeak elizara joaten zirenean, mantalina buruan jarrita joaten ziren. Gizonezkoak aurrean eseritzen ziren, bankuetan, eta emakumezkoak atzean, aulkietan. Familia bakoitzak bere lekua zeukan, garai batean hilobiak elizaren barruan egoten zirelako. Erresponsoa zer zen azaltzen du.

388. Hiru mailatako hiletak (ATA-028/003)

Hiru mailatako hiletak zeuden: lehenengo mailakoak zirenean, Lazkaoko fraile guztiek ematen zuten meza. Hileta hiru apaizek ematen zuten, organoarekin, eta banketea ematen zuten. Ondrak izeneko hiletaren errepikapena egiten zuten, bazkari eta guzti. Bigarren mailako hiletetan, Lazkaoko fraileek meza gutxiago ematen zuten, eta hileta osteko jatordua xumeagoa izaten zen. Hirugarren mailakoetan, berriz, meza simple bat izan zen. Diruaren araberakoa zen sailkapena.

389. Norbait hildakoan, auzokoen laguntza handia (ATA-028/004)

Baserri batean norbait hiltzen bazen, hileta egin artean, auzotarrek egiten zituzten baserri hartako lanak. Kaxa eraman ere auzokoek egiten zuten. Urtean zehar hainbat langintza ere elkarrekin egiten zituzten.

390. Ataungo elizaren historia (ATA-028/005)

Elizari buruzko historia kontatzen du. IX. edo X. gizaldian San Martin de Tours-izuzendutako baseliza bat zen. Hungarian jaiotako gerlaria omen zen San Martin zelako hura. XV. mendean eliza berria egin nahi izan zutenean, jauntxoari pribilegioak kentzeko asmotan, ondoko beste sail batean eraiki zuten. Elizaren ezaugarriak aipatzen ditu. Herritarren eta jauntxoaren arteko epaiketa kontatzen du.

391. Eliza ataundarrena (ATA-028/006)

Ataun, historian lehenengoz, gaztelu moduan agertzen zela azaltzen du. Ataun izenaren jatorriaz eta esanahiaz hitz egiten du. Armarrian agertzen diren osagaiak aipatzen ditu. Elizaren jabetasuna herriarena dela horretan idatzita dago.

392. Sariartegarakoa eta Sariarteazpikoa (ATA-029/002)

Sariartegarakoa eta Sariarteazpikoa daude, bakoitzak hainbat etxebizitza ditu. Orain ez da inor bizi bere jaiotetxean. Garai batean lau etxebizitza zituen, gaur egun ez da inor bizi.

393. Oinutsik oinetakoak ez hausteagatik (ATA-029/004)

Hanka-hutsetan ibiltzen omen zen aita gari-soroan ere, oinetakoak ez hausteagatik. Behin garo-pilaren gainean lo egin zueneko.

394. Etxean "bi asto" (ATA-029/007)

Bizkarka egiten zuten garraioa. Gogoan du behin oso urrutiko zelai batetik nola garraiatu zituzten anaiak eta berak bi belar-sorta, txikia berak astoarekin, eta handia anaiak bizkarrean. Auzoko baten komentarioa: "oraintxe zekiat nun dauden bi asto".

395. Bizimodu gogorra (ATA-029/008)

Belar-sortak nola egiten ziren. Oso urrunetik ekarri behar izaten zituzten, aldapa handia eta bide txarra zegoen. Bizimodu gogorra zen hura.

396. Ergoienako etxe eta baserriak (ATA-029/009)

Ergoiena Ataun San Martinetik ia lau kilometrora dago. Hango hainbat kale-etxe eta baserriren izenak ematen ditu.

397. Ikatza egiten (ATA-029/011)

Ikatza egiten ibilia da. Behin eskapada handia egin zuen, txondor gainera igo, eta ia hondoratu egin zen. Txondorra nola egiten den. Ikatza saldu egiten zen.

398. 'Duque del Infantado' (ATA-029/013)

Infantadoko Dukearen maiordomoaren etxeaz. Dukea bi aldiz ikusi zuen bere bizitza guztian. Madrilen bizi zen. Harenak dira Lizarrusti aldeko basoak. Haren ingurukoek agintzen zuten Ataunen.

399. Patxiku Errotaren karameloa (ATA-029/014)

Badira Errondo baserriak Kaxetatik gora, eta errota ere bai. Arrebarekin errotara joaten zenean, karameloa ematen zion Patxiku Errotak, "hau dek mutiko motza" esanez.

400. Zahatoa kendu mikeleteak (ATA-029/016)

Kontrabandoa aspalditik egiten zen Ataunen. Behin bazetorren bat Altsasutik zahato berria erosita. Bidean mikeletearekin topo egin eta tragoa edatera gonbidatu zuen, baina hala ere kendu egin zion zahatoa.

401. Altsasutik kontrabandoarekin (ATA-029/018)

Behin Laustierrekako batzuk Altsasutik bueltan zetozen han erositako gauzekin. Bidean mikeleteak irten eta dena kendu nahi izan zien baina batek ostikoz jo eta airean bota zuen. Udaletxera deitu zituzten arren, ez zuten zigorrik jaso. Izebak kontatzen zizkion horrelako istorioak.

402. Gerra denboran, morroi izandakoa atxilotu eta desagerrarazi (ATA-029/019)

Gerra denboran, Urkiolako mutila eta beste herritar batzuk eraman zituzten atxilotuta. Beren baserrian morroi egondakoa zen Urkiolako mutila. Ez zuten gehiago haren arrastorik atera.

403. San Martingo apaizaren bila gerra denboran (ATA-029/020)

Gerra denboran ezkutatu egin ziren zenbait. Ataungo don Martin apaizaren bila ere etorri omen ziren, baina bikarioa karlista zen eta alde egiteko esan zien, berak erantzuten zuela eta.

404. Uniforme militarren uhalez mandoarentzako hedeak egin (ATA-029/023)

Txapel gorriarekin eta korreajeekin desfilatzen zuten mutikoen San Martinen, gerra denboran. "¡Viva Santiago!" esan behar zuten eliza paretik pasatzean. Mutil baten aitak mandoentzako hedeak egiteko erabili zituen semeren uniformeko uhalak.

405. "Vuela avecilla, vuela" kantua (ATA-029/025)

Eskolan kantatzen zuten erdarazko kantu bat: "Vuela avecilla, vuela"

406. 'Cara al Sol', bertso zaharra (ATA-029/026)

Eskolan kantatzen zuten Cara al Sol kantua. Bertso zaharra; tartean "carlistas aurrera!" entzun daiteke.

407. "España es mi patria, mi madre adorada..." kantua (ATA-029/028)

Eskolan erakusten zieten beste kantu bat: "España es mi patria, mi madre adorada...". "Gloria a la patria, gloria sin fin porque alegre sabe morir" amaitzen da. Bigarren aldiz kantatzen du, lehenengoan nahastu egin da eta.

408. Eskolan piper egin zutenekoa (ATA-029/031)

Hilero joaten ziren jauna hartzera. Piper egin eta amuarrainak harrapatzera joan ziren behin. Gero maisua beraren atzetik erregelarekin eta bera ihesi; kosta omen zitzaion harrapatzea.

409. Matematika oinarri ona eskolan (ATA-029/034)

Lau erregelak eta matematikako oinarritzko gauzak ikasi zituen eskolan. Irakurri ere egiten zuten, oraindik etxean du Vida y fortuna liburua. Beste liburu bat soldadutzara eraman eta han ahaztu zuen.

410. Dotrina buruz ikasita (ATA-029/035)

Tiburtzioren lagunik onena istripuz hil zen. Dotrina buruz zekien hark eta Tiburtziok ere gehiena bai. Zati batzuk esaten ditu.

411. "San Nikolas Koronado" kantua (ATA-029/038)

"San Nikolas Koronado/ mi querido, mi amado/ haren-haren alegrie...". Letra elebidun bitxia.

412. Santa Ageda bezpera (ATA-029/040)

Santa Ageda bezperan kantura irteten ziren. Gero afaria egiten zuten batutakoarekin. Lazkaon ere ibilita dago. Lehendik datorren ohitura omen da.

413. "Gabon grazia" gabon-kanta (ATA-029/041)

"Gabon grazia" gabon-kanta errezitatzen du.

414. CAFen lanean (ATA-029/044)

CAFen egin zuen lan. Ikasle gisa hasieran, gero tailerrean eta gero bulegoan. Ordainketak egiten jarduten zuen. Eskuan ordaintzen zen.

415. Altsasuko san Pedrora erromeriara (ATA-029/047)

Altsasura joaten ziren erromeriara, San Pedrora, mendiz, arrantxoan aldean hartuta.

416. "Ya la campana sonora avisa" kantua (ATA-029/050)

"Ya la campana sonora avisa" kantua kantatzen du.

417. "Pater" apaizaren eta hartzaren istorioa (ATA-029/052)

"Pater"en istorioa. Apaiza omen zen "Pater", bere monagilloa hartza omen zen, eta hura bidali zuen Ordiziara diruarekin norbait emateko. Baina tentazioan erori, dirua jokatu eta galdu. Bukaera enigmatikoa.

418. San Martinen eliza, jentilek egindakoa (ATA-029/054)

San Martingo eliza jentilek egindakoa dela diote. Gizon handiak indartsuak omen ziren.

419. Argitasuna petrolioa erreta (ATA-031/007)

Oso leku ederrean jaio zela dio Jexuxak. Argindarra bera ezkontzeko zegoela jarri zuten etxean. Petrolioarekin lortzen zuten argia; bi edo hiru kinka izaten zituzten. Kirats handia omen zeukan.

420. "Cara al Sol" eta "Bienvenida sea usted" eskolan (ATA-031/011)

"Cara al Sol" abestu beharra izaten zuten eskolan, beso altxatuta, egunero. Norbait sartzen bazen, "bienvenida sea usted" abesten zuten. Maistrak atzamarka egiten zien.

421. Ikasgaia buruz kantuz (ATA-031/012)

Eskolan zigortu egin zituztenekoa kontatzen du Jexuxak. Ikasgaia buruz ikasi zuen eta halaxe kantatzen du. Errezatu ere egiten zuten eskolan.

422. Errepublika garaia eta tropak sartu zirenekoa (ATA-031/013)

Jexuxaren amak kontatzen zuen errepublika "altxatu" zenean, Ordiziko feriara joanak zirela eta Lazkaon etxapleguak bota zituztela. Gerra garaian, tropak sartu ziren eta herrian denbora asko egin zuten. Orduan ez zuten eskolarik izaten. Uztailaren 25ean sartu ziren tropak, Jexuxaren etxetik behera. Amarekin batera, baserri batera joan zen Ixabel.

423. Bi ataundar fusilatu zituztenekoa (ATA-031/014)

Ixabelek ikusi zituen soldaduak Ataungo bi bizilagun kamioietan sartzen. Lizarrustira eraman eta fusilatu egin zituzten. Urbasan bota zituzten. Beldurra pasatu zuen Jexuxak tropak ikusita. Soldaduak kakiz jantzita etorri zirela gogoan du Ixabelek.

424. Dantzarako aukera ugari (ATA-031/015)

Erromerietan aho-soinua jotzen zuenik izaten zen. Txistulari famatua zen Migel Mari Imaz. Soinujolea ere egoten zen. Beasaingo banda etorri zenekoa kontatzen du Ixabelek. Lizarrako dultzaineroak etortzen ziren festetan.

425. Gerra garaiko zorriak eta ile mozketak (ATA-031/016)

Gerra ostean, eskolan zorriak egoten ziren, soldaduek han lo egiten zutelako. Ixabelen amak ur irakinetan sartzen zituen anaiaren gerrako arropak, zorriak hiltzeko. Jexuxaren anaia eta senarra ere eraman zituzten soldadu gerrara. Gerra ondorenean, emakumeei ilea moztu zietela kontatzen du Jexuxak. Ixabelek dio, eskoletan ilea mozten zietela euskaraz egiteagatik.

426. Eskolatik etxera ikaratuta (ATA-031/019)

Ikaratuta ibiltzen ziren eskolatik etxera bidean; kotxea gelditzen bazen, kontuz ibiltzeko esaten zieten, umeak eraman egiten zituztela eta. "Aimariak" jotzerako (kanpaiak), etxeratu egiten ziren.

427. Elizan sartzea, bestela erdituberriak teila jarri behar buruan (ATA-031/021)

Umea ahalik eta azkarren bataiatu eta handik hamabost egunera izaten zen elizan sartzea, bikarioari oiloa oparituta. Erditu berriari opari ematen zitzaion oiloa. Elizan sartu ez zen emakume erditu berriak, teila jarri behar izaten zuen buruan etxetik irtetzeko.

428. Ezkontzak eta ezkonaurreak (ATA-031/022)

Beltzez ezkondu ziren Ixabel eta Jexuxa. Kalera ezkontzen zirenek, ospakizun xumea egiten zuten. Baserrira ezkontzen zirenek berriz, egunetako ospakizuna egiten zuten eta txekor bat edo bi hiltzen zituzten. Ezkon aurretik, bikarioak hiru dei egiten zituen, inork ezkontzaren kontra ezer esateko bazuen ere. Neskak gonbitea eskaintzen zien lagunei.

429. Nobio bat baino gehiago izan zituenari bertsoak (ATA-031/023)

Batzuk nobio bakarrarekin ibiltzen ziren eta beste batzuk askorekin. Bertsoak ateratzen zizkieten batzuei, horregatik. Bertso-paperak ferian saltzen zituzten.

430. Mutilekin gustura (ATA-031/026)

Mutilen bat gustoko izanez gero, pentsamenduan besterik ez zuten izaten. Esaterik ez zuten izaten. Dantza egin, limonada edan, paseoa egin... Horrela ibiltzen ziren. Jexuxak behin etxera berandu heldu zenekoa kontatzen du.

431. Ataungo festak (ATA-031/029)

Festetan aizkora apustuak izaten ziren eta zinta-lasterketa ere izaten zen; neskek zintak jartzen zizkieten uztai batzuei eta mutilek atera egin behar izaten zituzten. Tokan aritzen ziren eta dantzan ere bai. Tabernan lan egin behar izaten zuen Ixabelek.

432. Argazkilariari bihurrikeriak (ATA-031/030)

Erreal bikoa jasotzen zuten etxean, festetarako. San Gregorioko festetan, argazkilariari bihurrikeria egiten zioten, argazkia atera eta korrika alde egin ordaindu gabe.

433. Eskolarako bidean izandako komeriak (ATA-032/004)

Eskolara joaten zen. Etxean garrantzia ematen zioten heziketari. Eskolarako bidea ez zen oso ona. Lokatza eta aterkiarekin izandako anekdota kontatzen du.

434. Lehengo barruko arropa eta zakuzko soinekoak (ATA-032/018)

Lehen faja oso modan zegoen. Orduko barruko arropak nolakoak ziren azaltzen du. Gerra garaian, zakuz egindako soinekoak egin izan zituzten batzuek.

435. Jentilek Jesus jaio zela jakin zutenekoa (ATA-033/004)

Jentilen istorioa: Jesus jaio zeneko erreakzioa.

436. Jentilak gizonaren aurka borroka egin nahi zuenekoa (ATA-033/005)

Jentil batek gizon baten aurka egin nahi zuen borroka, eta haren bila aritu zen inguruetan. Asmoa zertan gelditu zen kontatzen du.

437. Hiru ahizpen hizkera (ATA-033/007)

Behin neska batzuk etxean haria egiten ari zirela izandako elkarrizketa kontatzen du.

438. Tartalo eta eraztunaren ipuina (ATA-033/009)

Tartalo Musiken bizi omen zen, eta gizakiak jaten omen zituen. Gizon bat harrapatu nahi izan zueneko ipuina kontatzen du.

439. Basajauna eta gariaren ipuina (ATA-033/010)

San Martin Txiki basajaunari buruz hitz egiten du. Basajauna eta jentilaren arteko abenturak.

440. Beasainmendiko familiari buruzko istorioa (ATA-033/012)

Beasainmendiko familia bati buruzko istorioa kontatzen du. Aita hil egin zen, eta amak semea hainbat erosketa egitera bidali zuen. Haren baldarkeria ikusita, nola-hala konpondu ziren aurrera egiteko.

441. Sorginei buruzko ipuina (ATA-033/014)

Sorginei buruzko ipuina kontatzen du.

442. Euliaren aurkako erremedioa (ATA-033/015)

Behin soroan lanean zebiltzala, euliak gizon bati kosk egin, eta hitzik egin gabe gelditu zen. Hura bere onera bueltatzeko erremedioa probatu zuteneko istorioa kontatzen du.

443. Apaizgaien istorioa (ATA-033/017)

Apaiz izateko ikasten ari ziren gazte batzuei etsaiarekin topo egindakoan gertatutako istorioa kontatzen du.

444. Tximiniatik sartzen zen gizontxoaren ipuina (ATA-034/002)

Tximiniatik behera sartzen zen gizontxoaren ipuina kontatzen du.

445. Bere hileta imajinatzean algaraka zebilen neska (ATA-034/004)

Zegaman gertatutakoa. Neska bat barre algaraka hasi zenekoa, hiltzean bere gorpua lau gizonek eraman behar zutela imajinatuz.

446. Ahuntzak elizan (ATA-034/006)

Elurte batean ahuntzak elizara sartu eta dena kakaz beteta utzi zutenekoaren istorioa. Apaizak, igandeko mezan herritarrei kaka banatu zien jaunartzearekin batera, denen artean eliza garbitzeko.

447. Errolanen harria eta jentilaren apustua (ATA-034/008)

Aralarreko jentil batek Errolanen harriarekin egindako apustua egin zueneko. Jentilak Uharte ibaian ura edaten zuen, hanka bat Beriainen eta bestea San Migelen jarriz.

448. Agirretarrak eta jentila (ATA-034/015)

Agirretarren eta jentil baten arteko harremanaren istorioak kontatzen ditu. Maru eta Marumendi.

449. Goñiko zaldunak eta San Migelgo herensugea (ATA-034/017)

Goñiko zaldunei eta San Migelgo herensugearen istorioa.

450. Konjuruak eta gurutzetxoak (ATA-034/019)

"Ainhoa" deitzen zioten garia eta artoak zuen gaixotasun bati. Apaizari deitu eta honek konjuruak egiten zuen soroan. Urtero Santa Kurutz egunean bedeinkatutako gurutzetxoak jartzen zituzten leku guztietan. Oraindik Ataungo auzo batzuetan mantentzen den ohitura da.

451. Sugar batek eraman zuen mutila (ATA-034/022)

Iturritzan, bazen arrosarioa erreztatzen ari ziren bitartean kalera erretzera atera, sugar bat heldu eta eraman egin zuen.

452. Sugarra Aizkorritik behera (ATA-034/024)

Sugarra Aizkorritik behera jaisten zela esaten zen. Behin, Zelestinok ikusi omen zuen eta beldur asko pasa zuen.

453. Andre zaharrez mozorrotutako herenugea (ATA-034/026)

Andre zahar batez mozorrotutako herensugea, egunero etxe batera joaten zen eta hango neskaren atzamar bat jaten zuen. Anaiari kontatu eta herensugearekin nola bukatu zuen kontatzen du.

454. Ipuinetan, landareek eta animaliek hitz egiten zuten (ATA-034/028)

Garai bateko ipuinetan, animaliek eta landareek beti hitz egiten zuten.

455. Ataungo baserrietan, lehen gehienak errentan (ATA-035/002)

Etxean errentan jarri ziren lehenengo familiakoak, eta gerora erosi zuten. Bere ama zenaren jaiotetxea zen bertan bizi zirenak jabe ziren etxe bakarra. Aldamenean bi familia eta etxean beste bi ziren. Garai batean diru pixka bat zeukanak baserria jartzen zuela kontatzen du.

456. Egurra, ikatza eta trabesak basotik (ATA-035/004)

Abereek eta basoak lan asko ematen zuten. Basoaren aprobetxamendua nola egiten zen azaltzen du: egurra, ikatza eta trenbiderako trabesak.

457. Ikatz asko egiten zen Ataunen (ATA-035/005)

Ibilitakoa da ikatza egiten. Orbegozo lantegiak lursail handiak erosi zituen ikatza egiteko. Gaztainondo zaharrak Beasaingo lantegiko labeetan erre zituztela dio.

458. Karea lurrarentzat eta paretak zuritzeko (ATA-035/010)

Karea egiten zuten. Lurrarentzat ona dela dio. Paretak zuritzeko erabiltzen zuten karea. Etxerako usain ona uzten duela dio. Harria errez egiten zuten karea. Baserri gehienek beraien karobia zeukaten.

459. Auzolanean denak (ATA-035/011)

Auzolana gauza aberatsa zela dio: batak besteari kontuak esanez, lan asko egiten zela dio. Gari-lanak nola egiten zituzten azaltzen du. Auzoko baserri guztiek laguntzen zioten elkarri. Merienda eta afaria eskaintzen zituen etxeak. Belarretan ez zen hainbesteko auzolanik egiten.

460. Erbiak ehizatzea zaletasun (ATA-035/014)

Umetan txori-habi bila ibiltzen zen. Txoriei jarraituz gero, berehala aurkitzen omen da habia. Ez du zaletasun handirik izan. Erbiekin zeukaten ehizarako zaletasuna; alanbrezko lazoan erortzen ziren.

461. Azeriak pozoitzeko baimena (ATA-035/016)

Azeriak harrapatzeko baimena zutenak ibiltzen ziren, eta ordaindu egiten zieten. Pozoia jartzen zuten. Azeriarengatik oiloak etxera sartu behar izan zituztenekoa kontatzen du. Baimena zeukan bat azeria ehizatzen saiatu zenekoa kontatzen du.

462. Larruak asko balio zuen (ATA-035/017)

Larruak asko balio zuen. Lepazuriak harrapatzen zituen bere osaba batek zepoan. Azkonarra ere harrapatzen zuten. Ehizarako esku ona behar dela dio. Pozoia jartzea debekatu zutenean gertaturiko pasarte bat kontatzen du.

463. Hamalau herrirenak Aralarko larreak (ATA-035/018)

Etxean ardiak beti ezagutu ditu. Ardiak zein larretan erabiltzen zituen azaltzen du. Garai batean, hamalau herrirenak ziren Aralarko larreak. Orain artalde txikia dutenak kanporatu egin dituztela dio. Taberna zeukan artzainari buruzkoak aipatzen ditu.

464. Gerraosteko kontrabandoa (ATA-035/028)

Janari gutxi zegoen gerraostean eta kontrabandoan aritzen ziren Nafarroa aldera joanda. Mutil bat tiroz hil zutela azaltzen du. Anekdotak bat kontatzen du.

465. Soldaduak Ataunen. Hildakoak eta desertoreak (ATA-035/034)

Bonba hotsak entzuten zituzten gerra garaian. Santiago bezperan etorri ziren soldaduak Ataunera; Santiago egunean mezetara joan eta herria beteta ikusi zuen. Gerran hildakoak aipatzen ditu. Bi desertore ezkutatu egin ziren koba batean.

466. "Soldadue, aman seme sobratue" esaera (ATA-035/035)

Soldadutzan zaldia zaintzen aritu zen. Afrikara lehenengo trenez, gero itsasontziz eta azkenik kamoi zahar batzuetan eraman zituzten. "Soldaue, aman seme sobratue" esaera aipatzen du.

467. Meza osteko tabernako egonaldia (ATA-035/047)

San Gregoriotik hiru-lau neska errotara beti elkarrekin etortzen zirela kontatzen du. Mezetara joan ostean, tabernan kontuak esaten aritzen zirela dio, anisa hartuta. Tabernariak gailetak ala tximu-jana, zer nahi zuten

galdetzen zien; momentuan ordaintzekotan, prezio bat jartzen zuen, eta apuntatu behar bazuen, handiagoa.

468. Ataungo eskola nazionalak (ATA-037/002)

Eskola nazionaletan ikasi zuen, eliza gainean. Bost urterekin hasi zen bertan ikasten eta zortzirekin Beasaingo La Sallera ("Lepatxuri" deitzen zioten) joan zen. Ataunen eskolan 4 eta 15 urte bitarteko ikasleak batera egoten ziren. Don Antonio Arteaga maisu arabarra.

469. Rafaelene tabernan dantza lotua egiten zen (ATA-037/003)

Dantza lotua debekatuta zegoen eta aguazila bikoteak banatzen ibiltzen zen. Arrondo auzoko "Rafaelene" tabernan soinu-jotzaile bat egoten zen eta hor dantza lotua eta soltea egiten zuten.

470. Uxuala edaria; tabernan neskei gonbidatzen (ATA-037/004)

Joxeren aurreko hamarkadetakoek, uxuala izeneko likore bat edaten zuten meza ostean. Tabernetara 18 urte ingururekin joaten hasten ziren, neskei edariak ateratzeko. Garai hartan, neskek ez zuten ordaintzen.

471. Mariaren Alabetatik kanporatutako neskak (ATA-037/005)

Garai batean, mugimendu erlijioso ezberdinak zeuden (Mariaren alabak, Luistarrak, Herri gaztedia...) eta Mariaren alabetatik hainbat neska kanporatuak izaten ziren, mutilekin debekatuta zeuden gauzak egiteagatik.

472. Gerraostean kontrabandoa eta estraperloa Ataunen (ATA-037/006)

Gerraosteko gosea zela eta, Ataunen kontrabandoa eta estraperloa egon zen. Garia, ogia, olioak eta bestelakoak lortzera joaten ziren Nafarroara bizikletaz. Guardia zibilaren kontrolak.

473. Umetako jolasak (ATA-037/007)

Umetan, helduei ikusten zieten erabiltzen zuten jolas moduan: egurrak jaisteko kableak egin, gurdia kargatu... Kaniketara eta pospolo-santuetara ere jolasten ziren.

474. Zortzi urterekin lanera (ATA-037/008)

Garai batean umeak 8 urterekin lanean hasten ziren, mutilak morroi eta neskak neskame bezala beste etxe edo baserri batzuetan. Oso gutxik egiten zituzten goi-mailako ikasketak.

475. Seminarioa, ikasteko jarraitzeko aukera (ATA-037/009)

Seminariora joan zen Ataungo beste 12 lagunekin. Ikasten jarraitzeko aukera bat zen. Familia askotan osabaren bat apaiza izaten zen eta bere bitartez hurrengo belaunaldietako norbait ere seminariora joaten zen.

476. Garai batean, denak elizara (ATA-037/010)

Garai batean, denak elizara joaten ziren eta ez zena joaten gaizki ikusia zen. Gaur egun, askatasuna dago. Elizak, erlijioaren oso interpretazio interesatua eman izan du.

477. Garai bateko eta gaur egungo lanaren inguruko ikuspegiak (ATA-037/011)

Garai bateko eta gaur eguneko lanbideen ezberdintasuna. Gaur egun, jendea prestatuago dago baina herrigintzaren ikuspegitik ez dago inplikaturik. Gaur egun pertsonak eta pertsonen gaitasunak askoz garrantzi gutxiagoa dute.

478. Medikuntza tradizionala eta ofiziala (ATA-037/013)

Medikuntza tradizional eta ofizialaren arteko ezberdintasunak. Sasimedikuak. Izeba bati atzamar bat infektatu eta moztu egin zioten. Urteetara, beste atzamar bat infektatu zitzaion eta sasimedikuaren erremedioekin sendatu zitzaion.

479. Garaiko eta gaur egungo albisteak (ATA-037/014)

Garai batean, inguruan gertatzen diren gauzetaz kalean eta elizan enteratzen ziren. Gaur egun, informazio gehiegi dago. Loiolako Irratia izan zen euskarazko emanaldiak ematen lehenengo irratsaioa.

480. Kultural elkarte Ataunen (ATA-037/015)

Ataunen lehenengo telebista baserri batek izan zuen. Horren ondorioz, "Kultural" izeneko elkarte bat sortu zuten eta helburuetako bat telebista bat lortzea izan zen. Gehienbat kirola ikusten zuten.

481. Ataungo txirrindulariak (ATA-037/016)

Garai batean, txirrindulariak oso ondo ikusiak zeuden Ataunen, herriko batzuk aritzen zirelako (Bixente Etxeberria, Txato anaiak...).

482. Euskara eta euskal kultura debekatuak (ATA-037/017)

Frankismoan euskara eta euskal kultura debekatua zegoen. Gaztelaniaz hitz egin behar zenez, Arabara ikastera joaten zirenak bazeuden.

483. Soldaduska; autobusak (ATA-037/018)

Soldaduska denbora alferrik galdu zuen. Instrukzioa Carrascalan egin zuen eta asteroko baimenetan Ataunera joaten zen. Carrascaletik Ataunerako autobus bidaiak 30 pezeta balio zituen.

484. Soldaduskaren instrukzio amaierako festa (ATA-037/019)

Soldaduskako instrukzioa bukatu ondoren eta bakoitza bere destinora joan aurretik, taberna bat alokatzeko ohitura zegoen, bertan parranda egiteko. Mozkortu eta kanpamentura heldu zirenean, batzuk bonbillak apurtzen hasi ziren

485. Tabernetako edariak (ATA-037/020)

Tabernetan zer edaten zuten: ardoa, garagardoa, anisa, kognac-a, "sol y sombra", pipermin, pontxea...

486. Bizikletan alde batetik bestera (ATA-037/021)

Autoa izatea ez zuen espero. Bizikletan joaten zen alde batetik bestera. Orokorrean bizimodua hobea da gaur egun, errazagoa da.

487. Gaur egun ez da horrenbeste borrokatzen (ATA-037/022)

CAF-en lan egin zuenean greba asko egon ziren langileen lan-baldintzak hobetzeko. Gaur egun ez da horrenbeste borrokatzen.

488. Gabonetako menua; "Txuia"-rekin egindako ohea (ATA-037/023)

Gabonetan, aitona eta amonaren etxera joaten ziren Aitzarte baserrira, Aizkorri inguruan. Egun pare bat pasatzen zituzten bertan. Urte berri eguneko menua: txitxirioak, urdaiazpikoa eta txorizoarekin; xerrak piperrekin; eta postrea, arroz esnea eta turroi pixka bat. Afaltzeko, mondeju-zopak. Artoaren azalarekin ("txuia") eginiko oheetan lo egiten zuten.

489. Gabonetan, kantu-eskean (ATA-037/024)

Gabonetan, kantuan ateratzen ziren eta opil moduko batzuk ematen zizkieten ordainetan. "Deo gratias" kantatze zuten hiru hizkuntzetan.

490. Errege magoak (ATA-037/026)

Garai batean ez zegoen Olentzeroren oparirik. Erregeek ekartzen zituzten opariak: goxokiak, barruko erroa...

491. Ataungo Ikastolaren sorrera (ATA-037/027)

Ataungo Ikastolaren sorreran Jaxinto izeneko apaiz batek asko lagundu zuen. Hamabi haurrekin hasi zen ikastola, oilategi izandako eraikin batean. Dirua gurasoek ipini behar izan zuten eta ikastolak ez zuenez ofizialtasunik, hurrek ez zeukaten eskolako kartillarik. Gaur egun, herri eskola da, publikoa.

492. Ataungo Urkila baserria (ATA-038/002)

Ataungo Urkila (Urkilaga) etxean jaioa. Aitaren familia aspalditik baserri hartan bizi zen. Ez zuten morroirik. Lana eta miseria. Baserriaren kokapena.

493. Eskolara ez baina dotrinara bai (ATA-038/003)

Eskolara joatea ez zen nahitaezkoa baina dotrinara joatea bai. Gurasoentzat ez zen garrantzitsua haurrak eskolara bidaltzea, baserrian lagundu behar zutelako. Herriko umeek barre egiten zieten.

494. Izebaren etxera aitona zaintzera (ATA-038/005)

Sei senidetatik zaharrena da Maria Jesus. Hamar urte zituela, hamar seme-alaba zituen izeba baten etxera joan zen bizitzera. Aitona zaintzen zuen.

495. Zepain bertsolaria (ATA-038/007)

Zepain bertsolariari buruzko pasadizo bat kontatzen du.

496. Garai batean Ataunen zeuden tabernak (ATA-038/008)

Zepainen tabernara bertsolari ugari joaten ziren: Mitxelena, Uztapide, Lazkao Txiki, Lasarte... Garai batean taberna gehiago zeuden: Kateakoa, "Navarrona", "Estanko", "Kojone", "Natine", "Kantoikoa", "Zepeine", "Benta txiki, "Maritxu"...Tabernetan, tripaki errazioak zeuden. Amerikanoak.

497. Tabernetan emakumerik ez (ATA-038/010)

Tabernetara joateko ohitura handia zegoen. Musean aritzen ziren baina apusturik ez zuten egiten. Emakumeak ez ziren tabernetara joaten.

498. Neska laguntzea (ATA-038/011)

Neska laguntzea nolakoa izaten zen.

499. San Martin eliza jentilek egin zuten; San Martin Txiki (ATA-038/013)

San Martingo eliza, jentilek egin omen zuten. San Martin Txikiren gariaren istorioa.

500. Jentilen desagertzea (ATA-038/014)

Jentilak nola desagertu ziren.

501. Ataungo "San Anton" (ATA-038/015)

Ataunen "San Anton" deitzen zioten gizon bati buruzko istorioa.

502. Gaztelaniaz hitz gutxi (ATA-038/016)

Gaztelaniaz ez zekien Amezketako emakume batek gaztelaniaz esaten zekien gauza bakarra buruz esaten du Maria Jesusek.

503. Baserrian urik ez (ATA-038/017)

Baserrian ez zuten urik eta iturritik hartzen zuten. Arropa askan garbitzen zuten.

504. Baserriko lanak: garia jo (ATA-038/019)

Baserrian egiten zituzten lanak: belarra moztu eta jaso, artoa erein, garia jo...

505. Umetako jolasak (ATA-038/021)

Baserrian taloa esnearekin eta ardia jaten zuten. Umetan atarian dametan jolasten zuten, sokasaltoan ("saltosoka"), ezkutaketan, tortolosak ("tabak")...

506. Garai bateko erromeriak (ATA-038/023)

Senarra Zepainen ezagutu, ezkondu eta Idiazabalera bizitzera joan zen. Erreza egin zitzaion aldaketa, jende asko ezagutzen zuelako. Erromerietara gutxi joaten zen. Soinu-jotzaileak. Garai bateko erromeriak askoz hobeagoak ziren.

507. Soinu-jotzaileak Ataunen (ATA-038/024)

Auzoan, soinu-jotzaile emakumezko bat zegoen eta zelaian elkartzen ziren dantza egiteko. Tarragona soinu-jotzailea tolosarra zen.

508. Sokadantza nola egiten zuten; kinkilariak (ATA-038/025)

Sokadantza ("dantzasokea") nola egiten zuten. Neska ezkongabeek bakarrik zuten dantza egiteko baimena. Arratsaldean izaten zen.

509. Ataungo "ur beltz" sendagarria (ATA-038/026)

Ataungo "ur beltz" sendagarriaren bila joaten ziren. Zertarako erabiltzen zuten. Usaia nolakoa zuen.

510. Basoan lanean, zuhaitzak aldatzen eta ikazkintzan (ATA-039/002)

Basoan lan egin izan du, bakantze lanetan, zuhaitzak aldatzen, ikatza egiten... Garai batean pinuak eta pagoak aldatzen ibili ziren Aldundiarentzat. Beraiek aldatutako pagoak bota egin zituzten gero, nekez irteten zela eta. Ikatza batez ere Orbegozo lantegiarentzat egiten zuten, burdinurtua egiteko. Duela gutxi bota duten harizti baten inguruko kontuak.

511. Zuhaitzen inausketaren inguruko azalpenak (ATA-039/004)

Zuhaitzen inausketaren inguruko azalpenak. Udaberrian egiten zuten, apiril inguruan. Ilargia kontuan izaten zen: pagoa ilberrian, haritza ilbeheran. Pagoa ilberrian botaz gero, zuria ateratzen da; ilbeheran botaz gero, berdea. Inausketa nola egiten zuten.

512. Inausitako adarrekin txondorra (ATA-039/005)

Inausitako adarrekin txondorra egiten zuten. Urte hasieratik hasten ziren egurra txikitzen eta maiatz aldera bukatzen zuten. Gero txondorra udaran egiten zen.

513. Egurra eskuz mozten zuten (ATA-039/006)

Egurra eskuz mozten zuten, esku-zerrarekin edo aizkorarekin. Gogoan du behin oholak eginda atera zutela materiala. Horretarako, arpana erabiltzen zen. Prozesuaren inguruko azalpenak.

514. Basoko langileak (ATA-039/008)

Aita ere basoan ibiltzen zen lanean, baina basoko lanean bere kabuz, lanean jardunda, ikasi zuela dio. Taldeetan edo "lantegietan" ibiltzen ziren. Bere nagusia aiarra zen: Felipe Artza. Hiru ziren nagusiak eta Orbegozo lantegiarentzat lan egiten zuten. Gogoan du Igaratzatik behera behin 28 lagun aritu zirela lanean.

515. Alda-pagoak, bereziak (ATA-039/013)

Alda-pagoek 3-4 metroan enborra lisoa izaten zuten. Kanpotik ekarritakoa zen, baina ez daki nondik. Gaur egun ez da halakorik ikusten. Egurra ikatza egiteko erabiltzen zen. Enborra dinamitarekin txikitzen zuten. Hemengo pagoen aldean egur asko ematen zuen, 4-5 erro izaten zituen eta. Alda-pagoa edo pago-motza inausitakoa izaten zen. Non hazten zen. Lurrak eta eguteraan edo ospelean egoteak zerikusia izaten du zuhaitzetan.

516. Basoko lana, gogorra: gau eta egun bertan (ATA-039/014)

Basoan "lantegian" lanean jarduten zutenean, txabola egin eta bertan lo egiten zuten. Sukaldaria edo "arrantxeroa" izaten zuten. Lan gogorra zen basokoa. Soldata. Gerraostean, errazionamendu sasoian, ardoa errazionamenduan eta ogi eskasia ere egon zen. Babarekin bakarrik pasa behar eta hura ere zomorroekin.

517. Materiala mandoekin eta kableekin ateratzen zuten basotik (ATA-039/016)

Alda-pagoa materialetarako ere erabiltzen zen. Gerriarekin, enborrarekin, oholak egiten ziren, liso-lisoa izaten zen eta. Materiala nora ateratzen zuten, lehenbizi mandoekin eta gero kablean. Gurdirik ezin sartu, bide txarrak zeudelako.

518. Baserria erre zitzaienekoa (ATA-043/006)

Garai batean denek euskaraz hitz egiten zuten Ataunen. Anttonek Gasteizen ikasi zuen gaztelaniaz, Estampaciones Rubi lantegian (Gasteiz) lanean. Atauneko baserria erre egin zitzaien.

519. Ataunetik Gasteizera lanera (ATA-043/007)

Legorretako lantegi batean lan egin zuen Anttonek, baina toxikoa zen osasunarentzat eta utzi egin zuen. Hamahiru urterekin familiako baserria erre zitzaien eta beste bar errentan hartu zuten. Osaba batek Frantzia kalean taberna bat ireki berri zuen eta haren bitartez familia Gasteizera bizitzera joan zen.

520. Kanpotik joandako langileekin gaztelania ikasten (ATA-043/008)

Arantxak Ataunen denda batean lan egiten zuen eta bertan gaztelaniaz hitz egiten ikasi zuen. Espainiatik jende asko joan zen Ataun ingurura baserrietan eta basoetan lan egitera.

521. Eskolan bakarrik entzuten zuten gaztelaniaz (ATA-043/009)

Eskolan bakarrik entzuten zuten gaztelaniaz hitz egiten. Ezkondu arte neskame batean ibili zen baserri batean lanean.

522. Euskaraz hitz egiteagatik mehatxatua eta kritikatu (ATA-043/011)

Gasteizera joan zeneko oroitzapen txarrak ditu Arantxak, dena gaztelaniaz zelako. Euskaldunak zirenak elkarrekin egoten saiatzen ziren. Euskaraz hitz egiteagatik mehatxatu zuen bizilaguna gogoratzen du.

523. Gasteiz, guztiz erdalduna (ATA-043/013)

Gasteizera bizitzera joan zirenean, Arantxa ez zen gustura sentitu. Euskaraz ezin hitz egiteak deseroso sentiarazten zion eta bakarrik sentitzen zen. Gasteizen, euskara eta gaztelania egingo zela uste zuten, Ataun inguruko beste herri batzuetan bezala. Baina aurkitu zutena bestelakoa izan zen.

524. Lantegian euskaraz egiteagatik kritikatuak (ATA-043/014)

Anttonen lantokian, bi euskaldun ziren: bera eta durangar bat. Behin, lankide batzuk haien kontra hasi ziren euskaraz hitz egiteagatik eta euskalduna ez zen beste lankide batek haien alde atera zen.

525. Lehen euskaraz egiteagatik gorrotatuak; orain, mirestuak (ATA-043/020)

Gasteizen egin dituzten lagunak, erdaldunak dira. Gaur egun, euskara askoz gehiago entzuten da Gasteizen eta ez dakitenek jakin nahiko lukete ere. Eusko Jaurlaritzak euskara bultzatu du. Gaur egun gustura bizi dira Gasteizen.

526. Euskararekiko ikuspegiaren aldaketa Gasteizen (ATA-043/021)

Gasteizeko euskararen erabilerari buruz. Euskaraz ikasten duen jendearentzat, praktikatzeko leku edo gune gehiago behar dira. Antton eta Arantxarengana askotan joaten dira euskaraz praktikatzeko.

527. El Vasquiño eta La Vasca (ATA-043/022)

Nahiz eta eremu erdaldun batean egon, haien arten beti euskaraz egin izan dute. Antton-i "Vasquiño" deitzen zioten lantegian eta Arantxari ere "la Vasca".

528. Seme euskaldunak, euskara ahazten (ATA-043/024)

Bi seme dituzte eta umetan joan ziren Gasteizera bizitzera. Hasieran gaizki pasatu zuten hizkuntzagatik baina gerora, euskara ahazten hasi ziren. Etxean bakarrik egiten zuten euskaraz.

529. Bizilaguna, ezkutuan euskara ikasten beraien etxean (ATA-043/025)

Carlos Subijana bizilaguna zuten eta haien etxera maiz joaten zen euskara ikasteko. Bere gurasoek ez zioten uzten ez euskara ikasten ezta haien etxera joaten ere. Lagun handia dute gaur egun ere.

530. Semeak, euskaraz hezi izanagatik eskertuak (ATA-043/029)

Bilobek beraiekin euskaraz egiten dute. Atauneko euskarara jotzen duten arren, batzuetan aitona-amonak zuzentzen dituzte. Semeak, euskaraz hezi izanagatik oso eskertuak dira.

531. Abizen euskaldunak izateagatik atxikituak (ATA-043/030)

Behin, semeek arazoak izan zituzten guardia zibilarekin, bi abizenak euskaldunak zituztelako.

532. Lehen hitza gaztelaniaz (ATA-043/031)

Ohituragatik, lehen hitza gaztelaniaz egiten dute,, uste dutelako jendeak ez dakiela euskaraz. Gero, euskaraz erantzuten badiete, asko pozten dira. Uste baino jende gehiagok daki euskaraz edo ikasten ari da.

533. Zer da euskara zuretzat? (ATA-043/034)

Euskara zer den beraietzat. Gaztelania baino zaharragoa den hizkuntza bat galtzea ezinezkotzat jotzen dute.

534. Euskara, integrazioarako tresna (ATA-043/035)

Espainiatik Gasteizera lanera joandakoen ilobek normalean euskaraz badakite. Ez duenak ikasten, berekoia delako da. Nazioartetik etorritakoek euskararekiko inplikazio gehiago dute.

535. Euskara eta gaztelania, biak dira inportanteak (ATA-043/038)

Gaztelania ere garrantzitsua da. Arantxaren ama Gasteizera bisitan joaten zenean, ezin izaten zuen inorekin hitz egin. Bi hizkuntzak dira garrantzitsuak eta gorrotoa ez da bidea.

536. Euskaldunak izateagatik diskriminatuak (ATA-043/040)

Gaztelera bizitzera joan zirenean, euskaldunak izateagatik diskriminatuak izan ziren. Gaur egun, euskaldunen eta erdaldunen komunitateak ez daude lehen bezain urruti.

537. Euskararen erabilera (ATA-043/041)

Gasteizera bizitzera joan zirenean, ahal zuten leku guztietan euskaraz hitz egiten zuten. Gaur egun, ohituragatik gaztelaniaz egiten dute baina euskaldunen bat antzematen badute, hitz egitera joaten dira.

538. Beste euskalki batzuk ulertzeko zailtasunak (ATA-043/042)

Euskara batuko hitz asko ez dituzte ulertzen. Beste euskalki edo tokian tokiko euskarak ulertzeko zailtasunak. Bizkaitarrek ulertzen dute beraien euskalkia, baina haiek bizkaitarrena ez.

539. Euskalkia ez ulertzeagatik, gaztelaniaz hitz egin beharra I (ATA-043/044)

Behin, Txagorritxuko ospitalean Arrasateko emakume bat zegoen Anttonen arrebaren gelan. Nahiz eta euskalduna izan, gaztelaniaz egin behar izaten zuten berarekin, ez ziotelako ulertzen.

540. Euskalkia ez ulertzeagatik, gaztelaniaz hitz egin beharra II (ATA-043/045)

Antton Gasteizen lanean hasi zenean, lantegian Durangoko euskaldun bakar bat zegoen baina ez zuten elkar ulertzen.

541. Euskara batuaren onurak (ATA-043/046)

Euskara batuaren onurak.

542. Seminarioan euskaraz hitz egitea debekatuta (ATA-044/001)

Seminarioan ia denak euskaldunak ziren baina euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten.

543. Ozaetako udalekuak (ATA-044/002)

Hogeita bi urte zituela, ikastolako udalekuetan lan egiten hasi zen, Ozaetan (Araba). Orduan ikastolak ez ziren oraindik ofizialak eta elizaren arrimoan zeuden.

544. 1968ko maiatza Parisen (ATA-044/003)

1967an Parisera joan zen airez aldatzeko. Zuzenean Euskal Etxera joan zen eta bertan Euskal Herritik ihes joandako hainbat ezagutu zituen. 1968ko maiatzaren ondorioz, euskal ikasle asko joan ziren Parisera ikastera eta Euskal Etxearen giroa asko indartu zen.

545. Baionako Euskal Aste Kulturalak I (ATA-044/004)

Gabonetan, Paristik Baionara joaten ziren. 1971-1972 artean Euskal Asteak antolatzen hasi ziren. Parisen euskal errefuxiatu asko zeuden. Piarres Xarriton eta Jean Haritzelhar ziren Euskal Astearen bultzatzaile nagusienak.

546. Baionako Euskal Aste Kulturalak II (ATA-044/006)

Baionako Euskal Aste Kulturalako egitaraua. Aspaldian ikusi ez zituzten Hegoalde lagunak ere ikusten zituzten.

547. Oskorri eta Gabriel Arestiren emanaldi eztabaidatsua (ATA-044/007)

"Saioa" aldizkaria. Oskorri eta Gabriel Arestiren emanaldi eztabaidatsua. Gizartea pil-pilean zegoen.

548. UEUren hastapenak I (ATA-044/008)

Donibane Lohizunen lehen aldiz antolatu zen Udako Euskal Unibertsitatea 1973an. 1974 Zabal-Elkar liburu-denda zabaldu zuten.

549. UEUren hastapenak II (ATA-044/009)

Maite Barrenetxek, France 3 kateko euskal kazetaria, lau gazte aukeratu zituen UEU-ko hastapenei buruz hitz egiteko. Grabazioa gero debekatu egin zuten eta ez zen inoiz telebistan eman.

550. UEUren hastapenak III: bilkurak (ATA-044/010)

Ipar Euskal Herrian, Manex Goienetxe izendatu zuten UEUko urteroko lanen arduradun. Hik Hasi-ren bitartez hasi ziren lanean. Kristiane Etxaluz, Xarles Bidegain, Martin Orbe...

551. Euskal Unibertsitaterik ez, UEU gabe (ATA-044/011)

UEU Hego Euskal Herrian nola hasi ziren. Hasieran ikastaroak euskaraz eta gaztelaniaz izaten ziren. Euskal Unibertsitaterik ezin da egin UEU kontuan hartu gabe.

552. UEU-ren borroka (ATA-044/012)

Euskarari ez zitzaion balorerik ematen goi-mailako ikasketetan. UEU-ren helburua, unibertsitateko ikasketak euskalduz euskarari indarra ematea izan da.

553. UZTARO aldizkaria (ATA-044/013)

Uztaro aldizkaria sortzeko beharra eta Jokinen parte-hartzea. Giza eta Gizarte-jakintzak batuko zituen aldizkaria lortu nahi zuten.

554. UZTARO aldizkariaren erronkak (ATA-044/014)

Uztaroren belaunaldi berriak askoz formatuagoak zeuden eta aldizkariaren erronkak aldatzen joan ziren eta nazioartekoa bihurtzea nahi zuten. Gaur egungo erronka nagusia, euskarazko lan edo ikerketek, beste hizkuntza ofizialetako lanei ematen zaien garrantzi eta balioa berdina izatea da. Horretarako, Unibertsitatearen lana beharrezkoa da.

555. UEUren Ipar Euskal Herriko helburua (ATA-044/015)

Ipar Euskal Herrian, unibertsitate euskaldun bat behar da eta UEUK asko lagundu dezake lan horretan.

556. UEU mugimendu sozial handi bat da (ATA-044/016)

UEU beti eraldatzen dagoen mugimendu sozial handi bat da.

557. Perunezarra etxean sortua (ATA-045/001)

Ataungo Perunezarra etxean sortu zen. Perune berria egin zenean jarri zioten "zarra" lehengo etxeari.

558. Etxean ikasi zuen irakurtzen; eskolan, euskaraz egitearren, eraztuna (ATA-045/002)

Ataungo etxe batzuetan haurrei eskolara joan baino lehen etxean irakurtzen irakasteko ohitura zegoen. Berari ere anai-arreba nagusiagoek irakatsi zioten. Bost urterekin hasi zen eskolan. Irakaslea Manuel Arrese ataundarra. Dena gaztelaniaz egin behar izaten zuten. Euskaraz egiten zuenari eraztuna jartzen zioten eta astearen azkenean eraztuna zuenari makilaka.

559. Eskolatik piper egiten zuen, maisuaren beldur (ATA-045/004)

Eskolara joateko beldurrez egoten ziren eta, horregatik, piper asko egiten zuen. Erdibidean geratzen zen, borda batean sartuta. Behin estoldan ere egon zen ezkutatuta.

560. Apaiza izateko erabakia (ATA-045/006)

Eskolan musika ikasten zuten organistarekin eta tiple moduan elizan abesteko aukeratu zuten. Handik egin zuen harremana apaizekin. Amak nagusitan zer izan nahi zuen galdetu zionean "apaiza" erantzun zion. Amak gauza zaila zela esan zion.

561. Baliarraingo seminarioan gertatutako pasadizoa (ATA-045/008)

14 urte zituela, aitak Baliarraingo seminariora eraman zuen. Hango erretoreak goizeko seieta jaiki behar zirela esan zien gaztelaniaz eta hori ondo ulertu zuen. Urduri pasa zuen gaua, baina goizean sasoiz esnatu zen. Besteei abisatu nahi zien seiak jo zituela, baina ez zekien ondo nola esan. Azkenean "señores, han pagado las seis" esan zuen.

562. Biarritzen, Hernio mendiari begira (ATA-045/010)

Biarritzen bizi izan zen hiru urtez, erbesteratuta. Hango farora joan eta ondoko banku batean eserita egoten zen. Bertatik Hernio mendia ikusten zuen parez pare eta bazekien tontor hartatik bere jaiotetxea ikusten zela. Hara ezin joanaren penaz egoten zen.

563. Euskal Herriarekiko sentimendua (ATA-045/012)

Euskal Herria zer den berarentzat.

564. 'Bidegileak' eta Maria Dolores Agirre (ATA-046/002)

Eusko Jaurlaritzak agindu zion Lurdesi, EIZI Erako Maria Dolores Agirreraren antzerki lan bat zela eta harekin harremana izan baitzuen Lurdesek.

565. Nola ezagutu zenuen Maria Dolores? (ATA-046/003)

80ko hamarkada amaieran ezagutu zuen Maria Dolores. Itzultzaile aintzindarien lanen artean Maria Doloresen antzerki itzulpen lan bat aukeratu zuten. Hori zela eta, itzulpen lan hori argitaratzeko harengana jo zuen Lurdesek. Antzertiren dokumentuen artean topatu zuten itzulpenaren kopia.

566. Maria Dolores Agirre, euskaltzale sutsua (ATA-046/004)

Maria Dolores emakume izugarria da Lurdesentzat, irekia, hiztuna, euskaltzale sutsua. Itzulpenarekin asko gozatu omen zuen Maria Doloresek, kanpoko antzerki konprometituak eta klasikoak ekarri zituen Euskal Herrira, antzeztuak izan zitezen eta euskarak bizirik iraun zezan.

567. Maria Dolores Agirre: maistra ikasketetan aintzindari (ATA-046/006)

Errezildarra zen Maria Dolores Agirre, baserri batean jaio zen. 13 bat urtera arte elebakarra izan zen. Herri eskolan aritu zen 7-8 urte bete zituen arte. Ondoren, lanean hasi zen gurasoen dendan. Donostiara gaztelaniarik jakin gabe joan zen bizitzera, baina Kixote irakurrita. Maistra ikasketak egin zituen eta euskara irakasten hasi zen.

568. Maria Dolores Agirre, jende ezagunaren irakasle (ATA-046/007)

Euskara eskolak emateko iragarkia jarri eta egun berean lortu zituen ikasleak. Donostiako jende garrantzitsua izan zuen ikasletzat. Maistra lanetan ere aritu bazen ere, kuttunena antzerkia zuen. Donostian antzerki eskola zuzendu zuen: Euskal hizkera eta itzunde eskola (Euskal Itzundea).

569. Alaba moja, semea medikua (ATA-046/008)

Alaba eta seme bana izan zuen Maria Dolores Agirrek. Alaba, Maria Dolores izenekoa, moja sartu zen. Urte mordoa egin zituen kanpoan laguntzen. Semea, aldiz, medikua zen eta Madrilen bizi zen.

570. Maria Dolores Agirre eta Elbira Zipitria (ATA-046/009)

Maria Dolores Agirre eta Elbira Zipitria oso desberdinak omen ziren izaera aldetik. Elbira Ataunera joan ohi zen eta horrela ezagutu zuen Lurdesek.

571. Irratigintza pasio (ATA-046/010)

Maria Dolores Agirreren antzezlanetan erabilitako euskara kritikatu izan zen zenbaitetan. Irratigintza ere pasio zuen Maria Doloresek, euskara ahalik eta eremu gehienetan zabaldu nahi zuen. Horrela, La Voz de Guipuzkoan aritu zen irratsaio batean lanean.

572. Antzerki eskolarako oposaketak (ATA-046/011)

Maria Dolores Agirre maistra ikasketak egiten lehenengo emakumeetako bat izan zen. Gainera, antzerki eskola bat ere ireki zuen, oposaketa gogor batzuen bidez. Lan gehien ezkondu eta umeak izan ondoren egin zuen, etxeko ekonomiari mesede egiteko.

573. Irakasleen formatzaile (ATA-046/013)

Antiguon hasi zen Maria Dolores Agirreren maistra bizitza. Euskara eskolak etxean emateaz gain, beste hamaika tokitan ere eman zituen eskolak, irakasle formakuntzan, adibidez.

574. Antzezten eta deklamatzeko, biak irakatsi (ATA-046/014)

Euskal itzundea antzerki eskolako zuzendaria izan zen Maria Dolores Agirre, baina antzerki eskolez gain, euskaraz deklamatzeko ere erakusten zuen bertan.

575. Beti irribarrea ezpainetan (ATA-046/015)

'Gozotasuna' erabiltzen du Lurdesek Maria Dolores Agirre deskribatzean. Beti irribarrez zegoen emakume dotorea.

576. Antzerkigintzan gerra aurretik eta ondoren (ATA-046/016)

Maria Dolores Agirrek antzerki eskolako zuzendari izateko oposaketak 1933an atera bazituen ere, gerrak dena eten zuen. Gerra aurretik Toribio Altzagarekin aritu zen. Gerra ondoren bere aldetik ekin zion bideari.

577. Joxe Mari Etxebeste, Agirreren laguntzaile (ATA-046/017)

Joxe Mari Etxebeste izan zen Maria Dolores Agirreren laguntzailea. Antzerki eskola zaharra itxi zenean hark ireki zuen berria.

578. Munduko obrak euskarara ekarri (ATA-046/019)

Maria Dolores Agirrek Euskal Herrira, eta batez ere, euskarara ekarri nahi izan zituen antzerki lan asko. Horretarako, bere kabuz itzulpenak egiten aritu zen.

579. Antzerkigintzan ere belaunaldien talka (ATA-046/021)

Maria Dolores Agirreren antzerkigintzak Jarrai antzerki taldearekin talka izan zuen. Eztabaida sortu zen, Maria Dolores Agirre, berritzailea izan bazen ere, tradizionalista ere bazen. Jarrai antzerki taldeak, ordea, antzezlan modernoagoen alde egin zuen apustu.

580. Frankismoan, hizkuntzaren alde (ATA-046/022)

Maria Dolores Agirrek ez zuen politikaz hitz egiten. Hala ere, Frankismoaren garai gogorak pasa zituen, eta euskararen alde egite hutsa iraultzailea eta ekintza kontzientea zen orduan.

581. Maritxu Urreta, itzultzaile aintzindari (ATA-046/024)

Maritxu Urreta itzultzaile aintzindaria izan zen, Maria Dolores Agirrerekin batera. Hizkuntzak zituen pasio, hizkuntza asko ikasi zituen. Argazkigintzan ere aritu zen.

582. Euskerazaintzako kide (ATA-046/025)

Maria Dolores Agirre Euskerazaintzako kide zen, gero Euskaltzaindiarekin talka izango zuena. Beti herriko euskara defendatu zuen berak eta euskara batuaren ideiak hamaika eztabaida ekarri zituen euskal gizartera.

583. Hamabi senide, ez monja eta ez fraide (ATA-047/002)

Senideetan bat bera ere ez zen ez moja ez fraide izan. Etxean asko zirenez, jendea behar zuten baserrian lan egiteko. Aitonak ez zituen fraideak gustuko. Bere amak hogeitun urtean, hamabi haurdunaldi eta hamabi seme-alaba izan zituen.

584. Eskolan euskaraz egitearren, maistrak jo egiten zuen (ATA-047/003)

Senideek esaten diote ume negartia eta petrala zela. Haurtzarokoak urte zoriontsuak izan zirela dio. Eskolako maisua eta maistra herrikoak ziren. Maistra, maisua ez bezala, euskararen aurkari handia zen. Erdaraz hitz egiteko arazoak zituenez, maistrak jo egiten zuen. Izugarritzko beldurra eragiten zion.

585. Donostiara kolegiara (ATA-047/004)

Gurasoek apaizarekin hitz egin zuten eta Donostiara bidali zuten, kolegio batera. Erdaraz berehala ikasi zuen eta han ez zuen inolako arazorik izan. Lau urte egin zituen han, Beasainen institutua ireki zuten arte.

586. Udalekuetan Frantzian (ATA-047/006)

Kolegio frantsesean egon zenean, udalekuetara joan zen Frantziara, Bordele ingurura.

587. Kartzelaldiaren ondoren, atzerrira (ATA-047/007)

Beasaingo institutuan zegoela, Martuteneko kartzelara eraman zuten. Epai-bidean jarri zuten eta institututik bota egin zuten. Hilabete gutxira atzerrira ihes egin behar izan zuen. Urte batzuen ostean itzuli eta ikasketekin jarraitu zuen.

588. Burgosko epaiketa gako (ATA-047/008)

1974ko giro sozio-politikoaz azaltzen du. Burgosko epaiketan ataundar bi zeuden. Oso gazte hasi ziren mobilizazioetan. Orduan hartu zuen kontzientzia politikoa.

589. ETari laguntzeko egiten zuena eta atzerrirako bidea (ATA-047/009)

ETA 1974an zer zen azaltzen du. ETari laguntzeko egiten zituenak aipatzen ditu: propaganda zabaldu, ikurrinak josi, ekintzak antolatu, euskara eskolak eman... Atzerrira zergatik joan zen azaltzen du.

590. "Pertur" ETakidearen desagerpena (ATA-047/010)

1976an desagertu zen bere bikotekide zen "Pertur". ETako buruzagietako bat zen. ETako hainbat kidek behin bahitu egin zutela kontatzen du. Desagertu zenetik ez dute ezer jakin. Tirabira handiak zeuden ETaren baitan, bereziki Franco hil eta gero. "Pertur"ren desagerpenaren inguruko bere iritzia ematen du.

591. Amnistiaren aldeko batzordetik Zeruko Argiara (ATA-047/012)

Atzerritik itzultzea lortu zuenean, 1976an, Amnistiaren aldeko batzordean lan egin zuen. Gero, Zeruko Argian hasi zen lanean, Elixabete Garmendiak proposatuta. Orduko hainbat pasarte eta kideren berri ematen du.

592. Zeruko Argiatik, itzultzaile eskolara eta handik Euskadi Irratira (ATA-047/013)

Zeruko Argia izateari utzi eta Argia izatera pasatu ziren. Harpidedun batzuek oso gaizki hartu zuten. Argia utzi eta itzultzaile eskolan hasi zen. Euskal irrati telebistako bigarren promozioan Euskadi Irratian sartu zen. Hiru urtez aritu zen han. Egoitza non zegoen azaltzen du.

593. Zeruko Argiaren prestaketak inprentarako (ATA-047/014)

Zeruko Argian aldizkaria inprentarako nola prestatzen zuten azaltzen du.

594. Zeruko Argia, kaputxinoena (ATA-047/015)

Zeruko Argia kaputxinoek sortu zuten eta haiena zen egoitza. Anekdotak batzuk kontatzen ditu.

595. Zeruko Argia: informazioa eskuratzeko orduko bideak (ATA-047/016)

Gipuzkoako Aldundiko artxiboa, liburuak, elkarrizketak... erabiltzen zituzten informazioa eskuratzeko.

596. Kazetaritzaren oraingo gabeziak (ATA-047/017)

Gaur egun informazioa ez dela kontrastatzen uste du.

597. Euskadi Irratiko magazina (ATA-047/018)

Euskadi Irratian goizean lehenengo orduan egiten zen magazinean lan egiten zuen. Irratia entzuteko ohitura handia dauka.

598. Irratiko giroa hauteskundeetan (ATA-047/019)

Irratia gozamina zen beretzat, ez bazen giro politikoarengatik. Adibidea jartzeko hauteskunde garaiko gertaera bat kontatzen du.

599. Euskaraz alfabetatzea eta kontzientzia (ATA-047/020)

Herrian bertan alfabetatu zen euskaraz. Hizkuntzarekiko kontzientzia beti izan du eta horrekin jardun izan du bere lanpostuetan.

600. Yoyesen hilketaren ondoren, irratia utzi (ATA-047/021)

Politika kontuengatik utzi zuen irratiko lana. Yoyes gaztetatik ezagutzen zuen. Atzerritik itzulita berarekin topo egin zuenean, oso urduri sumatu zuen. Yoyes hil zuten eguneko bizipenak kontatzen ditu. Osasun arazoak eragin zizkion.

601. Irratia utzi eta itzulpengintzara (ATA-047/022)

Irratitik eszedentzia hartu zuen eta beste gauza batzuk egiten hasi zen, tartean itzulpenak. Ez zuela itzuli nahi erabaki zuen eta itzultzaileen elkartearekin sortzeari ekin zion.

602. EIZIE elkartearen sorrera (ATA-047/023)

EIZIE elkartearekin itzultzaile eskolaren eta itzulpen lanen ondorioz sortu zuten. Euskaltzaindian Juan San Martinek garbi ikusi zuen beharrezkoa zela euskarak iraungo bazuen. Hasierako bizipenak kontatzen ditu.

603. Itzulpengintza ikasketak unibertsitatean (ATA-047/024)

Eusko Jaurlaritzak beste itzultzaile eskola bat sortu zuen, administrazioari lotuta zegoena, baina itxi egin zuten gero. Itzulpengintzak unibertsitate ikasketak izan zituzala eskatu zuten eta master bat jarri zuten martxan. Lurdes irakasle aritu zen bertan.

604. Hizkuntza Politikarako Sailburuorde izan zenekoa (ATA-047/028)

Hizkuntza Politikarako Sailburuorde izan zenean, oso gauza gogorak bizi izan zituen. Kritika gogorak jaso zituela kontatzen du.

605. Elkarte federalistan lanean (ATA-047/029)

Elkarte federalista batean lanean ari da, Espainiako lurralde-krisiari konponbidea topatzeko. Eredu federala zer den azaltzen du.

606. Gatazka gainditzeko bideak (ATA-047/032)

GAL eta ETako biktimen arteko gerturapenaz eta ETari lotutako iritziez hitz egiten du.

607. Ataungoa eta ataundarra (ATA-050/003)

Ataungoa eta ataundarra, esanahi desberdina duela azaltzen du. Identitateak eta herri egiten aritzeak ematen du ataundartasuna bere ustez.

608. Joxe Miel Barandiaran ataundarra (ATA-050/005)

Barandiaran ataundarra zen eta hori zortea izan da mitologiaren gaia herrian lantzeko. Aldi berean, herrian ez zitzaion Barandiaranen lanari garrantziarik ematen bere garaian; baliorik gabeko lantzat hartzen zen. Bere bizitzako azken urteetan, ordea, aitortpena jaso zuen.

609. 1981ean Jentilen Etorrera lehenengoz (ATA-050/006)

1981ean San Martin auzoko festetan jentilekin lotutako zerbait egitea bururatu zitzairen. Jentilak, agintariak, sorginak, eskulangileak... izan zituzten protagonista. Elkarbizitzarako mezua zeukan ekimenak.

610. Jentilen Etorrera, antzerki garatua (ATA-050/007)

Urte batzuek igarota, antzerki garatuagoa egiten hasi ziren. Urtero istorio berria oholtzaratzen zuten. Pilotalekuan egiten hasi ziren gero.

611. Mojen eskola herrian, apaiz baten ondasunei esker (ATA-050/012)

Juan Barandiaran Zeberio apaiza zen. Bere ondasunak eskolarako eman zituen. Merzedariak ziren mojak. Mojen izenak ematen ditu. Ingurua eta etxea nolakoak ziren kontatzen du Jonek. Anekdota bat kontatzen du.

612. Eskolako bizipenak (ATA-050/013)

Urtebete mojekin egon ostean, eskola nazionaletan hasi zen Jexux, Don Antonio Arteaga Zulueta irakaslearekin. Arbela eta tinta erabiltzen zituzten; denak gela berean egoten ziren, zazpi urtetik hamalaura bitarte. Eklipsea ikusi zutenekoa kontatzen du. Espainiako bandera ateratzen zuten egunero, Cara al Sol kantatuz.

613. Eskolako zigorra eta zereginak (ATA-050/014)

Eskolan zigor gogorrek jasotzen zituzten. Egurra ekartzeko txandakatu egiten ziren ikasleak. Aldaketa garaia bizi izan zuten: bizimodu aldaketa, industrializazioa, kanpotarren etorrera...

614. Kanpotik etorritakoen bizimodu gogorra (ATA-050/015)

Umeek ezizenak izaten zituzten. Kanpotik etorritakoak miseriatik zetozela kontatzen dute; Ataunera etorri eta zein baldintzatan bizi ziren batzuk azaltzen dute. Anekdotak kontatzen ditu Jexuxek.

615. Sakristauaren enkarguak (ATA-050/016)

Jonek eskolan bere anaiek baino askatasun gehixeago izan zuela du gogoan. Kanpoko ume batzuekin oso ondo konpontzen ziren baina beste batzuei burla egiten zieten. Sakristauak enkarguak egitera bidaltzen zituen eta igandetan propina ematen zien. Tartean behin bandera handia ipintzen laguntzen zioten udaletxeko balkoian.

616. Zeruko Argia saltzen mutikotan (ATA-050/017)

Ataundar batek Zeruko Argia aldizkariak ekartzen zituen eta akolito ari zirenek saldu egiten zituzten elizako sarreran eta plazan; etxez etxe ere joaten ziren, beti erosten zutenen etxeetara. Herriko kronikak idazten hasi ziren gero beraiek.

617. Jexuxen bertsozaletasunaren jatorria (ATA-050/018)

Jexuxek idatzitako bertsoa kantatzen du Jonek. Jexuxek bertso horren gaineko kontakizuna egiten du. Jexux Saturrararen egon zen apaizgai; irakasle euskaltzaleak izan zituen eta bertsoarako grina sortu zitzaion.

618. Joxe Miel Barandiarani omenaldia (ATA-050/019)

Joxe Miel Barandiarani omenaldia egin ziotenekoa kontaktzen du. Kanpoan ibili eta gero herrira itzuli zenean, askok ez omen zuten ikusi ere egin nahi. Horren bueltan, bertso batzuk idatzi eta Zeruko Argian argitaratu zizkioten. Joxe Mielek liburu bi oparitu zizkion.

619. Oargi-Traskaeta elkarteaz (ATA-050/023)

Oargi-Troskaeta elkarteari buruz ari dira. 1981ean zenbat ekintza antolatu zituzten azaltzen dute. Antolatzeko eta ekintzarako indar handia zegoela diote. Frankismoan kultura baliatzen zuten gauzak antolatzeko eta zirrikitu bila ibiltzen ziren.

620. Joxe Miel Barandiarani egindako omenaldi historikoa (ATA-050/024)

Joxe Miel Barandiarani egindako omenaldia historikoa izan zela kontaktzen du Jonek. Euskal munduko erreferente guztiak batu ziren egun hartan. Bertsolarietara arbola bana ipini zioten gaitzat; Xalbadorri "arte" gaia jarri ziotenekoa kontaktzen du Jexuxek.

621. Bertso zaharrak zentsoreentzat (ATA-050/025)

Bertsolari eta kantarietara abestu behar zutenaren berri eman behar izaten zuten aurrez antolatzaileek. Bertso zaharrak bidaltzen zituzten, erdaratuta, zentsoreetara onartzeko.

622. Joxe Miel Barandiaranekin indusketetan (ATA-050/026)

Joxe Miel Barandiaranekin indusketetan nola hasi ziren kontaktzen dute. Baserritarretara jartzen zituen lanean hark eta, bide batez, garai bateko kontuak eta zekizkitenak nortzuk ziren jakiten zuen.

623. Joxe Miel Barandiarani baserritar batek kontaktutakoak (ATA-050/027)

Joxe Miel Barandiaranekin indusketetan noiz, nor eta nola hasi ziren azaltzen du Jexuxek. Ordurako 82 urte zituen Barandiaranek. Baserritar batek sugar baten kontua kontatu zion, baita ipuin gehiago ere.

624. Indusketak eta harrobia (ATA-050/028)

Orduko 30 pezeta ordaindu zizkien Joxe Miel Barandiaranek indusketan aritzearren. Harrobiko langileek leherketa baino lehen tutua jotzen zuten eta beraiek kobazuloan sartzen ziren.

625. Joxe Miel Barandiarenengan, etxeko (ATA-050/029)

Jon irratian lanean hasi zenean, harremana egin zuen Joxe Miel Barandiaranekin, etxeko izateraino. "Atea jotzen duenari atea ireki" omen zen haren etxeko leloa. Joxe Miel grabatzeko intuizioa izan zuten; bere bizimodua kontatu zion. Hainbat anekdota kontaktzen dituzte.

626. Joxe Miel Barandiarani elizak ezi zion ardurarik eman (ATA-050/030)

Joxe Miel Barandiarani buruzko biografiak idatzi zituzten. Liburuak erakusten dituzte. Elizak ez zion apaiz moduan inongo ardurarik ipini eta, ondorioz, ez zeukan soldatarik. "Academia errante" zer zen azaltzen du Jonek.

627. Joxe Miel Barandiaranen ikerketa etnografikoa Lapurdin (ATA-050/031)

Saran trikuharri bila aritu zen Joxe Miel Barandiaran eta monografiko bat idatzi zuen gazteleraz. Beraiek euskaratu egin zuten, "Sara. Ikerlan etnografikoa" izenpean.

628. Joxe Miel Barandiarani buruzkoak (ATA-050/034)

Joxe Miel Barandiarani entzunez ikaragarri ikasi zutela kontatzen du Jexuxek. Joxe Miel 1889an jaio zen. Aita ganaduzalea zeukan, bigarren karlistadan ibilitakoa. Trena dagoeneko bazegoen, eta jendea beldur zen hizkuntza, ohiturak eta beste galduko zirelako.

629. Joxe Miel Barandiarani eskola gustatu ez (ATA-050/035)

Joxe Miel Barandiaranek bertako maisua izan zuen, Manuel Arrese. Euskara debekatuta zegoen orduan eskolan; euskaraz egitearren zigorra izaten zuten, burnizko eraztunaren bitartez. Eskola ez zitzaion gustatzen. Nola zigortzen zituzten kontatzen zuen. Haren anai-arreben berri ematen dute.

630. Joxe Miel Barandiaran Baliarrainera joan zenekoa (ATA-050/036)

Joxe Miel Barandiaran hamalau urterekin atera zen lehenengoz herritik. Apaiz izan nahi zuen. Aitarekin batera Baliarrainera lehenengoz joan zenekoa kontatzen dute; anekdota bat ere bai.

631. Joxe Miel Barandiaranen amak esana umiltasunaz (ATA-050/037)

Joxe Miel Barandiaran Gasteizko apaiztegira joan zenean, etxeko gastuengatik kezkatuta, ikasketei utzi egingo ziela pentsatu zuen, baina aitari semea oso argia zela esan zioten eta hark jarraitzera animatu zuen. Bi ikasturte batean egin zituela eta, harrotuta heldu zen etxera, etxafuegoak botaz. Orduan esan zion amak ezagun egin den esaldia: "Harrotuta ez da ibili behar, umila izan behar dek, sagarrondua bezela. Ordun eta sagar ale gehiago, ordun eta apalago izan behar dek". Handik gutxira hil zitzaion ama eta oso gogorra egin zitzaion.

632. Joxe Miel Barandiaranek ikerlari sena (ATA-050/038)

Apaiz egin aurretik, Joxe Miel Barandiaran irakasle jarri zuten. Irakurritakoa egiaztatu egin behar izaten zuela diote. Matematika eta fisika zalea omen zen. Kobazuloetan uhinak noraino sartzan ziren frogatzen aritzen zen. Anekdota bat kontatzen du Jonek.

633. Joxe Miel Barandiaranek bertako kultura ikertu zuen (ATA-050/039)

Joxe Miel Barandiaran Alemaniara joan zen psikoanalista batekin ikastaroa egitera. Hark aholkatu omen zion bere kultura aztertzei hasteko, ez ibiltzeko kanpora joaten.

634. Joxe Miel Barandiaranen irratiagatiko komeriak (ATA-050/040)

Joxe Miel Barandiaranek Alemaniako aldizkari batean ikusitako irratiak jarri zuen etxean. Espioia zenaren zurrumurrua zabaldu zen. Donostiako Telegrafoetako nagusia galdezka etorri zitzaionekoa kontatzen dute.

635. Joxe Miel Barandiaranek beste erlijioak ezagutu nahi (ATA-050/041)

Apaiz egitekotan zela, Joxe Miel Barandiaranek gotzainari esan zion beste erlijioak ezagutu nahi zituela, egiazkoa zein zen jakin nahi baitzuen. Orduan erabaki zuen kanpoan egonaldiak egitea. Itzultitakoan, apaiz egin zen. Irakasle izateko titulua ere atera zuen.

636. Joxe Miel Barandiaran, Manuel Lekuona eta Aranzadi (ATA-050/042)

1916 inguruan Jentilbaratza industera joan zen Joxe Miel Barandiaran. Manuel Lekuona ikaskide zuen eta haren aipamen batek eraman zuen hartara. Nafarroako gaztelua han zegoela azalduz artikulua argitaratu zuen. Aranzadirekin batera lanean hasi zenekoa kontatzen dute.

637. Joxe Miel Barandiaran, gerra hasitakoan Lapurdira (ATA-050/043)

Ataunen mugak azaltzen dituzte. Gerra hasi zenean, Itziarren ari ziren Urtiaga kobazuloa industen Barandiaran eta Aranzadi. Aingeru Guardako izeneko Mutrikuko itsasontzi batean Lapurdira pasatu zen eta etxera bueltatu ezinik egon zen urte askoan.

638. Joxe Miel Barandiaranen bizimodua Lapurdira (ATA-050/044)

Lapurdira joan zenean, berehalaxe, zonaldeko arkeologia arduradun jarri zuten Barandiaran. Errefuxiatuekin ere lan egin zuen; haiek kontatutako dena idatzi zuen, eta naziak heldu zirenean, lurpean ezkutatu zuen dena. Alemaniako kontaktu batzuei esker, industen jarraitu ahal izan zuen.

639. Joxe Miel Barandiaranek judutar bati lagundu zionekoa (ATA-050/045)

Nazien garaian, Joxe Miel Barandiaran Saran bizi zelarrik, judutar bat Bera aldera pasatu zueneko kontatzen dute. Apaiz laguntzaile moduan jantzi omen zuen. Handik berrogeita hamar urtera Israelgo gobernuak aitortza egin zion ordukoagatik.

640. Joxe Miel Barandiaranen harremana naziekin (ATA-050/046)

Joxe Miel Barandiaran Saran bizi zela, naziekin izandako gorabeherak kontatzen ditu Jexuxek. Itzultzaile jartzen zuten.

641. Hika hitz egiteko ohitura handia (ATA-053/003)

Hika hitz egiteko ohitura handia du. Txikitatik egin izan dute hika senideen artean eta herrian ahal duen guztian halaxe egiten omen du. Gurasoek hika egiten zieten eta beraiek gurasoei zuka. Anai-arreben artean beti hika. Iloba neska bati zuka egiten dio eta ez daki zergatik.

642. Gazteen hizkuntza-ohiturak? (ATA-053/004)

Gazteek ere hika hitz egingo dutela iruditzen zaio, baina aitortzen du ez dela gazteen inguruan ibiltzen eta ez dakiela ziur. Gaztelaniaren erabilerak gora egin duela dio eta horrek gehiago kezkatzen du.

643. Hitanoaren erabilera-ohiturak (ATA-053/005)

Hitanoa erabilera-ohitura batzuekin lotu izan da, baina berak zaharragoei ere hika egin izan die, konfiantza pixka bat izanez gero. Ez du entzun izan ume txikiei zuka egiten zaienik edo ezkondutakoan zuka egin behar denik. Hala ere, inguruko bikoteek elkarrekin zuka egiten dutela dio.

644. Hika egitea gertukoa (ATA-053/006)

Kaletarrek eta baserritarrek hika berdin hitz egingo dutela iruditzen zaio, kale aldekoak diren lagunek ere hika egiten dute eta. Batzuetan entzun izan du hika egitea ez dela errespetuzkoa, baina berari kontrakoa iruditzen zaio, hika egiteak konfiantza eta gertutasuna ematen ditu eta.

645. Hika eta genero desberdintasuna (ATA-053/008)

Leku batzuetan hika ez dela emakumezkoentzat aproposa entzun izan da. Berak ez du halakorik entzun. Gizonezko eta emakumezkoen artean bestela ere nahikoa desberdintasun egon dela dio. Garai batean mendietan egiten zituzten festak. Mutilengana hurbiltzen ziren neskek seinalatu egiten zituzten.

646. Garai batean euskaldunak eta baserritarrak gutxietsita (ATA-053/010)

Gaztelaniarako joera handitzen ari dela ikusten du. Garai batean euskaldunak eta baserritarrak gutxietsi egiten ziren. Berak ere sentitu izan zuen hori, inguruko herrietara joandakoan. Gaztelaniaz egiteko larri; "defenditzen giñuztenan".

647. Semei hika eta alabei zuka egitea ulergaitza (ATA-053/011)

Guraso batzuk semei hika egiten diete eta alabei zuka. Ulergaitza egiten zaio, baina berak ere iloba neska bati zuka egiten dio eta ez daki zergatik. Hika egitea gehiago gustatzen zaio, erosoago sentitzen da.

648. Bere buruari noka (ATA-053/012)

Hika idazten du askotan, euskara batuan ere bai. Toka-noka zer den. Berak ondo bereizten ditu. Bere buruari hika egiten dio, noka.

649. Abereei toka ala noka? (ATA-053/013)

Inoiz ez du pentsatu etxeko abereei toka ala noka egiten ote dien, baina behiei toka egiten ote dien uste du. Leku batzuetan emeak diren animaliei ere toka egiteko joera egon da. Hala ere, bizilagunaren txakur emeari noka egiten omen dio.

650. Hitanoaren eta euskararen egoera Ataunen (ATA-053/015)

Hika galtzeak pena handia emango lioke. San Gregorioko umeek zuka egingo dutela uste du. Hitanoaren egoera Ataunen. Euskararen egoera. Gazteek gaztelaniaz asko egiten dutela esaten dute. Gurasoak ere gaztelaniaz entzun izan ditu. Kanpoko jende asko dago herrian. Euskaraz dakitenek ez egiteak ematen dio minik handiena. Berak lehen hitza beti euskaraz egiten du.

651. Umetatik futbolean (ATA-053/017)

14 anai-arrebatan gazteena da. Herrian ibili zen lehenbizi eskolan eta gero Beasainera joan zen, Lizeora. Kirolzalea izan da beti eta futbolean aritzen zen. Emakumezkoen taldea ere sortu zuten herrian. Beasainen eta Añorgan jokatu zuen eta Euskal Selektzioarekin ere bai, Bartzelonan, Camp Nou. Belauneko lesio bategatik utzi zuen. Garai hartan emakumezko gutxi aritzen ziren futbolean.

652. Emakumeek etxean egindako lana, ikusgaitza (ATA-053/018)

Garai bateko emakume baserritarren bizimodua. Amak 13 seme-alaba hazteaz gain, lan asko egin behar izaten zuen. Kanpoan egindako lana gehiago ikusten da, baina etxeko lana oraindik ere ez dela ikusten uste du. Garai batean emakumeek ez zuten izaten banatzeko aukerarik eta egoera jasan behar izaten zuten; gaur egun, berriz, ezer gutxi jasateko prest gaudela uste du.

653. Baserritik bizitzeko arazoak (ATA-053/021)

Baserritik bizi ziren, esne-behiekin. Gero anaiak etxetik kanpo lan egiten hasi ziren eta ahizpa batzuk neskame ere bai. Bakoitzak bere bidea hartu zuen eta, azkenean, bi anaia eta bera geratu ziren baserrian. Gaur egun, haragitarako behiak dituzte. Egoera txarra dutela eta laster ezingo dutela horrela jarraitu dio. Jendea ez dago kontzientziazatuta bertakoari laguntzeko.

654. Garai baten lanak eskuz, baina erritmo lasaiagoa baserrian (ATA-053/023)

Garai batean baserrietan eskuz egiten ziren lan asko, baina erritmoa lasaiagoa zen. Gaur egun erreminta aldetik erraztasun handiagoak daude, baina beti iritsi ezinda. Bizimoduak abiadura handia hartu du. Garai batean eskuz jezten zituzten behiak. Amak omen zuen eskurik onena. 20-25 behi izaten zituzten.

655. Herrian saltzen zuten behi-esnea (ATA-053/024)

Garai baten herrian saltzen zuten behi-esnea, etxez etxe. Sobratzen zena Gurelesari saltzen zioten. Herritarrekin harremana. Marmitak. Plastikozko ontzi bat erabiltzen zuen berak esnea botatzeko. Debekatu egin zieten gero, higieagatik.

656. Aurrerapenak, aldaketak eta genero ezberdintasunak (ATA-053/026)

Berak beti ezagutu du garbigailua etxean, baina senideek bestelako kontuak ere kontatu izan dizkiote. Telebista inguruko baserri batera ekarri omen zuten lehenbizikoz eta igandetan hara joaten ziren gizonezkoak, kartetan jokatu eta telebista ikustera. Emakumeei ez die entzun izan garai batean tabernara joaten zirenik; gizonezkoak bai. Beraiek neska eta mutil eta adin ezberdinetakoak ibiltzen ziren elkarrekin. Parrandara joateko, gaur egun baino lasaitasun handiagoa zegoela uste du. Garai batean ere egongo ziren sexu-erasoak, baina berak ez du halakorik bizi izan.

657. Emakume Baserritarren Elkarteko kide (ATA-053/028)

Emakume Baserritarren Elkarteko kide da. Taldean hika aritzen direla dio. Lan handia egin dut hainbat esparrutan. Emakume baserritarrek kanpoko lanaz gain etxekoa ere egin behar izaten dute eta lan hori ez da ikusten. Elkartearen helburu nagusia elkarri laguntzea eta informazioa elkarbanatzea da.

658. Baserritik bizitzea zaila; etorkizun iluna (ATA-053/029)

Gaur egun baserritik bizitzea oso zaila da. Dauden politikek ez dituzte baserritarrak aintzat hartzen. Lur-sailak garbi nahi dituzte, baina ez dute garbitzeko laguntzarik ematen. Jendeak idealizatu egiten du baserriko bizimodua. Agintarien artean ulertzen ez duen jendea dagoela iruditzen zaio. Etorkizuna beltza ikusten du. Arau zorrotzak betearazten dizkiete, askotan zentzu handirik izan ez arren.

659. Umetan San Gregorioko eskolan (ATA-053/033)

San Gregorioko eskolan ibili zen umetan. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Maistra alkate izandakoa zen, oso gogorra. Bai maistrarekin eta bai geroago izan zuten Martin maisuarekin euskaraz egiten zutela uste du. Gero, San Martingo eskolara pasa ziren eta han ere euskaraz.

660. Baserritarrak baztertuta (ATA-053/034)

Aldaketa handia izan zen Beasaingo Lizeora joatea. Baserritarrak herrian baztertuak baziren, han gehiago. Ahizpak kontatzen zion Ataunen bertan ere kaletarrei opariak eramaten zizkiela, onar zezaten. Beasainen inguruko herri txikietakoak elkartzen ziren. Denek egiten zuten euskaraz, baina baserritarrak gutxietsi egiten ziren.

661. Herri txikietako politika (ATA-053/036)

Bere ustez Ataun bezalako herri batean ez litzateke alderdi politikorik egon behar, herriarentzat lan egingo duten pertsonak baino. Askotan zentzu gabeko liskarrak izaten dira politikan eta kontrakoaren ideia ona izan arren, ez da aintzat hartzen. Indarrak bateratu beharrea, elkarren aurka.

662. Inguruko herrietako festetara; San Gregorioko jaiak (ATA-053/039)

Gaztetan Beasain-Ordizia inguruan ibiltzen ziren parrandan, baina gerora ahizpa Etxarrira hasi zenez, beraiek ere bai. Futbola dela eta, Donostia aldean ere asko ibili izan zen. Herrian, San Gregorion festa onak egiten ziren. Herri-kiroletan ere aritzen ziren herriko kideak.

663. Umetako jolasak (ATA-053/044)

Umetako jolasak: kanikak, txapak, kromoak... Txintxina. Goma ez zitzaion asko gustatzen; baloia bai. Baziren nesken eta mutilen jolasak. Bera ez zen tortolosekin ibili izan, ahizpa nagusiagoak bai. Berari zeintzuk gustatzen zitzaizkion.

664. Herri txikian bizitzea (ATA-055/034)

Herri txikian bizitzea gustuko dute. Kotxearekiko menpekotasun handia izaten da eta zerbitzu gutxiago egoten da. Lasaitasuna, giroa... estimatzen dituzte.

665. Herrian eragile asko daude (ATA-055/035)

Herrian eragile asko daude: Oargi elkarteak, kirol elkarteak, dantza taldeak, Biboletak, elkarte gastronomikoak, guraso elkarteak...

666. Kanpotik etorri eta euskaraz ikasi dutenak (ATA-055/038)

Herrian euskarak duen egoeraz ari dira. Kanpotik etorri eta euskaraz ikasi dutenek poz handia ematen diete.

667. Ataungo euskararen berezitasunak (ATA-055/039)

Gasteizen beste leku batzuetako euskaldunei "ea" bukaerak arreta ematen zien. Hizki asko jaten dituztela diote.

668. Ataungo hitz eta esamolde bereziak (ATA-055/040)

Herriko hitz bereziak aipatzen dituzte.

669. Inguruko herrietakoekin harreman ona (ATA-055/041)

Ataundarrei otsoak esaten diete. Inguruko herrietakoek ere badituzte gaitzizenak. Inguruko herrietakoekin pike berezirik ez dute izan; harremana bai.

670. Hika eta zuka aritzearen ohiturak (ATA-055/044)

Zuka eta hika egitearen ohiturak sakonak izaten dira. Ezezagunei hika egitea kosta egiten zaiela diote.

671. Zoriak euskaltegiko irakasle izatera eraman zuen (ATA-056/003)

Ingeniaritza zibila ikasi zuen Bilbon, baina berehala konturatu zen ez zela hori nahi zuena. Buelta asko eman ostean, Lasarteko euskaltegian hasi zen lanean. Bide horretan ez du bereziki euskararen inguruko lanketarik egin eta ataundarra izateak eta etxean euskara ona jasotzeak ahalbidetu duela bera euskara irakasle izatea dio.

672. Euskara aberatsa jaso du etxean (ATA-056/004)

Aita ataundarra eta ama orexarra ditu. Gurasoengandik euskara ona jaso du, haiek aurrekoengandik halaxe jaso zutelako. Pertsonaren arabera euskara itxiagoa edo garbiagoa erabiltzen du. Tratamenduei dagokienez ere badu aberastasuna. Umetatik jaso du hika, gurasoek hala egiten diotelako. Berorika ere ez zaio arrotza egiten, "Jentilen etorrera" elkartekoen antzeppenetan entzun izan duelako eta familian ere aurrekoek erabiltzen zutelako.

673. Toka umetatik; noka beranduago (ATA-056/006)

Senide guztiak mutilak dira eta, ondorioz, etxean toka zen nagusi. Hala ere, beti entzun izan du noka ere, gurasoek euren senideekin noka ere erabiltzen zutelako. Umetan toka egiten zuen mutilekin eta neskekin zuka. Nagusitu arte ez zen hasi noka erabiltzen, jakin arren. Euskaltegian lanean hasteak zerikusia izan zuen noka erabiltzearekin, ikasleei eskatzen ziena berak ez zuela betetzen sentitzen zuelako. Hasieran zukatik nokara aldatzea kostatu arren, gaur egun denekin hika egiten du.

674. Euskaltegiko ikasleei ere hika (ATA-056/007)

Hasieran kostatu egin zitzaion noka egitea, baina lortu zuen. Gainera, kutsakorra dela dio, inguruko batzuk gerora hasi direlako. Euskaltegian C2ko ikasleei ere hika egiten die eta ikasturte bukaerarako izaten da hika ausartzen denen bat urtero.

675. Denei hika, zuka erantzun arren (ATA-056/008)

Gaur egun inguruko guztiekin hika egiten du, nahiz eta haiek zuka erantzun. Horretara ohitu egiten dela dio. Gainera, hika eginez gero, hika pixka bat dakitenak ere animatu egin daitezke.

676. Ataunen nagusiagoek hika; irakaslearen eragina (ATA-056/009)

Ataunen bera baino dozena bat urte zaharragoek toka-noka naturaltasun osoz egiten dute. Bere belaunaldian hasi zen galera. Hala ere, adin inguru horretako neska batzuk kontzienteki ahalegintzen direla hika erantzuten dio. Umetan izan zuen irakasle batek berari hika egiteko eskatzen zien. Badaki inguruko batzuek hari esker hartu zutela hika egiteko ohitura.

677. Irakasleari hika; hitanoaren "arauak" (ATA-056/011)

Jesus Mari Goikoetxea 'Goiko' ataundarra izan zuen irakasle umetan eta ikasleei hika egiteko eskatzen zien. Zenbaitek, tartean Iñakiren aitak, ez zuen ondo ikusten umeei irakasleari hika egitea, hitanoaren erabilera-ohituren arabera, zaharragoei hika egitea gaizki ikusita egon delako. Hitanoaren "arauak". Bera arau horiek malgutzearen aldekoa da. Zenbait adibide jartzen ditu.

678. Umeei oso txikitatik hika (ATA-056/012)

Hitanoaren erabilera-arauetako bat ume txikiei hika ez egitea izaten zen; normalean pixka bat koskortutakoan egiten zitzairen. Iñakik dio euren familian oso txikitatik egin izan dietela hika umeei. Abereei, berriz ez daki nola egingo ote dieten.

679. Garai batean Ataungo eskolan euskalkia eta hika transmititzen ziren (ATA-056/014)

Garai batean Ataungo irakasleen gehiengoak bertakoa edo ingurukoa izaten zen. Ondorioz, era naturalean iristen zitzaizkien umeei bai euskalkia eta baita hika ere. Ez daki gaur egungo egoera zein ote den.

680. 30 urtetik beherakoek noka gutxi Ataunen; zergatik? (ATA-056/015)

Gaur egun 30 urtetik beherakoek ia ez dute noka erabiltzen Ataunen. Zaharragoetan ere badaude hutsuneak eta beharbada ez da toka adina erabiliko, baina erabiltzen da. Une batetik aurrera nesken eta mutilen kuadrillak bereizi egin zirelako izan daitekeela uste du. Zenbait familian senide nagusiagoek hika eta gazteagoek zuka egiten dute.

681. Hitanoaren fama (ATA-056/016)

Herri batzuetan gurasoek semei hika egin izan diete eta alabei, berriz, zuka. Iñakik ez daki hori Ataunen horrela izan ote den. Hala ere, hitanoa hizketa zakarra izatearekin lotu izan dela dio. Kale-hizkera da. Euskararen eta hitanoaren fama. Norbaitekin hika hasitakoan, harrera ona izaten da normalean, baina kontrako jarrerak ere tokatu izan zaizkio. Euskara gaitzesteko erabili izan diren argudio berberak erabili izan dituzte hika gaitzesteko.

682. Euskarak eta hikak kalea behar dute bizirauteko (ATA-056/018)

Euskara baserri-giroan gorde da ondoen, baina kalea (ere) behar du bizirauteko. Hiriak handitzen joan diren heinean, kanpoko jendea etorri da eta euskara gutxitu egin da hirian. Euskarak arnasmuneetan iraun du, inguruko herri txikietan, baina horietan ere beheraka doa. Bizirauteko, hiria hartu behar dela uste du Iñakik. Hitanoarekin gauza bera. Hitanoa garrantzitsua da kaleko hizkeraren hutsunea betetzeko (bestela euskañola erabiltzen da). Kale-hizkerarako beharrezko da hika.

683. Hika baztertzeak ate asko isten ditu (ATA-056/019)

Euskaldunok baztertu egin dugu hika, bai eskoletan eta bai euskaltegietan; aditzak irakasterakoan, hi pertsona saltatu egin izan da. Baina,aldi berean, hi hori garrantzitsua da, hori delako kalean erabiltzeko hizkera: haserretzekoa, ligatzekoa, madarikatzekoa... Identitate-marka da hika. Gertutasuna ematen du harremanetan.

684. Jende gehienari hika; zuka kontzienteki (ATA-056/020)

Desberdin sentitzen da hika ala zuka egin. Jende gehientsuenari hika egitera pasa zenez, orain kontzienteago da nori egiten dion zuka eta zergatik. Ezezagunei ere hika egiten die. Euskararekin berarekin gertatzen den moduan, iruditzen zaio lehenbizi euskaraz/hika hasi behar dela eta hartzailak adierazi beharko lukeela eroso sentitzen ez bada.

685. Hitanoa kritikatu izan da, generoa bereizten duelako (ATA-056/021)

Hitanoari egin izan zaion kritiketako bat generoa bereiztearena da. Iñakik garbi du euskarak berez ez duela generorik, baina egia da hitanoak hartzailaren generoa kontuan hartzen duela. Bere ustez hitanoa berreskuratzea da lehentasuna eta ondoren etorriko litzateke generoaren auzia konpontzea. Berorika galdu egin zen eta hitanoarekin gauza bera gerta daitekeela ikusten du. Hitanoa ez da gauza berri bat, lehendik geneukan zerbait berreskuratzea baizik.

686. Euskara ikasten dutenek "euskara osoa" ikasi beharko lukete (ATA-056/022)

Leku batzuetan, hiriburuetan, adibidez, esaten dute nahikoa dutela euskarari eustearekin eta hitanoa ez dutela behar. Araban euskarak gorakada handia izan du azken urteetan. Oso maila xumetik abiatu dira eta lñakiren ustez horixe da gune egokia hitanoa sartzeko: euskara ikasterakoan, "euskara osoa" ikasi beharko litzateke. Euskararen beste atal bat ikastea da kontua eta atal horrek ate asko irekiko lizkieke.

687. Gaztelaniak betetzen ditu hizkuntza informaleko zuloak (ATA-056/024)

Hika berreskuratu ezean, zukak ezin duenez bete hikaren funtzioa, zulo guztietan gaztelania sartzen da. Euskarak hutsuneak dituen eremuetan (biraoak, sexuarekin lotutako lexikoa...) berehala sartzen dira gaztelania edo frantsesa. Gaur egun, gainera, ingelesak ere hartzen ditu zenbait esparru.

688. Arnasguneen eredia garrantzitsua (ATA-056/025)

Hitanoaren egoera hobea da "arnasguneetan". Herri horietan hitanoa erabiltzea eredu izan daiteke inguruko herri handiagoentzat. lñakik herri ezberdinetako errealitateak ezagutu ditu. Noka ikastaroan ibili ziren neska lasartearren adibidea. Hala ere, horrekin ez dela nahikoa iruditzen zaio.

689. Hitanoari egindako kritikak; gizartearen isla (ATA-056/026)

Ataunen ez du inoiz entzun hikaren aurkako iruzkinik. Korrikaren leloa "Harro hadi" izan behar zela, baina lelo horrek kritikak jaso zituela azaltzen du. Besteak beste, leku batzuetan hitanoa mutilek bakarrik erabiltzen dutela eta "hadi" erabiltzea "matxista" zela kritikatu zuten. Leku askotan gertatu da hika mutilekin eta zabarkeriarekin lotzea, baina hori arazo soziala da, ez linguistikoa. Ikuspegi hori euskara baserritarrekin lotzearekin alderatzen du.

690. Emakumezkoentzako hitano ikastaroak (ATA-056/027)

Azken urteetan hitano ikastaroak antolatu dira emakumezkoentzat eta batzuek emakumezkoentzat bakarrik izatea kritikatu izan dute. Emakumezkoek hika eroso sentitzeko lehenbizi eremu hori behar badute, ondo iruditzen zaio hala egitea. Bera ere lehenbizi eremu eroso batean hasi zen noka erabiltzen.

691. Hitanoa bultzatzeko zer? (ATA-056/028)

Hikari (eta nokari) bultzada emateko zer? Hika etxetik jasotzen ez dutenek eskolan ikasi behar lukete, euskararekin batean. Baina hori ez da nahikoa eta kontzientziazioa ere egin behar litzateke eta, toka-noka orekatzeko, gizartean zein hizkuntzan berdintasuna bultzatu. Eta garrantzitsuena: erabili. Herriak arnagune diren moduan, pertsonak ere izan daitezke arnagune. Eremu informalak ere beharrezkoak dira hitanoarentzat.

692. Alokutiboa, gizatasuna ematen duen hizkera (ATA-056/029)

Mirentxu Lakok esan izan du zuka neutroa dela eta alokutiboak, hiketa eta xuketa, gizatasuna ematen duten hizkerak. Iritzi berekoa da lñaki. Hitanoa erabiltzean, alokutiboaren bidez, pertsona zehatz bati zuzentzen zatzaizkio.

Harreman zuzenenetan hika erabili izan da. Bere ustez ez da kasualitatea Mariri beti hika egin izana edo Leizarragak hika erabiltzea jainkoari zuzentzeko.

693. Hitanoaren egoera Ataunen (ATA-056/030)

Hitanoa egoera onean dago Ataunen: bera baino gazteagoetan, mutilek hika egiten dute; nagusiagoetan, bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek. Egoera gehiago okertu baino lehen, orain dela eragiteko unea iruditzen zaio, bestela datozen belaunaldietan noka galtzeko arriskua dago.

694. Hitanoaren egoera Euskal Herrian (ATA-056/031)

Hitanoaren egoera Euskal Herri mailan ez da ona, "burbuila" batzuk egon arren. Hirietan edo herri populatuenetan galbidean edo galduta dago hika eta hiriek asko eragiten dute egoeran. Euskararen egoera ez da ona Euskal Herri osoa kontuan hartuz gero, eta horren barruan hitanoa azken muturrean geratuko litzateke. Hala ere, euskara salbatuko bada, hitanoa ere beharrezkoa dela uste du.

695. Hizkuntzaren zuzentasunaren alde (ATA-056/032)

Bera zuzentasunaren aldekoa da, hitanoari dagokionez. Euskararen zuzentasunarekin alderatzen du. Norbait ikasten ari denean, normala da hanka sartzea, eta ari lagundu egin behar zaio, baina euskara edo hitanoa gaizki erabiltzea ikaste-prozesuan bakarrik gertatu beharko litzateke. Darabilgun hizkuntzaz gogoeta egin beharko genuke. Gure aurrekoek bazuten egindako akatsez ohartzeko eta zuzenarazteko gaitasuna, "hizkuntzan adituak" izan ez arren.

696. Zer egin egitura okerrekin? (ATA-056/033)

Oñatiko gazteen artean modan dago "xaukena xauk" esamoldea, nahiz eta zuzena ez izan ("dauena xauk" litzateke zuzena). Iñakiren ustez ez ginateke hasi behar esamoldea aldatzen, baina hori darabilenak jakin beharko luke ez dela zuzena, eta halako egiturak egunerokotasunean zuzen erabili.

697. Hika tokiko hizkerari lotuta; hizkera moldatu beharra (ATA-056/034)

Hitanoa tokiko hizkerarekin lotuta dago. Hika batua eta zenbait euskalkitakoa oso ezberdinak dira. Iñakik euskalkia darabil euskaltegian, baina Usurbilen ari delako lanean. Beste leku batean arituko balitz hizkera moldatu beharko lukeela iruditzen zaio. Gure herritik ateratzen garenean, hizkera moldatzen hasten gara (edo hasi behar genuke), beste euskalkietakoek uler dezaten.

698. Herri-hizkerak aldatzen: hitz eta esamoldeak galdu, azentua aldatu... (ATA-056/035)

Herri-hizkerak aldatzen joaten dira, aditzak, esaterako. Esamoldeak eta hitzak ere galduz joaten dira, euskara batuaren edo gaztelaniaren eraginez. Ataungo zenbait esamolde. Azentua ere aldatuz joan da. Azkenaldian gurasoei galdezka aritzen da, galera horiez konturatuta. Pena ematen dio galera horrek, identitate marka bat izan direlako. Identitateak bateratzen doaz.

699. "Herri txiki infernu handi" esamoldearen inguruko gogoetak (ATA-056/037)

"Herri txiki infernu handi" dio esaerak. Herri txikietan komunitateak elkar ezagutzen du eta elkar gehiago zaindu. Horrek bere alde onak eta txarrak ditu. Bere esperientzia eta bizipenak.

700. Globalizazioaren eragina hizkuntza-ohituretan (ATA-056/039)

Globalizazioaren eragina hizkuntza-ohituretan. Berak 7 urtera arte ez zekien gaztelaniaz. Gogoan du Beasainera ikastera joan zenean, barre egin izan ziotela gaztelaniaz egoki ez egiteagatik. Gaur egun umeak gaztelaniaz aritzen dira patioan eta, besteak beste, globalizazioaren eragina da hori. Gaur egun umeek kontsumitzen duten eduki asko (telebistan, adibidez) gaztelaniaz dago. Badira euskaraz jakin arren gaztelaniaz aritzen diren helduen kuadrillak ere.

701. Mundu birtualaren eragina hizkuntza-ohituretan (ATA-056/040)

Ataunen etorkinen eragina ez da nabaria izan hizkuntzari dagokionez, kanpotik etorritakoek ere berehala ikasten zutelako euskara. Bere ikaskide izandako neska saharar baten kasua azaltzen du. Gaur egun gauzak ezberdinak dira, mundu errealaz gain mundu birtuala dugulako eta mugikortasun handiagoa dugulako. Mundu birtualaren (sare sozialak eta abar) eragina. Ez da erraza mundu horretan eragitea. Euskarazko edukiak behar dira eta euskaraz kontsumitzeko beharra sortu behar da. "Dragoi bola" marrazki biziduna jartzen du adibide gisa: jendeak gustuko marrazkiak ikusteko, euskaraz ikusi beste aukerarik ez zuen. Beste adibide batzuk.

702. Euskarazko eduki "guay"ak sortzearen garrantzia (ATA-056/041)

Garrantzitsua da eduki "guay"ak sortzea euskaraz, jendea euskaraz kontsumitzera bultzatzeko. Musikari dagokionez, aurreko belaunaldiak oso emankorrak izan dira. Zineman lan handia ari dira egiten, euskarazko pelikula oso onak ari direlako sortzen. Esaterako, jende askok ikusi du "Irati" filma euskaraz. Garrantzitsua da esparru batzuetan (telebistan, esaterako) euskarazko edukiei dagokienez dagoen gabezia betetzea.

703. Euskararekiko kontzientziazioaren beharra (ATA-056/042)

Ataungo gazteek elkarrekin hika egiten dute. Arnasguneetan bizi direnek batzuetan uste dute "salbatuta" daudela, euskararen egoera herrian ona delako. Gainera, batzuetan normaltasunez onartzen da herritik kanpora ateratakoan edo zenbait eremutan (administrazioa, osasuna...) gaztelania erabili beharra. Berari herritik atera zitzaionean piztu zitzaion euskararekiko kontzientzia.

704. Ataun, herri aktiboa (ATA-056/044)

Ataun herri aktiboa da, era askotako talde asko dituen. Hala ere, "zuloak" non dituzten garbi ikusten dute: euskara talderik ez, osasungintzaren alde borrokatuko duen talderik ez... Adineko asko dituen herria da Ataun eta askotan arazoak izan dituzte lehen arretarekin.

705. Sexu-askapena normalizatuta Ataunen? (ATA-056/049)

Ataun herri atzerakoia izan da (eta da) kontu askotan eta sexu-askapena oraindik ez dagoela normalizatuta iruditzen zaio. Entzun izan dituen zenbait iruzkin. Badira aurpegia eman eta armairutik irteten ausartu den jendea, nahiz eta ezkutuan geratu direnak ere izango diren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com